

**Jon Mirande**

**ARTIKULUAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Obra osoa (I)*, Jon Mirande Aiphasorho (Luis Haranburu Altunaren edizioa). Hiria, 1999.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=225>

# GIZALEKOREKO IZATEAK EUSKALDUNEN ETA KELTEN FOLKLORETAN

Arduraz eta atseginez irakurri dut GERNIKA-ren 18-garren zenbakian J. Th. Labandibar-en idaziana: *Elementos Míticos en las Leyendas de Azkue*. Azkue handia hasi zitzaigun Euskalerrriaren jakintza bilatu eta biltzen. Haren bil-lanari jarraipen eman behar diogu orain euskaltzaleok, harek jaso elezaharrak adieraziz, gure herriaren arima ezagut dezagun -Labandibarren hitzetan-, elezahar horietan bait dago Euskal Endaren egiazko folklorea eta ez bakarrik Per-nando Amezketarraren ipuinetan, edo pilota, fandango, mus eta beste baskokerietan. Zoritxarrez, jakinga-rrri aunitz betiereko galdu dugu, beranduegi eman zirelako bilaketa horri euskal-jakintzariak. Behar bada ere, gure nausi tenporal eta izpiritualek indarrez erautsi bide zituzten Euskaldunen gogo-bihotzetatik paga-nu-usain gehiegi zeukaten herri sinespenak...

Keltalari bezala, zehaztaperen zenbait eman nahi dut hemen Kelten gizalekoreko edo gizagaindiko iza-teei buruz, Labandibar jaunak idatzi duenaren osaga-

rri. Lehenik erran behar diot egileari Irlandako «lamiak» ez duela Banchi izena, baina Sidh edo Beansidhe; engeleraren ortografian, banshee. Izen horrek «bake emakumea» esan nahi bide du: bake = *Sid* (goi-delera, irlandera zaharrean), emakumea = *bean*; bestalde, beansidhea ez da zeharo gure lamiñaren antzeko, geroxeago erakutsiko dudan bezala.

Euskaldun lamiñen iduriago dira Gales-ko *Tylwyth Teg* edo «Enda Ederrekoak»: hauek ere izate bitxi batzu dira (nid ysbyrdion, ond pobl Fychain ydy), zoletan bizi direnak. Beren deituraren gatik, tylfyth teg-eko emakumeak bakarrik dira eder; gizonezkoak beltz eta zatar dira. Enda ederrekoek ere gizakumeetako emagin baten lagungoa eskatzen dute sarri: ondo ordaintzen dute baina bere ekintzan ari delarik, ama, haurra eta aita baizik ezin ikus ditzake; gainerazkoak oro gandu batek estalirik daudelako. Zenbait aldiz aitak ur bat ematen dio haurren begiak igurtzitzeko, baina ohartu gabe bere begiak emaginak harekin igurtzitzen baditu, ganduak ezkututzen zituenak ikusten ditu orduan, ezkerreko begiaz, eta tylwyth teg-ek begi hori zulatu egiten diote.

Galestarren sinespen horrek Lamia bat *eta bere amaina*, Azkuek dakarren euskal ipuina oroiterazten digu osoki (In «Euskalerrriaren Jakintza», II, 135).

Halaz ere, Enda ederrekoak ez dira gaiztoak: lagundu omen diote gizakume behartsu bati baino gehiagori, egunero txanpon bat utziz toki berezi batean. Baina txanpona gaizki igorri gogo badu, orbel bihurtzen da.

Landetan maiz ikusten dira toki batzu, haietan belarra muskerrago bait da. Lehenago Frantzian uste zuten sorginek akelarre han egiten zutela, eta sorgin-obo (ronds de sorcières) deitzen zituzten toki horiek. Galestarrek, berriz, Enda Ederraren dantza-toki direla diote (dawnsfeydd y Tylwyth, Teg). Ene Zubero herrian ere uste hori bazuten.

Enda Ederrekoak ez-hilkor dira, edo, behintzat, gu baino askoz biziluzedunago. Inoiz ez dira zahartzen, ez eritzen; kantan eta dantzan diraute beti, manuren musika lagun. Batzuetan Tylwyth, Teg-eko emakumezkoak gizaseme batekin ezkontzen dira (cf. Bizkai-ko ipuina, *Lamiña bat ezkongai*, Azkue, aipatu obran, II, 194). Gizonezkoek, ordea, ez dute sekulan gizalabarik andregaitzat biltzen, itsusi eta zatar baitira.

Ageri denez, alkarri hurbil ditugu Gales-ko Enda Ederra eta Euskal Herriko lamin-enda. Ene gardiz, beraz, lamiñek ez dute izenaz beste zer ikustekorik Phrygeia-ko Erreginarekin: Sarkalde-Europako kultur-Oboan jaio, eta haziak ditugu dudarik batere gabe.

Izate maitagarri horien berri gehiago ikasteko Irlandako Beansidhe-aren gana itzul gaitezen orain. Goidelen (Gael) aintzinako historiak dioenez, herriko lehen izaleetatik ziren Tuatha dê Dannan edo Dana Jainkosaren gizeliak. Irlandaratu baino lehen, «munduko ipar-izaroetan, aztigoa, sorgintza eta mageia ikasten» egonik ziren. Elezahar batzuen arauera beansidheak dira Tuatha Dê Danann-en ondokoak. Gizakumeak lirateke, beraz, nahiz beste gizendak baino hainitzez azkarrago eta indartsuago, jakintza ezkutuaren, gordearen, jabe direlako. Ene aburuz, haatik, sinespen horrek beansidhearen egiazko etorkia maskaldu egiten du: beste elezahar gehienek jakilegoatik, izate horiek giza gairik direla ageri du; mundu honen bestaldean bizi dira. Bestalde horri izen hauek eman ohi zion Goidel hizkuntzak: Gazteen Herria (Tir na-n-Og), Poz-zelaia, Agindu lurra... Itsasoan zegoen atsegin-herri hori itsaslariek ezin ikus zezaketen: iduripen

batek atzipeturik, uhinak baizik ez zituzten haren lekuan ikusten.

Enda Ederrekoak ez antzo, beansidheak oro emakumezkoak eta gure lamiñen aitzika, giza alabak bezala ziren aurpegiz eta kaizuz. Haiek ere maitemintzen ziren noizpeinka gizaseme batetaz, eta beren egoitzara eroan ohi zuten, ondorengo ipuin honek erakusten digunez:

*Behin Kondle Gorria, ehun Borroketako Kond-en semea, aitarekin zegoen Goi-Usnech-ean. Emakume bat ikusi zuen etortzen, obi ez bezalako jantzitan.*

*- Nondik ator, emakume? erran zuen.*

*- Bizidunen Lurretik horra nauk -erantzun zuen-, han ez baita ez Heriorik, ez hogenik, ez hutsik. Tai gabeko afariak egiten ditiagu, adelatu behar izan gabe; batzarre ederrak baditugu liskarrik gabekoak. Bake haundian geudek, horregatik sidhe deitzen gaituk.*

*- Norekin haiz mintzo? -Mutil Kondlek erran zion semeari.*

*- Emakumeak erantzun zuen: «Ari jatorreko emakume gazte eta eder batakin mintzo duk, behin ere hilen edo zahartuko ez dena. Maite diat Kondle Gorria! Dei egin dioat, Poz zelairat jin dadila, han baitago Boa-*

*dag erregea betiereko jaun; nausi denez geroztik, haren herriak ez dik ez auhenik ez lorrik ezagutzen. Ator nirekin, Kondle Gorri, idun apain, argia bezain gorria... Nere deia onartzen baduk hire ederra ez duk zimelduko...».*

Ikusten dugu Beansidheek egite handia badutela Tylwyth Teg eta Lamiñekin..Ez dira berdin orratio. Goi-delen Beansidhea gizagaindiko izate bat da: bestaldean bizi da, paganuen atse-baratzeko aingeru-antzean. Gales-ko Tylwyth Teg-ak eta Euskalerriko Lamiñak, aldiz, enda nahastuak dira; batetik, ean ukatuzko askazigoa, ahaidegoa, badute beansidheekin; bestetik, herri guzietan aurkitzen diren gizapetiko izateok gogoratzen dizkigute -Okultisten hizkeran «elemental» izendunak-, nahiz suarekikoak, (salmandrae), nahi urarekikoak (undinae), nahiz haizearekikoak (sylphi), nahiz lurrarekikoak (gnomi), Izaeraz ez dira gaiztoak, isekari eta mutiri baizik; baina magilariak bere menpera jar ditzake. Giza arimarik ez dute, eta armia bat irabazi nahian saiatzen dira (irakur La Motte-Fouqué German idazlearen kondaira pollita).

Balidurike Galestarrek eta Euskaldunek bi eratako sinespenak nahastekatu dituztela, eta bitariko izateok -Enda Ederrekoak eta Lamiñak- sortzeko. Aralar men-



dian bizi den «Maitagarria» dukegu ausaz, Euskalerriko folklorea, Irlandako beansidheen ahizpa bat.

Eta zer dira bada jatorriz gizalekoreko izate horiek guziak? Materialistek erranen dute, eskierki, herrien sineskeriak baizik ez direla. Zenbaitek, berriz, Harri Aro Berriko gizenda batetaz dauzkate («Homo mediterraneus» delako haren enda): beste enda handiago eta indartsuago batek W-Europa beretu ondoan, lehen izaleak leizeetan eta harpe-zuloetan ezkutatu ziren, baina, zeukaten beldurraren gatik, etorri berriei agertzen zitzaizkien noizik behin, eta horrela, Troll, Goblin, Fadet edo Lamiñen baitako sineskeria sortu zuten hauen artean. Euskaldunak jadanik bazeuden ordea, Nafarroako mendietan, Harri Aro Berrian: horregatik Lamiñen etorkiak askoz zaharrago izan behar du. Batzuek diote, beraz, Sarkalde European aspaldi-aspaldian bizi omen ziren Lapon ala Mogol antzeko gizenen arrastoak direla.

Nahi dut... baina ez diet gure lamiña, pollit, adats, horailei, «*Homo mediterraneus*»-en are gutiago, Laponen, antz handirik atzematen; gainera, farregarri zait gizalekoreko izate horiei antropologoek begiz so egitea. Ez! Zer diren ulertzeko giltza ematen digu Kondle Gorriari gertatuak. Harek bakarrik zuen bizidu-

nen Lurreko emakumea ikusten, biek alkar maite zutelako. Jenderik gehienak, ordea, begirik ez du giza-gaindikoak ikusteko, gizakumeen lur honi eutsiegi izaki. Labandibar jaunak dio: «...*Por aquí se ve que el ir en ayunas al monte es exponerse a la aparición del Basajaun o de la Basa-andere...*». Iñakaz mintzo, dela aiher naiz, alta egia da: barurak ere, soma eta soina-rekiko berjakintza sorgortzen dituelarik, gizona *transa* antzeko egoera batean jar dezake, zenbait aldiz. Orduan, beste jakintza gorago batez baliatuz, izadi eta gizagaindiko zerak «ikus» ditzake, barne-begiz; ezen, ene irakasle ohi batek nonbait idazten duen bezala «hainbat erizten diogun Mundu ikuskor eta ukikor - hau ez da egiazki bizi den Munduaren errainua, errainu ahuldu bat baizik» (R. Tocquet, in *Les phénomènes physiques de la Métapsychique*).

Lehen hain ugari izanik, gaur egun ia iñork ez badu lamiñik topatzen, hori ez ahal da Ohiturazaleek (Tradiziozaleek) aipu duten «munduaren gotortzeak», munduaren aurreratzeak, ekarritako ondore bat? Egia da Demokrazia eta Atomoaren Fisika ere ekarri dizkigula.... Oro ezin euki dezakegu.

# HIZKUNTZA BATEN HERIOTZAZ ETA BERPIZKUNDEAZ

Modaren jarraitzaletatik ez bainaiz, ez dut hemen «hebreueraren mirarizko» berpizkundeaz hitz egin nahi, baina askoz, umilago den mintzaira baten berpizkunde askoz isilagoaz; inglesezt Cornwall eta latinez Cornubia deritzaion Ingalaterrako dukerriaren hizkuntzarenaz esan nahi dut, XVIII-garren mendearen azkenetan osoki galdu baitzen.

Hizkuntza horren gorabeherak ulertzeko, gain so bat eman behar zaio Britaina Handiko historiari Kristoren heriotza urtearen inguru, ugarteko biztanle guztiek, Kornubiakoak haietan kondatuz, keltiko hizkelkiak zerabilzkiten, dirudienez. Keltak ez aren noski Britaina Handiko lehendabiziko bizizaleak izan: lehenengoak ez ziren Kristoren aurreneko zortzi edo zazpi-garren mendean baizik etorri, Europako lehorretik. Horiek, ordea, ez ziren hantxe egon, baina hauzoko ugartera, Irlandara igaro ziren, gehienak bederen. Handik hiruzpalau mendetara beste Kelta batzuk etorri ziren, hizkera piska bat bestelakoa zeukatenak

-Galiako Keltena bezelatsukoa-, eta horiek herrian egon ziren bertako jendearen nausi bezala. Denbora aurrera zoala, Kelta nausiok bertako jendearekin nahastu ziren, hauei beren bizi moldea, jaurespidea, bai eta hizkuntza ere emanaz, Briton izenaz ezagutzen den populu bategin bat eratzeraino.

Kristoren osteko 43-garren urtean, berriz, Erromatarrak heldu ziren Britaina Handira, eta laurehun bat urte han egotekoak ziren, Britonen buruzagi bezala. Esan gabe doa hauen keltiko hizkuntzak hitz, andana bat hartu zuela, tarte luze hortan, latin landuagotik. 426-garren urtean, ordea, Erromatarrek joan behar izan zuten, Britonak bertanbera utzita, alde orotarik kaisar-herriari oldartzen zitzaizkion Germaniarren gandik Europako legorra zaintzeko. Hain zuzen ere, Erromatarrek lekuak hustu eta German gizeli batzu, Ipar-itsaso bazterreko Angletar eta Saxonak hasi ziren Britaina Handira sartzen. Erromatar kaisar-herriaren gandik laguntzarik ezin lorturik ere, Britonek bihozto-koiki gogor egin zieten Germanei. Arthur Erregea eta honen «Mahai Biribileko Zaldunak» denen gogotan daude noski: egiantz ororen araura, «errege» hori Kornubiako kelta bat zen, erromatar gudalostean aintzindari izandakoa.

Ugarte sartaldeko gizonak luzaro eroan zituen Germanen kontra, zorioneko gudaldietan. Azkenengotz, ordea, Angletarrak eta Saxonak, bai eta geroxeago erantsi zitzaizkien Danetarrak, ugartearen alderdi guztiz, gehienez, jabetu ziren, Iparralde (Kaledonia eta Eskozia) eta Sartaldeko (Gales Herri) mendiak baizik aske ez utzirik. Mendiota ihes egin zuten ahal zutenek. Beste batzuk, itsasoa igarota, Armorika zeritzaion Galiako eskualdera etorri ziren egotera, orduan etorri berrion gandik Bretaina izena hartu baitzuen. Bitartean Germanak eten gabe sortaldetik sartalderantz aurrera zetozen: horrela Kornubiaren lehen hauzo ziren Somerset eta Devon-go eskualdeak berendu zituzten, ordu hartan Kornubia bezain keltiko zirenak, eta IX-garren mendean Egbert, Wessex-eko erregea, Kornubian bertan sartu zen bere gudariek. Hala ere, hasieran Saxonek beren lege eta agintariak utzi zizkieten Kornubitarrei, baina Athelstan errege handiak (925-940) Kornubiako azken erregea, Howel izeneko, garaitu, eta herriaren gobernu osoa bere eskuetan hartu zuen.

Harrezkero Kornubiako Keltak ez dira behinere nausi izan beren herrian: hau Inglaterrako duke-herri bat bihurtu zen eta hala egon da gaurko eguneraino

-Bretaina Handiko beste bi herri keltikoak, Gales herria eta Eskozia, legearen araura behintzat jaurerri bereziak direlarik oraindik ere-. Kornubitar askok beren askatasuna galdu zuten Saxon buruzagien jopu bihurturik. Beren hizkuntza gorde zuten, ordea, Bretaina Handiko keltararen hizkelki bat dena, Gales Herriko eta Bretainako (Breizheko) hizkuntzen ahaide hurbila. Bretoiari (brezonegari) hurbilago zaio galesari baino; Bretaina Handiaren hego sartaldetik (Kornubia, Devon, Somerset) etorri baitzuen Armorikara ihes egin zuten Keltak (Bretainako probintzietatik bati Cornouaille frantsesez, Kerne brezonegaz eman zioten izena), eta zailtasunik gabe elkar ulertzen zuten Kornubitarrek eta Bretonek, kornubiera mintzatu izan den azkenengo egunetaraino. Jakiña, Saxonen uztarpean zeudelarik, beren nausien hizkuntzatik hitz asko bere-nean sarrerazi zuten Kornubitarrek...

1066-garren urtean, berriz, askotan Nemesis bezala ageri zaigun historiak hala nahirik, nausiok beren txandan jopu bilakatu, ziren, Frantziatik etorritako Normandiarrek Saxonen eskuetatik Bretaina Handia konkistatu zutelarik. Baina Kornubitarrek nausiz aldatu baizik ez zuten egin... Beren lehengo askatasuna, Saxonek kendu zieten, Normandiarren gan-

dik lortu ez bazuten ere, beren hizkuntzaren usantza gorde zuten behintzat; kornubierak ordea, hitzik hanitz jaso zuen ugarteko buruzagi berriek inglesaren ordeztuz hizkera ofizialtzat ezarri zuten normandiar frantsesetik.

1400-1600 arteko garaian kornubierak bere «urrezko adiña» ezagutu zuen, literatura bat nahiko eder eta hedatua sortu baitzuen orduan. Uste izateko da Kornubitarrek, asko zirelarik, jatorrizko literatura bat zuketela beren Gales Herriko lehengusuek bezala: gudu-kanta, epopeia, mitologiako elezar, e. a.; hain zuzen ere, badirudi Arthur Errege eta Mahai Biribileko Zaldunen ipuiñak haien herrian jaio izan direla; bai eta Tristan eta Isolda bi maitaleen kondaira ospetsua, Europatar gizalendu guztien sentimenari hainbat erarson behar ziona, Beroul normandiar idazletik hasi eta Richard Wagner arte. Baina aintziñako literatura hortatik aztarrenik ere ez zaigu, heldu; parterik gehiena ahozkoa zen, eta XV ta XVI-garren mendeetako kornubitar literatura guztia, berriz, erliginozkoa dugu, hobe ki esan, elizazkoa: Lege Zahar eta Berriko kondairak oinarritzat dituzten neurtitzetan egindako drama liturgiko batzuek dituzte eratzen «myraky» edo latinez «ordinalia» zeritzaienak; haietatik *Origo mundi*, *Passio*

*Domini Christi eta Kessurrectio Domini Christi* ezagutzenak baitira. Drama, antzerki horik, «garyva» (jokaleku) izendun zelai batzuetan, kanpoan jokatzeko zituzten. Herri kristau orotan orduan ematen ziren eliz antzerkien antz handia dute, eta atzerriko antzerki horren eragiñetik sortuak ditugu, noski Zuberoako pastoralak, trageriak eta Bretainan Vannes herriko «mister» direlakoak bezala.

Erdi mendeotan kornubiera aski bizi bazen ere –dokusagunaz literatura landu bat sortzeraino–, heriotzera eraman behar zuen gaitzak jorik ageri zaigu hala ere ordudanik. «Arrosen Gudate»-en ondotik, bereziki (1455-1485), heriotze horren zio bat baino gehiago bada; nausienetarik bat, Amerikak idorotzea izan zen: Kornubitar gazteak ugari hasi ziren joaten, itsasgizon bezala, Inglaterrak Mundu Berrian konkistaturiko eskualdeetara, eta handik beren herrira inglesen bizi-moldeak lilluraturik itzultzen ziren, gogoz eta mintzaraz, ingeles bihurturik, ezen 1362-gn urtean Edward III-garrenak berriz ere inglesa ezarri zuen jaurerriko hizkuntza ofizialtzat eta, jakiña, ordutik hona geroago, eta begirune gehiago irabazi behar zuen hizkera honek gizarte-maila guztietan, normandiar frantsesaren kaltetan, baina bai tokiko hizkeltan ere.



Kornubieraren beharpenaren beste zio bat, Erreforma izan zen... Protestantismuak, Liburu Santuak hartara bihurtuz, hizkuntza txipi bati baino gehiagori laguntza ekarri izan badio, ez zen hala gertatu Kornubian, zeren Kornubitarrek ez zitzaizkion jarraitu Henry VIII-garrenari, errege honek Inglaterrako Eliza «eraberritu» nahi izan zuenean. Aitzitik erromatar katoliko egon nahi izan zuten, eta 1549-garren urtean gobernuak Inglaterrako Elizaren «*Book of Common Prayer*» delakoa onartzera behartu nahi izan zituenean, iskilluak hartu zituzten beren sinesmena zaintzeko. Sir Humphrey Arundell buru zutela, eliz berritzaleei erantzuten zitelarik, ingelesez ematen dut, duen indar eta kolorea gatik: «*We will not receyve the new Service because it is but lyke a Christmas game, but we wyll have our olde Service of Mateen, mass, evensong and procession, in Lateen, as it was before. And we the Xornyshe, utterly refuse thys newe Service*». Baina jazarleak garaituak izan ziren, baita garrazki zigortuak ere: Arundell Londonen lepo egin zuten, eta beste batzuk ere urkatu zituzten, hala nota John Payne, Saint Ives itsas-huriko endore, edo alkate ezagutua, berak, erregearen ordezkia aginduz, eraiki behar izan zuen urkabetik...

Aldakutza gaitza jasan zuen Elizaren eraberritze hori zela kausa, ez bakarrik Kornubitarren sinesmenak, baina bai haien hizkuntzak ere; alabaina inglezko elizkizunak onartu behar zituzten nahi eta nahiez, eta garai hartako jendeak elizara asko ibiltzale ziren aldetik, ez zion gutti lagundu neurri horrek «erdera» zabaltzeari Kornubia, guztian. Bestalde, Sir Humphrey Arundell bezalako aitonseme katolikoei, ordurarte herriaren buruzagi izan zirenak eta hizkuntza, herrikoian mintzatzeko zekitenak, Euskaldunen «Ahaide Nagusiak» bezala aginte guztia kendu zien gobernuak, amor ematen ez zuten artean. Gogoaz sendo ez zutenak makurtu egin ziren ingeles erregearen agindura, eta Gales Herriko aitonsemeak bezala, ingeles egin ziren fedez, pentsaeraz, jazkeraz, bizimoldez eta mintzairaz. Baina Gales Herrian, zio askoren gatik -esaterako, erregeak, bere agindupera ekarri ondoren ere, autonomia utzi ziolako- jende xeheak behintzat jatorrizko hizkuntza eta kultura gorde zituen. Kornubian, berriz, gizarte maila goietakoek emandako erakusbideari jarraitu zion osoki, ingeles bihurtu arteraino.

Inglaterrako Elizak ez zuen bere agintea osorik eduki ahal izan Kornubian: XVIII-garren mendearen

erdotsuan John eta Charles Wesley bi anaiek Elizaren bigarren eraberritze bezala sorturiko «methodismus» delako igikundeak -laster sekta berezi bat izatera helduko zenak- erro sakonak hartu zituen herri hortan, Gales Herrian egin zuen legez. Baina Metodistek Galestarren artean bertako hizkuntzan predikatzen bazuten, hala non haieri esker loratze miragarri bat ezagutu zuen orduan Galesak, Kornubian inglesezt, egiten zuten (hemen bertako hizkuntza dagoeneko hil, agiñean zelako noski), eta horrengatik kornubierak deusik ez zuen irabazi bigarren eraberritze hortatik ere.

Jadanik 1328-garren urtean John de Grandisson Exeter-eko apezpikuak idazten zuen «*in extremis Cornubiad*» bakarrik hitzegiten zutela kornubieraz. Hala ere, 1549-garreneko jazarleen erantzupenetik ageri zaigunez, orduko Kornubitarretatik zenbaitek ingletutik ez zekien, eta XVII-garren mendetik ere batidugu lekukotasun batzuk hizkuntza, zaharra oraindik bizi samar zela, herriaren sartalde gurean bederen, darakuskigutenak; bai eta eliz artzain zenbaitek ere predikak hartan egiten zituen. Baina osoki mordoiloturik zegoen orduko kornubiera, eta arrotz hitzez gonburu beterik; erdi-mendeetako «myrakyl»-etan bategintxe-

rik ageri zaigun grafiak ez du gehiago den gutxien batasunik: oldeak ematen dion bezala darabil idazle bakoitzak. Hala ere, gizon eskolatu batzuk aurki ditezke oraindik hizkuntza, zaharraren zale agertu zirenak eta literaturarako erabili nahi izan zutenak, hala, nola Nicholas Boson, 1700-garren urtean *Nebbaz gerriau dro the Carnoack* idatzi zuena («Hitz zenbait Kornubiaren inguruan»), erdi mendeetako hizkera klasikoan honela litzateke: *Nebes geryow a dro dhe Gernewek*; Gwavas eta Tonkin hiztegi bat bildu zutenak... Edward Lhuyd Gales Herriko jakintsuak, garai hartako keltikulari handiena izan zenak, kornubiera ere ikertu zuen beste bost mintzaira keltikuekin batean, eta orduko hizkuntzaren erakusgarri zenbait sarrerazi zuen bere *Archaeologia Britannica* famatuan (1707). Baina Kornubiera azkenetan genuen dagoeneko, eta, uste izateko da XIX-garren mendearen hasierako iñor ez zela gehiago normalki hartan mintzatzen. 1777-garren urtean ehun eta bi urtekin hil zen Dolly edo Dorothy Pentraeth zeritzaion emakume bat izan omen da azkenengo mintzatzailea.

Egia da hizkuntza bat ez dela sekula aztarrenik utzi gabe hiltzen: jatorrizko mintzairaren hitz askotxo gorde zituzten Kornubitarrek beren ingles hizkelkian,

batez ere zenbakiak, otoitz-zatiak... eta birauak. Baina esan diteke 1800-dik mende baten bururaino iñork ez duela Kornubieraz jakiara hitz egin; herriak inglesaz bestelako hizkuntza bat inoiz ere erabili zuela ahazturik zirudien. Hala ere egiantz ororen kontra berpizkunde bat ezagutu behar zuen zoritxarrezko hizkuntza horrek...

Literatur alorrean ere lan egin zuen Caradar-ek: 1936-garren urtean Jondone Markos-en Ebanjelioa itzuli zuen (*An Awayl herwyth Syni Mark*), eta beste itzulpen edo bere kabuzko idazlan askoren artean, kornubiera berpiztuan egiñik izan datekeen libururik ederrena eman zigun, *Trystan hag Ysolt* olerkiaz, egilea hil ondoan haren adiskideek argitarazi baitzuten (1951); Joseph Bédier frantses mediebalistak «*Le Roman de Tristan et Iseult*» oinarritzat harturik, bi maitale ospetsuen ipuina kondatzen digu erdi-mendeetako olerkarien gisara egindako neurtitzetan.

Kornubieraren beste berpizle asko -idazle, olerkari, ikas-liburu egile, e. a.- aipatu behar nituzke oraindik. Bat bakarrik izenda dezadan idazleen artean, Mrs. P. Pollard anderea, 1941-garren urtean *Bemians Alisaryn* izeneko antzerki bat argitara erazi zuena erdi-mendeetako «myrakyl»-en eredura idatzi du bere

antzerkia, bai eta oso trebeki ere, zeren nahiz formaz zaharra izan, gaia txit gaurkoa, oraikoa dugu: Jainkorik izan ere badenik dudatzen duen Alysaryn delakoa-ren bizitza kondatzen baitigu hartan egileak, ez da txundigarri beraz liburu horri ez badiote abegi onegirik egin Kornubia bezalako herri sinestun batean...

Azken urteotan, erdi-mendeetako kornubitar testuak oro publikatzen hasi dira, Morton-Nance delakoa-ren gidaritzapean, grafia eta hizkuntza bategin batean, ikasleen onerako. Hain zuzen ere erdi-mendeetako hizkuntza hori dute erabiltzen Morton-Nance-n eskolako idazleek; gaurko egunean kornubieraz idazten duten guztiek, alegia.

Kornubieraren berpizkundeaz hitz egitean, ezin utz nezake aipatu gaberik «*Gorseth Byrdh Kernow*» edo «Kornubiako Bardoen Batzarrea». Bardoak, daki-kezutenez, Keltia zaharreko olerkari ofizial batzuk ziren, herri-agintarien egiñenak goraipatzea baitzuten ofizioa; noizetik noizera, herri-agintariak galesez «*gor-sedd*» zeritzaien batzarretan batzen zituzten. Oraingo garaian izen horixe eman diete, lehenengotz Gales Herrian (*Gorsedd Beirdd Cymru*), hurrengotz Britainan (*Gorsez Barzhed Breizh*), eta azkenengotz 1928-garren urtean, Kornubian antolaturiko bazkun batzuei;

heien helburua delako herrien hizkuntza, eta kultura-  
ren alde lan egitea baita.

Beste hizkuntz-berpizle handi bat R. Morton-Nance  
dugu, «*Federation of old Cornwall Societies*» izeneko  
elkartasunaren buruzagi dona «*Old Cornwall Socie-  
ties*» horiek arkeiologia eta historiako lagunarte  
batzuk dira, Kornubiako huri gutxiz gehienetan daude-  
nak). Jenner-en esku-liburuan kornubiera ikasirik  
benetako mintzaira-jakituna den aldetik, lan garran-  
tuzkoak argitara eman ditu hizkuntza eta folkloreak  
gainean - «*Old Cornwall*» delako federazioaren aldiz-  
karian: *A Glossary of Celtic Words in Cornish dialect*,  
*Taboo-names in Cornwall*, *Folk-Lore recorded in the  
Cornish language*, e. a. 1938-garren urtean *A Cornish  
English Dictionary* atera zuen, kornubiera zahar (XIII-  
garren mendea baino aurreragoko) eta barandukoa-  
ren (XVI-garren mendea baino gerogoko) hondakin  
urriekin batean, kornubiera artekoaren hitz guztiak,  
hots, erdi-mendeetako «*myrakyl*» edo «Ordinalia»-  
etan, aurkitzen direnak hiztegi portan bildurik, bai eta  
gaurko bizitzari dagozkion hitz-berriak ere emanaz;  
hitz berriok gehienetan bretoin edo gales hizkuntza-  
ren eredura antolatzen dituelarik. 1952-garren urtean  
*An English Cornish Dictionary* argitara erazi zuen, kor-

nubieraz irakurri bakarrik ez, baina idatzi ere gogo dutenen onerako. Alabaina, Jenner-ek erakutsi zuen bidetik ibiliz, hizkuntza bizi bati bezala begiratzen dio Morton-Nance-k kornubierari: mintzatzan badaki eta bere etxekoei ere mintzaerazi die, eta literaturako idazlanak ondu ditu hartan, hala nola *An Balorez* «Belatxikia» Kornubiaren deritzaion antzerki bat, 1932-garren urtean lehenengotz jokaturik izan baita. Hizkuntzaren ikasbide labur bat ere idatzi du, *Cornish for all*.

Morton Nance-ren lankide arienetatik bat Caradar izan zen (1883-1950). Bera Kornu bitarra ez izan arren -Galestarra zen eta A.S.D. Smith zuen egiazko izena-, hizkuntza ezin hobekiago ikasi zuen eta gazte batzuk bildu zituen bere baranoan, Karen erakusbideari esker kornubieraz, normalki hitzegiten hasi zirenak. Bi ikasliburu oso onak egin ditu: *Lessons in spoken Cornish* (1931) eta *Cornish simplified* (1939), eta Morton Nance-ri asko lagundu zion, honek bere hiztegiak atontzen ziharduelarik.

XIX-garren mendearen erditsuan, mintzaira, jakitun eta arkeiologo zenbait hartan egindako idazki zaharrak bilatzen, ikertzen eta argitaratzen hasi ziren. 1859-garren urtean, Dr. Edwin Norris-ek, *Origo mundi*,



*Passio Domini Christi* eta *Ressurrexio, Domini Christi* agerrerazi zituen, ondikotz ez nahiko arduraz eta hutsik gabe horniturik. Handik urte batzuetara, Dr. Whitley Stokes, keltikalari ospetsuak -beste hire «myrakyl» argitara eman zituen, ingles itzulpen eta aparatu kritikoaz: *The Passion Poem*, berriz ere, *The Creation Play* eta *The Life of Saint Meryasek*, Gales Herrian orduantxe idorotako antzerki luze, bat. Bost drama edo antzerki horiek dira gaur egun erdi-mendeetako kornubitar literaturatik ezagutzen dugun guztia; orotara joaz, 18.000 neurtitz, edeiten dituzte. Norris eta Stokes-ez beste, jakintsu batzuek hiztegiak publikatu zituzten: 1865-garren urtean Rev. Robert Williams galestarrak *Lexicon Cornu-Britannicum*, eta 1887-garrenean Dr. F. W P. Jago-k *An English-Cornish Dictionary*.

Baina arkeiologo eta mintzaira jakitun horiek kornubierari ikergai bati bezala so egiten zioten, ez, iñondik ere berpiztu ahal liteken hizkuntza, bizi izandako bati bezala, eta ameslaritzat edukiko zituzten noski Kornubiako jendea ostera hizkuntza hortan mintzatu-ko zela esango zietenak. Kornubitar bat gertatu zen, ordea, bere herritarrak «kernevek» zaharraren berpizkundeari buruz aski ameslari -eta, aski bihoztokoi-

abierazteko: Henry Jenner (1847-1934). Goian aipatu ditudan hizkuntzalarien, lanegiñetan kornubiera ikasi zuen, eta 1903-garren urtean, mende bat baino gehiagotan iñoren ahotan erabili gaberik egon zen mintzairan hitzaldi bat eman zuen Britainako Lesneven-en, Kornubitarren lehengusu diren Bretoinen aurrean. Ondoko urtean *A Handbook of the Cornish Language* deritzaion ikasbide bat agerrerazi zuen eta bere garrari esker, Kornubia herri keltikutzar bezala ezaguturik eta onarturik izan zedin lortu zuen, jadanik Galestarrak eta Bretoinak elkartzen zituen «Celtic Congres» delako batzarrean, Irlaindan «*Cumann na Gaeilge*» edo «*Liga Gaelikoak*», eta geure herrian Euskaltzaleen Biltzarrak bezala. Zoritxarrez, Liga eta Biltzar horiek bezala ere, gohiegitan folklokerietan galitzen dute denbora Gorsedd-etako bardoek, egiazko kulturaren aldeko lanak bertanbehera utzirik... Dena dela, Kornubiako Bardoen Batzarreak on egingo luke bere hor izate hutsaz balitz ere, Kornubitarrei herri keltiko bat direla oroiterazten dielarik, beharra baitzuten. Bardoak bi eratakoak dira: herriaren alde laneginez beren burua ezagutarazi duten, antzezleri, idazle, jakintsu eta abarrak, eta hizkuntza ikasi dutenak; azkenengo horiek behar dute idazlan bat kornubieraz,

ondua aurkeztu, batzarrean onartuak izateko («*Bards by examination*» dira), eta egia esan, jatorrizko Kornubitarren alboan atzerritarrik asko aurki daiteke haien sailean: Bretoin, Galestar, Irlandar, baina bai Ingles, Amerikar... eta Euskaldunak ere. Morton-Nance jauna da garai hontan Kornubiako bardo-nausia. Horrela izan da beraz kornubieraren berpizkundera. Aitortu behar da Kornubiako jende komuna oraindik ez doala inglesa uztera, berpizleen ahalegin bihoztoi guztiak gatik ere. Baina askotxok -ehunka zenbait izango dira- arbasoen mintzaira, ehunurteko batez goiti entzun ez zena, azken urte hauetan ikasi egin dute, eta ikasi gogo ez dutenek ere begi onez so egin ohi diote berpizkunde horri; kornubierazko izenak ematen dizkie jende hainitzek beren etxeei, dendari hainitzek beren salgaiei; era berean, Bardoen Batzarreak antolatzen dituen jai eta ikusgarriei abegi ona egiten die. Noizik behin kornubierazko kantuak entzuten dira irratian, eta kornubierazko prediku eta kantikak elizetan. Hizkuntza ikasi dutenek aldizkari bat (hilabetekaria) kornubiera hutsean egiña badute 1934-garren urteaz geroz, lehenik *Kernow*, Caradarek ateratzen zuena, eta orain *An Lef* («Mintzoa») goian ikertu dudana literatura guztiaz kanpo. Literatura hori, aldiz, nahiz gauza

apal samarra den Gales Herrikoaren aldamenean, bai eta Bretoin, edo Euskaldunaren aldamenean ere, nahiko eder eta zabala da, eta mintzaira jakintzarako daukan garrantziaz bestalde, atzerritarrentzat ere badu erakarmen berezi bat; alabainan, «myrakyl» zaharretako hizkuntza dute berpiztu esan dudanez, eta horrengatik kornubiera berriak halako erdimendeetako usain bat dauka poesiarako oso ederki datorena.

Beharbada berpizkundeak urrats gehiago egingo, du aurrera hurrengo urteotan, Bretaina Handiko gobernuak autonomia zerbait ematen badio dukeherriari, Kornubitar herri-maitale batzuek eskatzen dioten bezala.

# IRLANDARA, HAREN EGOERA ETA EGUNGO ESTATUA

Galdegina egin zait Irlandararen oraingo egoeraz idazlan bat eman dezadan EUZKO GOGOIA-ko orrialdeetan, euskaldun irakurleak jakingarri ditukelakoan hizkuntza horren goiti-beheitikoak, eta Euskararenekin erka edo gonbara ahal ditzan.

Orain duela zenbait denbora, irakurri ahal izan genduen aldizkari hunetan bertan artikulu bat, Andima euskal-idazle jator, jakintsuaren lumatikoa, Israel estatu berriaz eta, batezere, hebraiaren berpizkundez. Ez da handi, delako «berpizkunde» horretan kondu hartzen badute Euskaldunek, bai eta hauek bezala jatorrizko hizkera galtzera doala dakusaten Europa-Sartaldeko beste herri minoritariak: Israeldarren politika, hizkuntza den aldetik, eredu bat izan behar omen zaigu, eta politika hori koroatu duen ondore onak bihotz eman behar omen digu geure herriaren mintzo zaharra salbatu nahiz dihardugunoi, hartarik baitirudi hizkuntzak salba eta senda daitezkeela erien daudenean ere...

Maiz entzun ditut horrelako solasak Euskaldunen ahotik. Hargatik, ez dut uste Hebraiaren problema Euskararenarekin erkagarri denik, ez eta irakasbide handirik eriden dezakegunik Israeldarrek haren alde egin duten bermantzan. Israel eretz eraiki duten Juduak munduko lau hegaletarik jirik ziren, bakoitzak bere mintzaera berezia zedukala, eta elkar uler ahal lezatentzat, erran gabe doa ezin onar zitzaketela mintzaera horiek guztiak hizkuntza ofizialtzat estatu eraiki berriaren buruzagiek, bat hautatu behar zutela baik helburu hortarako, nahi ala ez. Egia da Engelesa edo Alemana edo Arabiera hauta zezaketela, hirur kultur-hizkuntza, handiotarik bat edo beste baitzekiten gehienek. Baina hautatze hori eragozten zuten sentimenduzko zioak konduak eduki nahi ez baditugu ere hain da ageri errex zela, bai errexago ere, Hebraiaren hartzea: judu eskolatuetarik anitzek bazekiten guti edo asko hizkera hori; gainera, Arabez mintzatzailleek ikasi zuten, eta horiek ugari ziren Israelerat egoitera zetozenetan, lehen jileen uhinean ez bada ere, ondo koetan behintzat. Gainera Hebraiara ere kultur hizkuntza bat da, betidanik landua izan denik eta beste kulturen influentzia onuragarriaren eragitetik bazertua egonez denik; estatu baten hizkuntza ofizial izai-

teko behar den «prestige»a bazedukan jadanik, eta apur bat eraberrituz geroz, batez ere haren hiztegia zerbaiska gehitu eta emendatu ondoan, gai zen oraindar bizitzearen beharki guztien expresatzeko. Ez zait beraz iduri Hebraiaren berpizkundera mirakulu bat izan denik, geuk ere bidez iguriki baitezakeku horrelako mirakulu bat gertaturen dela gure mintzairaren onetan. Aitzitik, gauzen naturaren arauko zelakotz da gertatu berpizkunde hori gertakariak oro bezalaxe.

Hebraiararen salbamenaren baldintzak ez ditugu ordea Euskalerrian erideiten, eta gure herriak ihoiz ere libratzen baditu lokarriak erdaldunen uztarritik, horrek ez du erran nahi «ipso facto» Euskara salbaturik datekeenik. Alabainan Euskaldun guztiz gehienek jadanik badute hizkera komun bat: Erdara, hain zuzen ere. Gainera Euskara ez da, eta ihoiz ere ez da izan, kultura hizkuntza bat, non ez bada Prehistoriaren garai lanotsuetan Herriketa edo Jakintza edo Irakaskintzaren erran-beharrak gure herri-hizkuntzan adierazi nahi ukaiteak ezin erranezko zailtasunak eta korapiloak sorreraz litzake. Nor izan daiteke segur euskalpolitikariak eta «intelligentza» zailtasun horiek beren gain hartzera gertu diratekela? Beren oraindanoko jokaeratik epaitu-eta, hori ezin sinets dezaket. Hizkun-

tza bat, aldiz, ezin bizi daiteke luzaro, Herriketa eta Jakintza eta Irakaskintzaren gai guztien adierazteko ere egoki eta on ez bada.

Hebraiararenekin baino askoz zuzenkiago erka edo gonbara ahal dezakegu Euskararen problema Irlandararenekin, bai bi herrien historia politikoaren aldetik, bai bi hizkuntzen barruko historiaren aldetik. Horregatik, gogo onez, entseiaturen naiz euskal irakurleari argimendu zenbaiten ematera mintzaera zahar hunen oraingo egoeraren gainean, eskatu izan zaidan araura. Irlandararen egungo egoera ongi ulertzekotz, eta behar den argien ikustekotz, aldiz, iduritu zait premiatsu zela hitz zenbaiten erraitea haren has-tapenez eta oraindanoko birraldakuntzaz. Irakurleak horrela ez baderitza, edo linguistika izendun sirena alfer, hutsalaren lillurek ei badute zorabiatzen, albei-lietzat barka ene bazter-solas horiek!

Nire artikulu hau irakurri ondoan, baliteke batek edo bestek bere gogoan iragaitea ez daudela Europa-ren Sartaldeko hizkuntza, minoritari gaizo horiek nik diodan bezain gaizki eri, edo, dena dela, bidegabe ditudala Euskararat hedatzen Irlandararen urkustetik atera ditudan jalgipen pesimistak. Hobe hala balitz... Ezaxolek eta funts-gabekoek gogarako dituzten hezur



urretsuez eta amets hutsez, bere burua atzipetu nahi ez duenak, ordea, aitortu behar du hala ez dela. Halarik ere, aitortze horrek ez gaitu bortxatzen Euskararen alde deus egin gabe egoitera, baina soilki gure itxaropen ergel, oinarririk ez, duten anitzen sekulakotz, ohiltzera. Niketz, Ortega y Gasset-ek idatzi duen bezala osoro sinesten dut: «salba biderik hoberena dela begien ongi irikitzea, gauzen argi ikustekotz».

## **1. Keltararik Irlandararat**

Germanak indarka han sartu baino lehen Irlandan mitzaten zen hizkuntza, orain artean biarik egon dena, Irlandara da. Lehenik Norvegarrak etorri ziren, VIII-garren mendearen azken urteetan, eta gero IX-garren mendearen erditsuan Danesak agertu ziren izaro berdeko itsas-hegietan. Hatsarrena Ipartarrok herria xehakatu zuten, eta azkenekotz, eskualde zenbaitez jabetu ziren, German errege herriak eraikitzen zituztelarik heietan: besteen artean, Limerick eta Dublingo aurkintzetan, hedatuenak baizik ez aipatzekotz.

German horien kulturaren influentza, gehienetan uste den eta Irlandarrek berek aitortzen duten baino askoz zabalago eta sakonago izan bide zen: lehen

Latinez Hibernia edo Scottia, eta bertako mintzairaz Erin deitzen zen herri horri, haiek zioten orain emaiten zaion izena ipini: Irlanda Oreen herria dela). Halaz ere, azkenean Ipartarren nagusigoa amaitu zen, Thomond eta Leth Moga-ko irlandar errege Brian Boru-k Don-tarf-en garaitu baitzituen, Dublingo eskualdean (1014). Eta heien nagusigo politikoarekin batera itzali ziren mintzatzen zituzten ipar-germanarazko hizkelkiak; handik laster, Dane eta Norvegar inbasoreen ondorengoak gurutzatu eta nahastekatu baitziren Irlandar jatorrekin. Nabari da German hizkelkiok ez zirela itzali Irlandararen hiztegian eta fonetikan herexa zenbait utzi gabe, baina hartatik hizkuntza hau herri guztian nagusi egon zen ordu hartako.

Denbora gutirik barne, ondikotz, anitzez galgarriago izan behar zen etsai bat oldartu zitzaion: 1169-garren urtean Engelandatik etorri Normanek Irlandan lur-hartu zuten. Eta geroztik Engelandarrak dira izan han jaun eta jabe, geroago eta jaun indartsuago, geroago eta eremu gehiagoren jabe. Nahas-enda bat ziren Engelandarrok: handikiak Norman ziren etorkiz, eta norman-frantsesa zuten hizkera; gehienak, aldiz, engel-saxoinak ziren, german mintzazaile, hots, engelsez. Bi hizkuntza handi horiek baditugu beraz orain

Irlandararen alboan, Irlandararekin lehian. Herriaren hegoaldean, batez ere, ugari ziren atezerritarak: Munster eta Leinster-en, eta Munsterko irlandar hizkelkiak, egungo egunean ere, frantsesaren influentzia erakusten omen du bere mintzaeran (ikus Thomas F. O'Rahilly-ren *Irish Dialects Past and Present*). Leinsterkoaz deus ezin erran dezakegu segurrik, Irlandara ez baita gehiago mintzatzen eskualde hortan.

Gero frantsesak eremu galdu bazuen ere XIV-garren mendetik landa Engelandar guztiek Engelesa hartu baitzuten hizkuntza komuntzat, gune zenbaite-tan baziren oraindik XIV-garren ehunurtekoan Frantsesez mintzatzen zirenak. Hanbatez indartsuago egon da Engelesa Irlandan, bera baitzen orain garaitzaileen mintzaira bakarra, eta Irlandara garaituen mintzaira izaiki, ez da zail igartzea zein izanen zen azkenekotz, bastearen buruzagi. Hargatik, hatsarrear bazirudien Irlandako Engelandarrekin gertatzera zoala Heladaz jabetu ziren Erromatarrekin bezala, eta izaro garaitua bere garaitzaileak meneratzekotan zela: ezen garaitzaileok irlandaraz hitzegiten hasi ziren -bortxaz, beren menpekoek ulert ahal zitzaten, bai eta irlandar neskak hartzen baitzituzten emaztetzat-, eta, areago dena, Irlandarren bizimoldearen araura

bizitzen; hala non azkenean London-go Gobernuak, Irlandan egoitez zeuden Engelandarrak bai hizkuntzaz, bai ohituraz, bai sentimenduz osoro bertakoturik, garaipenaren frutuak galtzera zoazela baizekusan, neurri latzak hartu behar ukan zituen heien joera horren kontra, batez ere Irlandararen ikastea Engelandarrei debekatuz.

Neurri horien gatik eta guztiz ere Irlandara buruzagi egonen zatekeen izaro edo uhartean -egoile guztiek baitzekiten eta baitzerabilten, nahiz anitz bi hizkuntzatako ziren-, Engelandarren politika bortitzago eta basakiago egin ez bazen, erlisioneko guduketa zela karia. Alabainan Engelanda protestante bihurtuzen, Irlanda katoliko egoiten zelarik. Horrengatik hertsura handiak jasan behar ukan zituzten Irlandar jatorrizkoek eta halaber Engel-Norman bertakotuek beren hauzoen gandik. Erran gabe doa Irlandarak ezer ez zuela irabazi erlisioneko joku hortan, ezen orain Engelandarrak hasi ziren Irlandarrak egiaz gorrotatzen, beste sineste bateko zirelaketz, -beti gertatu ohi den bezala- eta halaber Irlandarren berezgarriak oro higuindu zituzten: jaunzkera, ohiturak eta, ooren gaitetik, hizkera.

Hizkuntzaren itzal eraztera entseiatu ziren, beren helmenean zituzten ahal guztiez. Cromwell protestante buru-beroa izan zen batez ere kaltegarri eretze hortan. Harek zituen «plantation» delako jende-aldaketak asmatu eta obratu: Irlandarrak horrela beren sorlekuetarik ohildu zituen, eta ordean Engelandarrak edo Eskoziarrak ezarri; horrela hustu zuen bertako jendez uharteko Iparsortaldeko eskualdea, Irlandako mito zaharretan beti lehen zen Uladh. (Ulster) ospetua. Geroztik, Irlandarak ezin irabazi du atzera orduan galdu zuen eremua: aitzitik, geroago eta ahulago, izan da, geroago eta atzerago, joan da, bizirik egona gatik egungo, egunetara arteo.

Irlandara keltar hizkuntza, bat da, beraz indoeuropar deritzaion hizkuntza, kente handiko kide. Erran nahi du haren ahaide direla, guztiok ama bakar bate-tik sortuak omen direlaketz, Asian eta European mintzaten edo mintzatu diren hizkuntza hauek: Aryara, hau da Sanskrita eta Zenda, Armeniara, Helladara, Baltara eta Slaviara, Germanara, Italiara, bai eta harri-dazkietan baizik ezagutzen ez ditugun Asia Ttipiko Hetitara eta Turkestango Tokariara, ongi samar eza-gutzen ditugunak aipatzeko soilki. Nahiz hizkuntza horiek oro ahide diren, badirudi zenbaiten elkarrekiko

ahaikoa hertsia, dela besteenaikoa baino. Erraite-  
rako, Germanararen hiztegiar eta morfologiari so egi-  
nez, Italiararen eta Keltararen antz gehiago duela  
beste indoeuropar mintzairerik baino oharitzen gara.  
Erran liteke hiru hizkuntzok indoeuropar berezi batetik  
datozela edo eta elkarren ondoan bizi zirela lehen  
mintzatzen zituzten endak.

Irlandarrak bere hizkuntza «Gaedhilge» deitzen  
du, eta bere burua «Gaedheal». Bi hitz horien antze  
zaharrak «Goidelg» eta «Goidel» ziren. Keltar hizkun-  
tzak bi sailetan banatu ohi dira, hostagi eta doinuaren  
berezkuntza batzuegatik. Horietan nabariena, sail  
batekoek aho-sapaiko (velar) soinua duten hitz  
batzuetan beste sailekoek ezpaineiko (labial) bat bai-  
tute. Etsenplutzat: irl. mac... bretoinez, korniaraz, eta  
galesez «mab» (seme); irl. «ceann» (c = k)... galesez  
eta korniaraz «pen», bretoinez «Penn» (buru), e. a.

Goidelak ziren lehenak Sartalderantz abiatu, Kris-  
to aitzineko IX-garren ehunurtekoan. Zer bide hartu  
zuten? Ponderu hortaz den bezenbatean, arkeologoak  
ez dira aburu bateko. Batzuek diote lehenik Iparralde-  
rantz igan zirela, Alemaniako ipar-sartalderat, eta  
hango itsas-bazterretik Hiberniarat joan, ipar-itsaso-  
aren gainetik, Germanen hauzo egon ondoren; egia da,

gorago aipatu dudan Italiararekin dadukan ahaikoaz gainera, Keltararen influentza handia erakusten duela Germanararen hiztegiak, hala non ustekizun da Keltak noizbait Germanen nagusi politiko izan direla, edo behintzat hauek eredutzat hartzen zituztela, gizalanduago zirelako edo. Beste ikertzaile batzuek, aldiz, lehenik Galliaren hego-sartalderat aldegin zutela Goidelak nahi dute, eta handik zutela itsasoa hartu Irlandarako. Segur bada Keltiberian ere egon direla, hala da Hispaniatik zirela izaro hartarantz abiatu, Bizkaiko itsasoaren gaindi.

Nondik etorri ere ziren, Kristo aitzineko VIII edo VIIgarren mendean Irlandan agertu ziren Godidelak. Hauek jin baino lehen egoileak baziren hargatik uhar-te edo izaroan, eta iduri guztien araura, guztiak ez ziren Indoeuroparrak. Egia dateke Goidelak ez direla izan Sartalderat etorri ziren lehen Indoeuroparrak, eta beste populu bat familia hortakoa zenik aitzinean joan zarela; deus guti dakigu populu hortaz, ordea, badirudi Gallian eta Italian zeuden Ligurak, bai eta Hispaniako Ambrones zirelakoak hartarik zirela, eta haien herexarik Hibernian eta Britanian ere ba omen da. Urna-alorrean kulturaren ekarleak aren Indoeuropar horik; Julius Pokorny irakasle jaunak «Illyriar» deitura

eskaini du, haien izendatzekotz, haien hizkuntzak Balkanetako Illyriararen antz handia erakusten baitu haren ondakin eskasetarik epait dezakegunez bere- ren, eta badirudi Baltararekin ere ahaidego berezi bat zedukala. Aitzin Keltak bezala eman ditzakegu Illyriar horiek. (Haien presentziaz Hispanian, irakur Tovar-en istudioak: *Sobre la fijación de las invasiones indoeuropeas en España*, «Boletín del Seminario de Estudios de Arte 5, Arqueología»; *Über das Keltiberische und die anderen alien Sprachen Spaniens*, in «Eranos XLV»; *Preindoeuropeans, Pre-Celts and Celts in the Hispanie Peninsula.*, in «Journal of Celtic Studies, F»; eta beste asko. Irakur halaber R. Menendez Pidalen *Sobre el substrato mediterraneo occidental*, in «Toponimia Prerrománica Hispana», Biblioteca románica hispánica.) Zenbaiten iritziz Euskalerritik ziren lehen Indoeuroparrak Espainian sartu, eta haien hizkuntzari zor omen dio euskarak «mando» hitza, Tovar-ek uste duenez.

Dena dela, Illyriar delako horiek ez ziren Kristo aitzineko milurtekoa baino lehen Europa Sartaldean agertu. Arkeiologiak erakusten digu, ordea, orduko bazela aspaldi Irlanda populaturik zegoela. Zer ziren Indoeuropar ezin diratekeen lehen egoile horiek? Zail



baino zailago da horren jakitea, haien hizkuntza, -edo hizkuntzak, enda askotako izan ahal baitira- eta beste enda-berezgarriak itzali baitira haiekin batera. Zorionez, ez dira itzali beren ondokoen hizkuntzan eta ohi-turetan hatzik batere utzi gabe: hatz horien aztertzea dugu haien gain zerbait jakiteko biderik hoberena. Hortatik ageri da Irlandararen eta irlandar folkloreaken premia, haietarik ikas baitezakegu xehetasun gehiago Europako populu zaharrenei buruz.

Indoeuroparrak heldu baino lehen Europaren sartaldean mintzatzeko ziren hizkuntzetarik, berriz, batek baizik ez du egungo egunetara irauten: Euskarak. Ez da handi beraz Euskararen hatzen bila ibili badira jakintzariak; Irlandararen ez-indoeuropar substratum hortan, hain zuzen ere, hitz asko eriden daitezke bi hizkuntzek komun dituztenak. Baina kontuz ari behar da bilaketa hortan, ezen hitz bat aurki daiteke Euskaraz eta Irlandaraz bera dena, horrek ez baituke erran nahi Europako lehen egoile indoeuropar ez zirenen hizkuntzarik datorrenik, baina aitzitik Euskaldunek zutela delako hitza Kelten eta Aitzin-Kelten ganik jaso.

Horrengatik, lehen saileko hizkuntzek *k. keltara* edo *Goidelera* eratzeko dute. Irlandara eta Irlandaratik etorri diren hizkuntzak baizik ez baitaude sail hortan:

bigarrenekoek, aldiz, *p-keltara* edo *Britaniara*, lehen Britania deitzen zen uhartean bizi baitira, edo hartarik jin baitira orain mintzatzen dituzten Keltak (Bretoinak V-garren mendean hasi ziren Britani a Handitik batez ere Cornwall, Kernow eta Devon-etik Armorica zeritzaien Galliako eskualderat aldegiten, Germanen aitzinean ihes). Egiantz, ororen araura, *p-keltarazko* ziren Gallian mintzatzen ziren Keltar hizkelki guztiz gehienak, Caesar-en garaian bederen. Badirudi Hispaniako Keltiberak, aldiz, *k-keltak* zirela, Antonio Tovar jaunak nahi duen bezala (ikus haren *Las inscripciones ibéricas y la lengua de los celtíberos*, in «Boletín de la Real Academia Española», XXV).

Erran gabe doa Keltak ez direla orain edo kristau aroaren hatsarreko inguruko mendeetan dakuski gun eskualdeetan beti izan, hots, Irlandan, Britaina Handian, Frantzian eta Espainian, ez baitago Indoeuroparrik Europa Sartaldean Kristo aitzineko milurtekoa baino goizikago, edo hor inguru. Nonbaitik etorri ziren. Nondik ote? Arkeiologo gehienek onartzen dute Kelten sehaska Alemaniaren hegoaldean izan zela. Flor bizi izan dira sartalderantz abiatu baino lehen, Italiarrak zituztelarik hauzo. Uste izaiteko da Goidelen arbasoak Latinen ondoan zeudela; Britaniarrenak, aldiz, Osko

eta Ombriarren aldamenean, ezen Latinek ere ahaspaitz hots bat mingatzen dute azken izendatu bi populuen hizkuntzetan ezpain-hots bat duten hitzetan. Adibidez: lat. «quis» eta irl. «ce» (e = k); baina osk. «pis», gal. «pwy», bre. «piv» (v - w), kor. «pyu» (nor).

Alabainan gogoan eduki behar dugu Kelten edo, behintzat indoeuropar jende batzuen hauzoan bizi zirela Vascones izenez Aitzinateko autoreek ezagutu dituzten euskaldun zaharrak. Areago dena, ustekizun da egungo, Euskalerriko zati batzu Keltez edo Aitzin-Keltez populaturik zeudela Kristoren sortzaroaren inguruko mendeetan. Sortalderago aurkitzen baitziren orduan Vascones horiek hots, Nafarroako eta Aragoiko mendietan. Horrela, euskaldun zaharrek hitz andana bat hartu ahal izan dute beren hauzoen ganik, eta, gainera, hauzo horiek berek aberastu ahal izan dute euskal-hiztegia beren aitzineko hizkuntzako hitz batzu begiratz euskaldundu izan diren orduan. Halaz ere, hitz zenbait erideiten dira Euskarak eta Irlandarak komun dituztenak, bai eta beste keltar hizkuntzek ere; hauk ere ez-indoeuropar hizkuntza batzuen jarraikitzaile baitira orain mintzatzen diren herrietan. Irlandarazko lehen textuek zaharrantz gehiago erakusten dute, ordea, Britaniarazko idazki zaharrenek baino,

eta horrengatik onuragarriago da beti horren jakilego-aren bilatzea ezen ez haienaren, substratum-hauzi hortaz den bezanbatean eta indoeuropar ez direnak. Ezagutuena baizik ez aipatzekotz, «andera» hitzak «biga» edo «emazte gazte» erran nahi zuen lehenago; Euskarak (andere, andre) eta Irlandarak (aindear, ain-dir, ainnir) bigarren zentzua begiratu edo gorde dute bakarrik; Galesak (anner), Kornubiarrak (id.) eta Bretoinak (onner, ounner; Vannes-ko hizkelkian annoer, anner), aldiz, lehena. (Ritz horren problemaz, ikus Karl Bouda eta J. Pokorny bi linguisten eztabaida `Eusko Jakintza»-n, V-gn; halaber azken hunen artikulua *Zur Herkunft von gall anderos Feuerbock*, in «Zeitschrift für romanische Philologie», 1952 8, 5-6).

Horrelako hitz bat erideiten denean, ez du baitezpada Keltarak Euskarari zor dionik erran nahi; badaitke bi hizkuntzek hirugarren baten ganik jaso izatea. Hain zuzen, Pokorny jaunak uste du «andera» hori kamitaratik datorrela (ndr: susara izan). Schuchardtek uste zuen, baiki, Euskara Kamitararen abar bat zela, baina geroztiko ikerkuntzek ustekizun hori erausi dute, dirudienez; halazere, Euskaldunek hartu ahal izan dute hitz hori Kamitaratik eta gero Keltei eman. Edo Keltek dute lehenik jaso eta gero Euskaldunei

helerazi. Edo bi populuek bide berezietarik Kamiten ganik hartu dute.

Zein gunetan Euskaldunak edo Keltak edo biak Kamiten hauzo izan dira? Espainian? Egia da Afrikatik jin bide zirela Ibera... Alta Gallian ere aurkitzen dugu «andera» biga eta emazte-izen, bai eta «anderos», zezen; azken forma horrek eman baitu «landier» oraingo frantses hitz suburdin, berriz ere Euskararat itzuli dena («lander»-ak Zuberoan). Behar bada euskal hitz jator bat da azkenaz beste... Edo osoro itzali den, baina lehenago Europa Sartaldeko eremu, hedatu batean mintzatzen zen hizkuntza baten azken oihartzuna. Ikusten den bezala nekez aitzinatzen da, substratum inguruko ikerkuntza horietan hipotesis anda bat egin baitaitezke beti edozein galderari ihardetsi beharrean. Baina hobe dugu problema bat nonbait badela jakitea, askatzeko heinean ez bagaude ere, ezen-ez «zorioneko» jakingabean egoitea, gizalantzaren bideetarik ibili nahi badugu, bederen...

Ez bakarrik hiztegian, Irlandararen hitz-joskeran eta morfologian ere nabarmenak utzi ditu Indoeuroparren aitzineko hizkuntzak. Erraiterako, Irlandara zahararren berezgarri nagusienetarik bat da adizkeraren barruan izenorde edo pronombre adizkizun baten infi-

xatzea (pronombre infixatu hau gehienetan akusatibuan izan arren, zenbait aldiz datibuan da). Etsenplutzat, huna «adei» (dakusa) aditzaren paradigma orainaldian.:

atom-chi = ikusten nau.

atot-chi = ikusten hau

at-ci = ikusten du (gizon bat)

ata-ci = ikusten du (emazte bat)

at-chi = ikusten du (gauza bat)

aton-ci = ikusten gaitu

atob-ci = ikusten zaituzte

ata-ci = ikusten ditu

Nahiz forma horien elementuak indoeuropar diren (ate-me-cit, ate-tu-cit- ate-,-eis-cit, ete...), ez dirudi hala denik heien erabiltzeko gisa. Euskarak ere, ordea, pronombreak infixatu ohi ditu eta, «dakusa» aditzak orain forma sintetiko guti baditu, zilegi da ohartzea lehenago «nakusa» «hakusa» e. a. erran izan dela; egun ere, «nakar», «hakar» e. a. erran ohi baitugu. Hor dugu beraz beste berdintasun bat bi hizkuntzen artean, eta linguistek berdintasun hortarik ere jalgipenak atera dituzte heien elkarrekilakoa probatu nahiz. Gaineratu behar dut egungo Irlandarak ez dazagula gehiago pronombreak infixatzeko jarraidura;

«atom-chi'ren ordez erraiten da orain: (do) chionn sé mé (Connaughten, eta Munsteren); ti sé mé (Ulsteren), engeleraz bezala (he sees me) eta beharbada hunen eragitez.

Nabari da ez lezakeela guti profeita euskal jakintzak, menturazko ahaidetasun hori zehazkiago ikert eta nolakoa eta nondikoa den bila baleza norbaitek. Alabainan guti, dakigu segurki gure herriaren historia zaharraz, gure lehen arbasoen tradizioea galtzera utzi dugulakotz. Baina izan liteke argi gehixeago bil genezakeela haien gainean Kelten hizkuntzak eta ohi-turak direla bide, batez ere Goidelen idazkuntza kontuan edukiz, begiratu baitu uhartean elkarrondozkatu diren populu prehistorikoen oroitzapena. Arkeiolo-ek, aldiz, Kelten, eta Euskaldunen hizkuntzaren eta Folklorearen aztertzea dute bide segurrenetarik bat Europako lehen, egoileetaz zerbait ikastekotz.

Ahaidetasun problematika utzi baino lehen, huna zer zioztan hartaz Pokorny jaunak bere eskutitz batean. Jakintsu horren araura, Irlandan enda horiek elkarren ondozka bizi izan dira:

I. Europa Sartaldeko paleolitikarien ondokoak, 10.000 urte k.b.l. helduak; haien hizkuntzak Eskimoe-naren eite bazukeen.

II. Mediterranetar enda labur bat, Ipar Afrikatik jina, 3.000 urte k.b.l., Espainian gaindi. Hizkuntza den aldetik Berberen ahaide ziren, hots, Kamitak ziren.

III. Mediterranetar handiak; hauek ere Ipar-Afrika-tik etorriak, Megalitoen kulturaren ekarleak izan ziren, eta haien hizkuntza ere berberaren ahaide zen.

IV. Ezkilantzeko oporren kulturaren ekarleak; bra-kizefal dinarikoak ziren, kaukastar hizkuntza, bat min-tzatzen zutenak.

V. Azkenekotz, Goidelak; ez ziren Kristo aitzinako VIII edo VII-garren ehunurtekoa baino goizikago heldu Irlandarat.

Pokornyk uste duenez, II, III eta IV horiek dute eus-kal-enda moldatzen: haiei zor zaizkie hizkuntzen arte-ko korrespondentzak.

Goidelen ondotik beste inbasorerik, ere sartu da Irlandan, Germanak etorri baino aitzinago; inbasore berant horietarik zenbait p-keltak zirela dirudi, hala nola «Tir Bolg» (hitzez, hitz: gizon zakudunak; baina beharbada Belgak ziren, izena bestenez interpretatu-rik) eta «Galiain» (Galliarrak?) zeritzatenak. Badakigu Galesak ere izan direla Irlandan, Goidelak Kanbrian sartu diren bezala, behin baino gehiagotan Kristau



aroaren hatsarretik hunat, lur-eremu hedatuak beren eskuperatzen zituztelarik herri hartan.

Baina, emeki-emeki, Goidelaraz besteko hizkuntzak oro itzali dira Irlandan. Alabainan Goidelen azpiko zeuden mintzatzen zituzten gizeliak, nahiz ez-Indo-europarrak nahiz Britaniarrak. Horrengatik arbuiaturik eta landu gaberik egon dira delako hizkuntzak, eta Irlandar goreneko kastak, Goidelarak, aisa garaitu ahal izan ditu, hala nun hunen hiztegian eta morfologian utzi dituzten hatz xuhurrak bilatuz baizik ez baitzakete haien berri jakin hizkuntzariek. Hala ere, Goidelarazko idazkuntzak haien oroitzapena begiratu zuen, «*teanga iarann*», hau da, burdin hizkuntzaren aipu baitakar Goidela jin-aitzin izaroan mintzatzen zenaren. Halaber Irlandan elkarrondozkatu diren populuen izenak emaiten dizkigu. «*Lebor Gabala*», hau da, inbasioreen liburuak, zenbagarren urtean etorri ziren zehazki erranez ere (xehetasun emaitera ez ziren herabe Goidel idazle zaharrak... ): lehenik jin zen Partholon-en populua, Greziatik, Kristo aitzineko 2.640. garren urtean; handik hogeitahamar urteetara Nemedien semeak, Skitiatik; hartarik lan da Fomóré itsas-lapur bihurriak; 2.390 urtek.b.l. Fir Bolg-ak etorri ziren; hogeitahamasei urte horien ondoan Tuatha

Dé Danann edo Dana Jainkosaren Gizeliak, Greziatik; azkenekotz, Mile-ren semeak (hauek ziren Goidelak), Egipton eta Hispania gaindi Skitiatik zetozenak. Erran gabe doa ez direla hitzez hitz hartu behar eman horiek oro. Kronologia hori, batez ere, olde huts baizik ez da: egia baldin bada Fir Bolgak Belgikatik zetozela, ezin etorri dira Mileren semeak, hots, Goidelak baino lehen Irlandarat.

Ageri da tradizio hori eliz-gizon edo mitologia klasikoaren ezagutza zedukaten letradun batzuek antolatu dutela. Dena dela, jakingarri dela ezin uka; erakusten baitigu Goidelak berek aitortzen zutela ez zirela herriko lehen egoile edo bizizaleak, baina beste askoren ondotik jin zirela. Nola jabetu ziren, bada, bain osoro Izaro Berdeaz, haien hizkuntza eta deitura Irlandar guztiek berentzat hartzeraino? Beste endak baino ugariago, ala besteak baino gudukari hobeago izan direlakotz? Zer nahi den, azkenean azpiko gizeliak oro beren gizartean onartu zituzten Goidelak, berezkuntzarik batere endaz den bezanbatean ordu-danik egin gabe; azpiko gizeliok, aldiz, beren jatorrizko hizkuntzak utzi egin zituzten, eta Goidelara hartu zuten mintzara bakartzat, hala non Germanek, izaro-

an sartu zirenean, populu bategin bat aurkitu baitzuten haien oldarrari ihardokitera deliberatua:

## **2. Goratzapen eta erortzapen**

Ikusi dugu Irlandako bizitzaile guztiak, Indoeuropar etorkiko izaki ala ez, goidel izaturik zirela Germanen lehen inbasionen garaian (VII eta IX-garren mendeetan), eta populu bategin bat moldatzen zutela hizkuntzaz, den bezenbatena: Irlandara zen orduan Irlandarren mintzaera komuna. Gehiago dena, herriko mintzaera nazionala zen egiaz; erran nahi baitu, ez bakarrik gizartemil guztiek zerabilzela egun orozko beharri bakunen adierazteko, baina Estatuak, Jakintzak, Irakaskintzak, hots, gizalantzaren sail orok hura zuela usatzen. Bestelako ageri zaizkigu ikusgune hortatik gainerateko Sartaldetar herrialde guztiak; horiek, nazione bihurtu diren egunetik, Latina hartu edo, zehazkiago erran, begiratu dute gizalantzaren kontzeptu gorenaren espresatzeko, jakintsuek eta eskolatuak herriko hizkuntza gutietsirik; jende arruntaren usantzarako zegoelarik soilki berari ere «hizkuntza arrunta» edo «populu hizkuntza» arbuiozko deitura zatxikola. Adibidez, denek dakite besterik ez duela erran nahi «deutsch» izenak: Alemaniako eliz-gizon

latindunek izen hori asmatu zuten beren herritar eskolatu gabeen mintzaerari erraitekotz («teotisca lingua» = teuta, h.d., populuaren hizkuntza).

Irlandako jakintsuak eta eskoladunak halaber ari izan ez badira, ez ote da Uharte Berdea Erromak bere-tu ez zituen Europako lurralde urrietarik bat delakotz? Ez deritzait horrela, ezen ez da ahaztu behar Irlandar-rak politikaren aldetik beren gain egon baziren ere, asko goizik Latinen kultura eta hizkuntza ezagutu zituztela Kristauen propagandari esker 451-garren urtean zuen Celestinus aita sailduak Palladius misio-nera hiberniarat igorri, eta hartarik landa laster Patri-cius ospetsuak harrigarriko obra egin zuen erlisione berriaren hedatzeari buruz, hala non erran baidaiteke Irlandarrik guztiz gehienak kristau zirela 500 urte inguruan.

Uste izaiteko da Latin kultura ezagutu baino lehen Irlandarrik ez zeudela izpiritu eta entelegu laneginik batere gabe, ezen Keltak ez ziren basati batzu; aitzit-ik, metafisika oso landua irakasten zuten aho-mihiz, oihan sakonetako zuhaitz sailduen gerizan, beren sazerdote druida zeritzaienek, Aitzinateko autoreen idazkietarik dakigun bezala lur handiko Keltez den bezenbatean. Druidak izaroetan ere baziren, Britanian

eta Hibernian, eta haiei esker Goidelek beren oguzko kultura bat zedukaten; gainera, enda guduzale baten-tzat egoki den araura, epopeia eta kantu heroiko andana bat belaunetik belaunera heleraziak ezagu-tzen bide zituzten. Egia da hargatik mundu klasikoa-ren ukitzeak duela egiazko kulturaren hazia erein Irlandan. Oroz lehen Latinen ganik Goidelek idaztea ikasi zuten, egungo hizkuntzaren hiztegiak oraino era-kusten duen bezala: «scriobhaim» = Scribo; «Leig-him» = lego; eta beste hitzik anitz, idazteari dagokio-nez, latinetik datoz.

Zer nahi den, beren burua Erromaren influentzari emana gatik, eta Latinen ganik ikasi bazuten ere zer den kultura, beren hizkuntzan dute Irlandarrek kultu-ra hori mintzerazi nahi ukan, Europako erresuma erran delako «argituek» asko berantago segitu behar zuten bide bat horrela erakusten zutelarik. Etsenplu-tzat, XVI-garren mendean baizik ez du Frantzisko I-ak batez ere Villers-Cotterets-ko manamenduaz 1529-an Frantsesa ezarri Frantziako estatu hizkuntzatzat; eta ez ditzagula aipa nazione ttipiak, Euskalerrria eta Bre-taina bezala, beren hauzo etsaien mintzaeraren onar-tzekotz baizik Latinaren usantza utzi ez dutenak...

Hala ere, Irlandara kultura bide izan da Irlandarrentzat; horrek ez du erran nahi den ttipien aiherkunderik bazutenik Latin handiaren eretzean. Aitzitik, eskoladun guztiek bazekiten eta bazerabilten herriko hizkuntzarekin batera, eta Irlandan izpirituaren biziabi hizkuntzetan espresatzen zela erraitea zuzen litza-ke. Bai eta aski paradoxoki, Irlandarrei zor zaie Latinaren irautea Europan: Gallia, Italia, Hispania, Britania, hots, Europaren sartalde guztia Germanen menperat erortzen zelarik eta entelegu biei-oro denbora baten-tzat itzaltzen zelarik herrialde horietarik, Irlanda, bere egonguneari esker bazter zegoen Barbaruen inbasio-neetarik, eta haren elizgizon eta beste letradunak aitzina joan ahal izan ziren Cicero-ren hizkuntza atxi-kiz, Cu Chulainn-enarekin batera... Eta German nagusi berriok beren autoritatea segurki sendoturik, berek ere kulturaren atseginak ezagutu nahi ukan zituzte-nean, Irlandarrak behar izan zituzten deitu Latinaren jakitea lur-handiko ikastetxetan berpiztekotz. Irakasle parte hau begiratu zuten Inlandarrek Goidel misionesten zabalkundeari esker, German guzuak Kristau erli-sionerat eta, denbora berean, hunen lagun zetorkien grekolatinen zibilizacionerat Goidel izaro handian bil arteo; Goidel hauek baitzuten gainera kulturaren zain-

tzeko eta hedatzeko ardura beren gain hartu Europa, Afrika eta Asiako basatien aitzinean.

Beste pondu batean ere Irlanda berezten da gainerateko Europar nazioneetarik: erlisione berriaren sartzek ez du hemen herriko, tradizioea itzalerazi; kristau fraideek ez dituzte arbasoen ganikako ohitzak eta sinespenak satsu bezala eduki paganismuaren kutsua zekartelakoan, aitzitik piadoski atxiki nahi ukan dituzte beren idazlanetan; zor ezinago handian baigaitzaizkie horrengatik, Europako populu zaharren gainean argimendu jakingarririk anitz eman digutelarik haien gogo zabaldua dela zio.

Goidelen tradizioearen aldeko Elizaren onginahi bakana, kristau legea izaroan nola sartu zen kontuan hartzen badugu entelega daiteke. Garai hartan Irlandarrak errege batzuen pean zeuden: bazen «ard-ri», hots, «igoierrege» zeritzaion bat Tara hiriburuan; errege bat eskualde bakoitzaren buru; bai eta errege tti-piangoak («tuath») edo gizeli bakoitzaren gainean. Hargatik, erregeok ez ziren autokrata batzu; haien ahala mugaturik atxikitzen zuten gizarteko *hiru erronka* jatorrek zeduzkaten eskubide bereziek; erronka horiek, sazerdoteena (druida), gudariena eta ofizialeena baitziren.

Druidak, batez ere, boteretsu ziren: haiek zedukaten ahalmen izpiritual guztia, erregeak ahalmen tenporalaren zati baten jabe baizik ez zirelarik, eta, erlisionearen araura, druiden peko zeuden; edozer deliberamendutan hauen aholkua hartu behar zuten. Erran gabe doa erregeek nekez jasaiten zutela teokrazia hori... Kristau misionestak ongi etorriak izan ziren beraz haientzat, eta errextasun handiak eman zizkieten druiden kaltetan eta ondorioz buruzagi tenporalen onetan beren propaganda aitzina eman ahal lezaten. Bai eta poeten onetan ere. Ezen baziren sazerdoteen erronkan, egiazko druidak baino mail beherago, «file» edo poetak. Patricius zuhurak, druidak apaltzeagatik, fileak goratu nahi ukan zituen hierarkian, eta hauek, ezagutzaz beterik, kristau neofito suhartsu bilakatu ziren: elizgizon izendaturiko asko ere izan zen. Hargatik poeta egon ziren eta beren herriko tradizio-nea ez zuten arnegatu.

Pondu jakingarri bat aipatu behar da hemen. Irlanda kristaueko autoreek ez dituzte aitzinako paganoen mitoak idazgaitzat erabili bakarrik egin hori beste herrietako idazkuntzan ere erideiten edo aurkitzen da bada, baizik poetek, neurtizetan ari direlarik kristau direla ere ahanzten dutela badirudi askotan; ez soilki



jainko eta jainkosa zaharraz amultsuki eta haietan osoro sinets balezate bezala mintzatzen direlaketz, baina gainera paganoen gizalegeak handiesten eta Judu-Kristauenak gaitzesten dituzten bertuteak laudatzen dituztelaketz gizandietan: nagusi-izan-nahia, berekoitasuna eta atsegalea. Ihor ez zen joera hortaz eskandalizatzen, eta eliz-gizon ziren poetak ere jarraitzen zitzaizkion...

Xehetasun luzeska, horiek ez dira alferretan, nire ustez, Irlandarazko literatura bere egiazko giza-giroan ezartzeketz; hizkuntza baten historia behar den argian ikusteketz, aldiz, haren literaturaren berri jakin behar bait da. Dugun beraz gain-so bat eman irlandarazko idazkuntzari lehen textuetatik gure egunetara arteo.

Linguistek garaietan banatu ohi dute hizkuntza baten bizia. Irlandarari dagokionaz, eman hauek onartzen dira:

- Irlandara zaharra, 600-garren urtetik 900-garren urterat.
- Irlandara artekoa, 900-garren urtetik 1.600-garren urterat.
- Irlandara berria, 1600-garren urtetik gure egunetara.

Ez zaigu idazkirik heldu 600-garren urtea baino lehenagoko denboratik. Hala ere denbora hartako hizkuntza hein batean ezagut dezakegu geroagokoaren ikertzetik, bai eta «ogam», «ogom» (Irlandara berrian: «ogham» mintz. «ỗm») deitzen ziren irakur berezi batzuetan dauden harridazkietarik. «Ogam» horiek pondu eta marra zut edo zehar batzu ziren, harri baten kantoinean bernuzatzen zirenak. Germanen runen antza badute apur bat. Oinarri sendoko usteki-zuna, ikur horiek Latin etorkiko direla da (runak ere hala direla erran izan da), eta haietan dauden harridazki gehienak antroponimu batzuetan baizik ez datza: harriaren erailkitzearen izena, genitibuan; gero, elkarrekilakoa darakusan hitz bat (erraiterako: seme, morroin, e.a.), eta eraikitzailearekilako (aita, buruzagi, e.a.) denaren izena, hauek ere genitibuan. «Ogam» harridazkiotako hizkuntza txit arkaikoa, da, et hitzen desinentza beteak erakusten dizkigu oraino, zaharrenetan bereren. Huna etsenplu bat:

*Colomagni avi Ducagnie*; hitzez hitz, «Colomagnos-en bilobaren Ducagnos-en», erran nahi baitu: Colomagnos Ducagnosen bilobaren (harria).

Ohargarri da etsenplu hortan Keltararen eta Latinaren ahaidegoa: -i genitibuak: avi; akusatibuan:

ayos; ahaidegoa erakusten duen hitz bat (biloba edo ondoreko; lat: avus, ber erroa du). Irlandara zaharraz errantza hori:

*Colmáin auí Dochain* lizateke, eta berrian: Colmóin uí Dochain.

Irlandara zahar arkaikoenaren aroa bezain goizik, idazkuntza bat aski zabala erideiten da. Egia erran, orduko idazkiek ez dute balio handirik literaturaren eretzean; gehienak glosa batzuk baizik ez dira, Goidel fraideek istudiatzen zituzten Latinezko textuen marginan emanak. Idazki zaharrenetarik bat, Cambrai-n (Frantzian) hatzeman izan den homilia baten zatia da, VIII-gn mendeko azken urteetan ondua izana. Gero badira Würzburg-eko glosak San Kolombanen psalmu-argipen baten Latinezko laburtzapenaren gainean; Armagh-eko liburu hau, Irlandan berean idatzia, beste textu gehientsuak lurrandiko komentuetan hain ugari zeuden Goidel fraideen lumatikoak direlarik. Delako liburuak zenbait glosa edeiten ditu Irlandarazko, Sankt Gallen-go eta Torinoko glosak; Sankt Paulen-en (Karinthian) eriden izan den 850-garren urtearen inguruko eskuidatzi bat irlandarazko lau poema edeiten dituen, e.a.

Ikusten den bezala, erlisione-zko dira testu horietaririk haboroenak, eta maiz hizkuntza jakintzaren aldeko balioaz besterik ez dute. Hala ere, idazki zenbait erideiten ditugu berantago onduak izan direnak, Irlandara artekoaren garaian, haietako hizkuntza, hargatik Irlandara zaharra baita. Galdu izan diren testu zaharrago batzuen kopiak dira, eta haietarik zenbaitek agiaz balio dute literaturaren aldetik ere. Hala nola, *Lebar nab Uidre* edo *Behi Belizaranaren liburua* (behi beltzaran larruz azalduarik dagoelakotz delako liburua), zatirik gehiena idatzi baitzuen Celechar-en seme Moelmuire, 1106-garren urtean hilak. Irlandara zaharrezko testu bat badakar: Táin bo Cuailnge, h.d., *Cooley-ko behi lapurketa* Goidelen epopeiarik aipatuena eta aipagarriena -Connaught eta Ulster-en arteko guduketak kondatzen dituena, bai eta Ulster-eko gizandia zen Cú Chulainn hospetsuaren eginak ere-.

Irlandara artekoaren garaiko laneginak Leinstereko Liburua, jadanik aipatu dudana *Lebor na gabala* edo *Inbasioeen Liburua*. *Mae Conglinne-ren Ikuspenna*, eta beste asko ere dira. Anitzetan balio handiko poema andana bat badugu gainera. Ez da, alabainan, poetak Keltren gizartean beti ohoratuak izan direla ahaztu behar; eta Fileak, leheneko olerkari ofizialak, XIII-gn

menderako Engel Normanen inbasionearen ondorioz itzalirik badira ere, bardoek betetzen dute orain haiek utzi hutsunea. Handiki orok bere bardoa ba zuen, buruzagiaren bikaintasuna eta goieginak neurtitzetan ospatzea baitzen hunen lana. Eskolak ere baziren, haietan ikas baitzitzakeen neurtizlarigaiak poesia bardikoaren arau oso korapilatsuak. Baina alferretan litzateke orduko poeten izenak eman nahi ukaitea...

Idazki didaktikorik ere erideiten da Irlandara artekozko idazkuntzan; bereziki Tigernach entzutetsuaren *Annalak* Clonmacnois-eko abade izandako hau 1088-garren urtean hil zen). Beste jakintzek ere beren langileak badituzte; oroz lehen, sendakintzak: poetak bezenbat ohoratzen ziren «liaigh», h.d., sendakinak Irlanda zaharrea, eta poeta familiak bezala, sendakin familiak baziren, osagailuak eta formulak aitarengandik semearengana helerazten zirelarik.

Baina 1367-garren urtean Engelandar buruzagiek eragotzi egiten dute Irlandara ikastetxe guztietan, eta ordudanik, jakintzaren kontzeptuak areago ezin, dituelakotz zabalki expresatu, erorbidea jo du ordudaino, hain sendo, izan zen hizkuntza horrek. Literatura hutsezko laneginak baizik ez ditu geroago ugari

eman. Egia da hori ere, delako laneginek egiazko balio bat dutenean, ez dela guti, eta hala izan da Irlandan.

Hala ere, era orotako jazarpenak gaindituz, -jendealdatze presondegi, isun gizeraite (1654-garren, urteko martxoaren lehenetik landa Shannon hunaindian hatzemanik izanen zen Irlandar oro heriopean zegoen) eta abar-, jakintsu batzu jarraiki ziren herriko mintzaera beren idazkietan eta irakaskintzan usatzen. Gizon bihoztoi horiei esker, hizkuntza berriaren garaiaren hatsarrean. Irlandarazko kultura bizi da oraino. Besteen artean, 1633-garren urtean Norman etorkiko apez batek -Ceffrey Keating izenez- herriaren historia idatzi zuen latinez eta Irlandaraz, eta gaitzeko lan horrek idazkuntzarako hizkera berriaren oinarriak eman zituen.

Eskola bardikoek ere iraun zuten, orain lastola batzuetan. antolaturik, baina nabari da baldintza horietan ezin ukan zezaketela, lehenagokoen arrakastarik. Gainera, poeten laguntzaile eta ongigile ziren handikiak gehiago, deus ez ziren. Horrengatik, bardoen antzea gatzoztu zen izigarritan, eta orduko neurtizlariak bertsolari deitura hobeki hartzen dute, ezen ez egiazko poetena. Baserritar bilkurak alegeratzekotz koblak egiten zituzten orain, baserriko gertakari

xumeak zituztela kantagai. Hargatik, gizon jakintsua-  
go batzuek neurtziketa bardikoaren arauak tink begi-  
ratu nahi ukan zituzten, eta XVII-garren ehunurtekoan  
oraino ikusten ditugu, eskola zaharreko poeta batzu,  
hamarren bat urte iraun zuen zeingehiagokan, Irlan-  
dako familia handi hoiien ohoretan neurtitz oso klasi-  
koak ontzen... «*Iomárbháigh no bh Fileadh*» edo «*Toe-  
ten eztabaida*» deitu izan da zeingehiagoka aipatu  
hori. Beste poeta batzuek -populuak entelega ahal-  
litzan- neurtziketa bakundu edo sinplifikatu nahi ukan  
badute ere, hala eta guztiz egiazko antzelariak izan  
dira, eta haien bertsoak aipamen bat merezi dute;  
batez ere Brian Merriman-en «*Cuirt an mheadhon  
oidhche*», edo «Gauerdiko Gortheak» (1808). Irlandara  
berriaren garaiko idazki hoberenetarik bat da hau,  
azken menderdiko berpizkundera aitzin.

Hargatik, ezagutu, behar da Engelerak duela ordu-  
kotz Irlandararen lekua hartu kulturaren alorrean, eta  
herriko hizkuntza -sentimenduzko edo, beste zioak  
gatik- oraino darabilaten idazleak, geroago eta urria-  
go ageri dira. Zer izan ere haien talentua, ezin molda  
dezakete egiazko literatura bat, hots, izpirituaren  
ekintza osoa besarkatzen duena, Irlandara zaharraren  
eta artekoaren garaietan izan zen bezala. Alta ugari

dira oraino egun orozko mintzaeratzat Irlandara darabiltenak, nahiz hizkuntza ofiziala Engelerara izan. XVIIIgarren mendearen lehen erdian, kasik 8.000.000 bizitzaile baziren izaroan: horietarik erditsuek herriko hizkuntza bazekiten. Irlandara Derry-tik (iparraldean) Waterford-erantz (hegoaldean) doan marra baten haraindiko eremu guztian mintzatzen zen, lekot hiri handietan.

Baina eremu hedatu hortan ere, jende ttipiak baik ez ziren Irlandaraz mintzatzen, batez ere lurginak. Denbora hartan, ordea, izugarritzako makur batek jo zituen Irlandako laborariak. Jakin behar da, ezinago erromeski bizi zirela laborari horiek: Engelandatik jin «*Tighearnai talmhan*» edo «*Landlord*» lurjabe hihuingarrien etxetiarrak ziren guztiz gehienak; hobeki erran, atzerritar nagusi horien jopuak. Eta haien lanaren ekoizpenak lurjabea aberastenago zuelarik, berek behar gorrian zirauten. Lursagar eta esne zuten janari bakarria, herrian hain ugari ziren abelgorri eta ardiak zergen ordaintzekotz eman behar zituztelakotz. 1846garren urtean eritasuna lotu zitzaion lursagarrari, eta hunen ondorioz gosete ikaragarri batek despopulatu zuen herrialde guztia: bi urteren artean 1.000.000 jende inguru gosez hil zen, eta beste 1.000.000 batek



herria utzi behar ukan zuen, beste lurraldeetan -Amerika, Australian, e. a.- bizimolde jasangarriago, baten bilatzekotz. Ondoko urteetan beste bi miliunek ere herbesterako bidea hartu zuten, hala nola 8.000.000-etarik 4.000.000-etara. apaldu baitzen Irlandarren kopurua hamar urteren buruan.

Hain gogorki probaturik izan aren zorigaiztokoak, Sartaldeko baserritar irlandesak ziren ororen lehen. Miliunka hiltze eta herbesteratze horien ondotik, bel-durgarriki tupitu zen beraz irlandesen kopurua, eta herrian bizirik gelditu zirenek ere pentsu bat baizik ez zuten alatzten: ahal bezain laster joan handik, eta bizi-tzeko baldintza hobeagoak beste nonbait bil... Berak ez baziren ere, esperantza zuten beren haurrak bederen baliatu ahal izanen zirela salbabide hortaz. Hortarakotz, ordea, Engelera jakin behar zen: Estatu Elkartuetan edo Kanadan edo Australian bizitzekotz, Irlandara ezertarako ez zen; eta zio, horrengatik herrikoa bazter utzirik, gurasoak beren haurrei atzerriko hizkuntza irakasten hasi ziren.

Hori zioten bestalde Irlandar populuari aholkatzen orduko gidari abertzaleek berek, Daniel O'Connell handiak (1775-1847) batez ere, ezen ikusten zuten Engelera ez jakiteak zituela Irlandarrak jopu batzuen

mailean atxikitzen atzerritarren eskupeko: atzerritar etsaia, beraren izkiluz, garaitu beharra zen, hau da, beraren hizkeraren bidez. O'Connell eta haren jarraikitzaileen guduketari esker, Irlandarren bizi baldintzak geroago eta hobekitu ziren ondoko urteetan, eta, azkenekotz, Irlanda berriz bere gain jarri da, mendetako Engelandarren uztarria egotzirik. Hargatik, hizkuntzak ez du orduan galdutako eremua atzera bildu ahal izan, aitzitik, orain duela ehun urte baino askoz ttipiagogo da egun Irlandaldunen kopurua...

1855-garren urtean, Gosete Handitik landa, 1.100.000 mintzatzen ziren oraino herriko hizkuntzan, haietarik 313.000-k baizik ez zekiten Engelararik.

1955-garren urtean, Estatuak eginerazi duen zenbakundearen araura, jaiotzatiko mintzatzaileak, hots, Irlandara gurasoen ganik ikasi dutelakotz dakitenak, (*native speakers*), 37.000 baino gehiago ez dira.

Irlandara oraino mintzatzen deneko eskualdeei «Gaedhealtach» erraiten zaie. Hamarren bat gaedhealtacht badira, gehienak Sartaldeko itsas bazterrean sakabanatuta. Huna nun dauden eskualde hauek:

*Ulster*: 12.000 mintzatzaile edo hor inguru, Donegal-Co izeneko bazterrean.

*Connaught*: 5.000 bat, Iparraldean, Mayo-Co-an.

*Hegoaldean*: 12.000 bat, Cois Fhairrge deitu eskualdean. Beste ehun, zenbait izaro ttipietan.

*Munster*: 5.000 bat, Kerry Co-ko sartaldean, Dingle-ko eskualdean.

Bat edo bi mila, Cork Co-an (West Muskerry).

*Leinster*: zenbait mila Ring-eko eskualdean (Waterford Co).

Badira orain 3.250.000 biztanle Irlandan (Eiren), gutiz gora behera. Haietarik ehunik bat (% 1) baino gutiz gehiago mintzatzen dira tradizionalki Irlandaraz, eta haien kopurua egun oroz ttipituz doa. Hizkuntza zahar hori oraino ez duela hain aspaldi herri guztian erabiltzen zela oroitzen bagara, eta Aitzinateko garaian lurrandiko eremu zabaletan ere mintzatua izan dela, dirudienez, bai eta Euskaratik landa hura dela gure egunetara arteo biarik iraun duen Europa Sartaldeko mintzairarik zaharrena... deus ez da hunki-garriagorik gaedheltacht batean egonaldi bat egitea baino. Munduaren birraldakuntzari ohartu gabe beti ere arbasoen mintzoaz mintzatu ohi diren laborari, marinel edo beste jende bakun horien artean hizkuntzak hilzorian nola dauden ikusten da.

### 3. Berpizkunde

Erran dut hogeia eta hamazazpi mila jaiotzatiko mintzatzaile badirela. Hala ere herriko hizkuntza dakitena Irlandarrak hanitzez ugariago dira. Baina ikastetxean ikasi dutelakotz dakite, ez gurasoen ganik; edo bestela, beren baitarik daukatelako Irlandarak izan behar duela herriko hizkuntza nazionala, eta ez etsaien Engelarak.

Alabainan, sorterritzaleak oro ez dira O'Connell edo joan den mendeko beste nazionalisten ondotik ibili, hizkuntzaren hauzian bezenbatean. Haiek Irlandara osoro itzal ledin nahi zuten. Ergelkeria litzateke haien gaitzestea joera horrengatik: ziorik hoberenak eta ohoragarrienak bazituzten horrela pentsatzekotz: denbora hartan, *Gosete Handiko* urte izugarrietan, irlandar enda hiltzera zoan, eta hau hitzez hitz hartu behar da, ez da aski erraitea baldintza ekonomikoak ikaragarri zirela. Versailles-eko hitzarmenaren ondotik Alemanian, edo zenbait lapurkeria dela kausa orain Euskal Herrian diren bezala. Milion bat Irlandar gosez hil ziren, eta orduko nazionalistek enda hau salbatu nahi izan dute oroz lehen, eraile etsaiak, erran nahi baita Landlord berekoi urrikalgaitzak alegia, nolazpait garaituz. Ez da beraz handi irlandararen problemaz

axolatu ez badira milaka jende hiltzen zekusatelarik bazter orotan, irudi zitzaien zorakeria bat zela linguistikako joku batean indarrak higatzea.

Gehiago dena, herriko mintzaira handicap bat zitzaiola populuari, bizitzeko borrokan bait zebilen, aitzineko zatian aipatu ditudan arrazoinak gatik. Nahiz Mundu Berrian bizitze, aisago baten erideiteko, aurkitzekotz, nahiz lurjabeen sistema guduketa politikoa-  
ren bidez erauzteko, engelera zuten Irlandarrek behar! Horrela uste zuten behintzat jende zentzudun gehienek, nahiz bakan batzuek hizkuntza hain benegarri baten zori gaitzaren gainean zenbait nigar-malko ixuri.

Baina XIX-garren mendeko azken erdian nazionalismua aitzinatuz zoan araura eta herriaren egoera ekonomikoa geroago eta sendotzenago zen bezala, legezko zen herriko kizkuntzaren aldeko aburu drastiko horiek aldatzea. O'Connell-en ondoko herrizaleak, Irlandarak salbatzea merezi zuela aldarrikatzen hasi ziren, eta hizkuntza nazionaltzat hartu behar lizatekeela herria bere gain jarri ondoan. Zenbaitek zioen hark izan behar zuela herriko hizkuntza ofizial bakarra... Emeki-emeki higikunde bat sortzen da Irlandaren berpizteko helburuaz. Higikunde horren agergarri

ezagutuenetarik bat «*Connradhna Gaedhilge*» edo «Irlandararen biltzarra» da (engeleraz: *Gaelic League*), 1893-garren urtean eraikia. Haren eraikitzaile eta lehen buru, Dubhghlas deh-Ide (Douglas Hyde) poeta handia izan zen. Biltzar horrek elkartu zituen berpizleak, eta gaitzeko lana burutu zuen lehen urteetan: argitalpen, hizkuntza leitzione, idazkuntzako zein-gehiagoka, eta abar... (Irlandako hizkuntza higikundeaz, irakur Lizardi euskal-berpizlearen iritzia, in *Errialdeak eta Abendak*, ITZ LAUZ, 167-170).

Berpizkunde asmo horiek nola bihurtu dira eginetan? Lehenik, geroago eta zabalago izan den toki bat irabazi du Irlandarak irakaskintzan, eta hori ez da gutxi. 1834-garren urtean Engelandarrek Lehen mailako eskolak eraiki zituzten Irlandan, haur guztiek baitezpada segitu behar zituzketenak. Herriko hizkuntza-aren hileraztekoetz, zituzten eskola horiek, eta uste izateko da, alabainan, gehiago, ez litzatekeela Irlandararik apur bat goizikago bortxazko ezarri ukan balute irakaskintza beren eskupeko izaroan. Zer nahi den, eskolak bazirenaz geroz, ikastaldietarik batzu Irlandaraz egin zitezen haietan, eta halaber beste ikastegi guztietan, eskatu zuten berpizleek.

1908-garren urtean herriko hizkuntza haizu uzten da, Lehen mailako eskoletan. Urte hortan berean Unibertsitate Nazionala eraikitzen ahal dute katolikoek, eta Irlandara beharrezko da hartarako sar-etsamean. Ber urtean, nahibadako uzten da «*Leaving Certificate*» delakoa iragaitekotz.

Irlandarazko irakaskuntzaren aldeko higikundeak are indar gehiago irabazi zuen *Saorstát Éireann*, h. d., Eireko Estatu Askea sortu izan zenean (1921-1922), hunek hartu baitzuen herriko mintzaira hizkuntza ofizialtzat Engelararen ber heinean.

1922-garren urtean Irlandara ikaskizun da Lehen Mailako eskoletan: gutienik astean hiru ordu irakatsi behar da; ikastetxe zenbaitetan egunean ordubeteko lekua ere emaiten zaio; *Gaedhealtacht* eskualdeko eskoletan, aldiz, irakaskuntza oro hartan egin behar da.

1926-garren urtean, Bigarren Mailako eskoletarik ehunik larogeik (% 80) ikastaldi guztiek Irlandaraz emaiten dituzte; ehun istudiantetarik hogeit eta bostek hizkuntza hortan erantzuten dute «*Leaving Certificate*» delakoan.

Irlandako goi-ikastegietarik, ordea, Galway-ko Unibertsitateak soilki du Irlandara usatzen; Belfast eta

Cork-ekoek, eta Dublin-go «*University College*» eta Ikaskuntza aitzinatuetarako Institutak Engelera darabilte.

Irakaskuntzako ahalegin horietarik landa, berpizleak entseiatu dira Irlandarazko literatura berri bat sorteraztera. Hastapen apal samarrak ukan zituen, baina geroago eta zabalduz joan da, hala non erran baitaiteke -hizkuntza beti eri handi badago ere, nire artikulua azken zatian egiaztatuko dudan aiora-, idazkuntza bederen aski bizi eta sendo dela egungo egunean. Idazle berriok beren guneko hizkelkian ari dira gehienetan, Irlandara zahar eta artekoaren garaiko idazleek hizkuntza. bategin bat erabili bazuten ere. Horregatik eskualde arauz sailkatu ditut.

MUNSTER.- Eskualde hortako hizkelkian idatzi duten idazleetarik aipatuena, Aita Peadar o Laoghaire (Father O'Leary) da noski. Baserritar senar-emazte elibatzen seme hau 1839-garren urtean jaio zen; gurasoak irlandar bikainak zituen eta hizkuntza ezinago obeki ikasi ahal izan zuen beraz; apeztu ondoan ere, *Gaedhealtachi*-eko herrisketan egon zen gehienetan. Literaturako higikunde berriaren suspertzaile izan dela erran daiteke. Lan andana bat utzi du, haietarik hauek baitira ezagutuenak: *Séadna*, eleberri bat; *Mo*



*scéal féin* edo bere bizitzaren kondaira, alde askotarik txit jakingarria: besteren artean, Gosete Handiaren berri emaiten du, bai eta nazionalismuaren berpiztearen gaineko xehetasunik ere; bestalde, itzulpenik ainitz idatzi zuen: Biblia, Quijote, Irlandara artekozko textu batzu, e. a., oraingo hizkuntzarat bihurtu zituen.

Munster-eko beste autore balioko bat An Seabhac da, ipuin laburren idazle eta eleberrigilea.

CONNAUGHT.- Eskualde hortan baditugu Pádraig Ó Conaire, kondaira humoredunak idatzi dituena, hala nola *M'asal beag dubh* h. d, Ene asto txipi beltza (Gaedhealtachteko bazterren ezagugarri baitira asto beltz edo uherrak...), bai eta lan benagoak ere, erraiterako *Seacht mbuadh an éirghe amach'* edo «Jazarraldiko zazpi garaitak guduketa, nazionalistaren gainean».

Martin Ó Caidhm, idazle bat oso berrizalea hizkuntzaren aldetik, sekulako eztabaidak sorrerazi dituena bere *Cre na cille* edo «Hilerriko buztina» izeneko eleberrian ageri den bezala.

ULSTER.- Seamus Ó Grianna ipuin labur idazlea baizik ez dut hemen aipatuko.

Erran gabe doa autore ezagutuenak izendatu ditudala soilki, askoz gehiago, baitira Irlandarazko irakur-

gaikinak; haietarik ainitzek, bereziki idazle gazteetan, merezi dute ezagutzea. Itzultzaile on andana bat erideiten dugu, hizkuntza landu klasiko edo berrietan dagozen maisu lanak Irlandaraz emaiten dituztenak. Olerkaririk ere bada ugari, bide den bezala, hala nola nire aburuz hoberenatarik den bat baizik ez aipatzekotz, Sean ó Riordain gaztea *Eirebeall Spideoie* erran delakoa, «Papogorriaren buztana» izendun bildumaren ontzailea. Kazeta eta aldizkari saldo bat bada gainera, guztiz edo gehienik Irlandaraz argitaratzen direnak: «Comhar», «Ar Aghaidh», «Feasta», «Aiseiri» «Dearcach» «Deirdre» «Inniu» «Rosc» «An Scathan» e. a.

Bestalde, irlandatzale batzuek «Dub Leabhar» edo liburu-klub bat moldatu dute, 2.500 harpidedun dituen, Irlandarazko argitalpepenak hobeki sal ditezentzat.

# JAKINTZA BERRI BAT: PSIKOLOGI GAINDIKOA

## 1. Sarrera eta Edestia

Betidanik eta herrialde guzietan izan dira gizaki batzu, jakite ezkutu baten jabe zirela-edo, izadi arauetatik kanpoko gertariak ekar omen zitzaketenak. Mirarigile, azti edo sorgin zeritzaien; haien baitan besteek zeukaten sinismena ez da beti erabatekoa izan. Sorgina basatien artean itzal handiko gizakia bada gaur ere, hari zaio euri, ihize on, izurrite bat sendatzea, e. a., eskatzen aintzinateko munduan aurkitzen dugu, federik osoena aztiari buruz (Nero eta Simon maguen harremanak), bai eta sineskabea, bekaizkeria eta gorrotoa ere («De Bacchanalibus» agindu batez galarazten ditu Caesar-ek Ekialdetik Erromaratu misterio berriak).

Gure Europan, Elizamak, paganu adimentzaleari hortan jarraituz, ez dio hasieran sinesterik batere sorgintzari: sorginak eta deabrudunak Gaizkinarekin itundu zirelako, Zoro, gaixo, eritzat edukitzen ditu. Geroxeago haatik, bestela jokatuko du. Indar gaiztoekin gizona kide ditekeela irakatsiko du, eta zinausleak

ezeztatzeko, batez ere Albitarren aurkako gurutzadatik landa, neurri gogorak erabakiko dituzte Aita Santuek, hala nola Joanes XXII-garrenak eta Innocentius VIII garrenak. Honek «*Summis desiderantes*» bulaz, sorginaztiak urkamendira edo surtara igortzen ditu... Milaka eta milaka erreko dituzte gero Europa guzian katoliku nahiz protestanteek. Euskal Herriaz baizik ez mintzatzeko, txit ugari izan omen ziren sorginak guretan; erdiko frantsesez baitzen aditz bat: *basquiner*, sorgindu, zoratu. Oroit gaitezen Pierre de Rosteguy, Lancreko mariskalak Laburdin (1619) egin zituen gehiegikeriez (500 gizon-emakume urte batean hilerazi!) eta Zugarramurdiko sorginez.

Bizkitartean, mendeak zehar Elizak ahalmena galtzen du herri-arazoetan nola giza-gogoetan. Oraingo jakintzaren aita dugun Descartes, eskolastikuen metafisikari aitzi oldartzen ikusten dugu eta, haren ondotik, «argi-mendeko» frantses jakintzaleak. Adimen jauresle haiek, zentzupera eror ditekeena bakarrik dute egiaztat hartu nahi. Izadi gaindikoa ukatzen dute zeharo, jakina, eta Elizaren lehengo uster a bihurtzen dira: sorginak, ero, gaxo batzu dira, non ez diren gezurtiak. Horiek, zerbait irabazi dute behintzat, ez baitira gehiago, errekizun...

Osteak, urrundik bada ere, gizon haundiari jarraitu ohi zaizkio. Beraz, ezkutapenetan sinestea itzaltzen da gizarte maila oroetan (Badakit neska gazte eta zahar asko oraindik ere aztietara doazela Parise hontan, baina jolas antzean egiten dute gehienetan).

Sorginak bezala itzaltzen dira giza-irudimenetik Europar folklore guzietan aurkitzen ditugun gizagaindi edo petiko izakiak. Euskalduen *lamin* eta maitagarriak, Latinen *Fatae*, Germanen *Kobolde* eta *Nixen*. Halaber, iratxo edo arima erratuen baitako sinestea ere galduz doakigu, eta edozein izadigaindikoarenak egin iduri du...

Oraingo garaian, ordea, hona non bitariko gertari horiez batzuk ohartu izan diren; jakintzariak nahi eta nahi ez aztertu behar izan baidituzte, haiek ukatzeko, edo adimenari edo beren teoriari dagokion atzalpen bat biltzeko baizik izan ezpalitz ere.

## **2. Mesmer-en Bizi-erakarpena**

Mesmer izeneko German sendagile batek, Parisen argitarazi liburuan (*Mémoire sur la découverte du magnétisme animal*, 1799), giza gorputzak, abereek, hitz batez, bizidun guzietan, burdin biziarenak iduri irra-

da batzu bidaltzen dituztela idatzi zuen. Ondorengo eraginok, omen dituzte bizi irrada horiek:

a) sendagarriak: ezagutua da Mesmer-en tinako hura: eriak bertan jartzen ziren, eta sendagileak, eskuak haien gainean beraren Bizi-irradak haiei emateko igaroaz, sendatu egiten zituen.

b) loerazgarriak: esku igarotze horrek eria, askotan, loera berezi batean jartzen zuen, lo ibiltzalearena iduri; lo egoera horri hipnos edo irasor izena eman zioten.

c) azkenean, ez bakarrik bizidun gorpurtzek baina ikugaiezko gauzek ere aipatu den irradatze hori badute; tresna bakun batzuen bidez (urritz-zotza, urritz makiltxoak edo tzintzila) irradok jaso ditezke, bil ditezke eta horrela ezkutatu gauzak idoro: lurpeko ur, mehatz, e. a. Hori da radiestesi delako aztiketa.

Bizi-erakarpen teoriari, jakintzaren oinarri sendoe-tan ezarrita zegoela antz ematen zitzaion, ezen, Mesmer eta honen jarraitzaileen gogoan, fisika jatorrak jardungai dituen beste irradak bezalakoak ziren bizi-irradak. Jakintzariak, beraz, onartu zuten haiek iker-tzea. Iritxi zituztenak, ordea, ez ziren batere Mesmer-en ustekizunen alde izan. Lehenik, irradoi ohartu

nahian asmatu tresna eta neurkin guziek ez zuten ondoren garbirik ekarri.

Bestalde, mesmerzaleek lortzen zituzten sendaketak gogoartzearen gain eman ziren, zeren ez baitziren maizenean gorputz-eritasunenak, gogo-eritasunenak baizik. Halaber irasorra. Azkenean, tzintzil ibiltzalea zela eta, behatz muturren oharkabeko higikunek dutela ibilerazten erakutsi zuen Chevreul deitu batek; eta tzintzilaren erantzunak egoki zetozenean, bat zetozenean, radiestesilarien berjakintza-petikoan dagoeneko zeuden ezagutzak agerrera zetea baizik ez, zuen egiten.

Irasorra zerk egiten zuen bila aritu ziren berriz ere, eta Braid Eskoziarrak beste jatorri bat aurkitu zion: lillura (*cf. Neurhynology, or the nervous rationale with animal magnetism*, Londonen, 1843). Begia puntu dir-daitso bati tink-tink so luzaro egoten bada, begizaina nekatzen da, eta nekatze horrek du, Braiden gardiz, hipnosa ekartzen. Beraz, ez mesmerzaleen bizi-irradak baina bai haien begiradaren lillurak du loerazten. Braiden aztarretan ibiliz, saiaketa ospatsuak egin zituen arlo hortan Charcot mediku jaunak, La Salpêtrière Pariseko gaixotegian. Haren garaikide ziren beste bi frantsesek, Dr. Liebault eta Dr. Bernheim,

aitzitik, gogorazteak duela oroz lehen hipnoseratzen aldarrikatu zuten. Orain, jakintzariak bi teoriok onartzen dituzte. Irasorrak bi zio ditu, bata gorputzarekikoa: lillura; bestea gogoarekikoa: gogoraztea.

Dena dela, Mesmer-en Bizi-erakarpenak eragiten omen zituenak oro, jakintzak engoitik ezagutzen zituen eragilekin atzala zitezken. Bizi-irraden teoria zendu zen.

Egia esan, dena etzegoen atzaldua... Adibidez, irasortzaleak ohartu ziren ohi ez bezalako gauzak agitzen zirela noizik behin irasorriekin: zenbait aldiz garbikusle, bihurtzen zen hau, hots, ezkutuak «ikusitako» ohi zituen begien lagungorik gabe, hala nola here gorputz-barnea (autoskopia). Zintzil, ibilerazleek ere, batzuetan, berjakintzan edo berjakintzapetikoan ezin eduki zitzaketen berriak ikasten zituzten.

Jakintzari gehienek, ordea, ukatu egin zuten horiek benetan jazotzen zirela, oso bakan zirelako gertariok eta ez baitzituzten nahitara ikertzen ahal; baita, esparik gabe eta batik bat, beren teoria guzien aurka zirelako.

### **3. Espiritismua**



1847-an, gizonen ardua berriz ere izadi gairdiko gauzetara erakarri zuen zerbait gertatu zen Ipar-Amerikan. New York eskualdeko herrixka batean, bi neskatxek, Fox ahizpek, zerbaiten hotsa entzuten zuten beren gelan, eta joketa horri ihork ere ezin zion bidezko arrazoirik bil. Bi hurrek, beldurti ez izaki, hizpide bat asmatu zuten jotzailearekiko: ukaldi batek A esan nahiko zuen, ukaldi bik B, e. a. Horrela ikustzale ezkutuak hitzegin ahal izan zien: jakin, zuten aurreko etxe-kojaunaren arima zela, erailldua izan zela hura, eta beste zehaztapen asko. Joka eman zituen aginduei jarraituz, gelaren lurpea zulatu zuten Foxtarrek eta gizon baten hezurak hatzeman.

Behar bada, Anglo-Saxon protestanteak gertu zuden, Europako latin katoliku nahiz adimentzaleak baino areago, gertariok egizko edo, behinepehin, egiantzeko zirela sinesteko. Zer nahi dela, Foxenean gertatuak arras zaletu zituen Amerikatarrak; berehala bazkuniak sortu ziren orotan, bestaldeko arimekin har-emanetan sartzeko asmoz; joketa horren bidez, «*modern spiritualism*» delakoa jaio zen.

Allan Kardec izenordeko Rivail jaun frantsesak laketerazi zuen European espiritismo izenpean (*Le livre des esprits*, Parisen 1857). Espiritistak mahain baten

inguruan jartzen, esertzen dira, eskuak gainean ipiniz: mahaia batzutan jasotzen zaie, eta bere oinez joaz galdegiten duenari erantzuten dio. Hildakoren bat dela mintzo esaten du gehienetan.

Jakintzariek, Mesmer-en usteak bain osoro -beren iritzizustel agertu berri zituztenok, Chevreul-ek ondu zuen teoria mahai jasotzaileari ere zatxikola nahi izan zuten, hotsez: espiritisten eskuen ohargabeko higikunek omen zituzten mahaiak eraikitzen, eta erantzunak egoki zetozenean, berek berjakintzan edo berjakintzapetikoan zeuzkaten asmo ta oldeak ziren era hortan agertzen, deusik ez besterik.

Baina gauzak ez ziren horren atzal-errex izan aldi hontan. Jakintzari haundien batzuk egon ziren «mahai ingurerazleekin», eta haietatik zenbait aski egiazale izan ziren ikusi zuten guzia mundu jakintsuari aldarrikatzeko, orduko jakintzaren teorien bidez aditu ezina zutena ere.

Gertakari adigaitz horietan, haxe zen noski garrantzi haundikoena: egia bazen ere askotan han zeudenen esku-higikunek zutela mahaia ingurarazten, *zenbait aldiz ihork ikutu gabe jasotzen zen*. Beste gertakari ikusgarriak ere kausitzen, lortzen ziren noizik behin, hala nola ekarketak, ukigaiketak, e. a.; eta

batzuetan, mahaiak inguruko ihork ere ez zekizkienak esaten zituen, berjakintzaz ala berjakintza-petikoaz. Egiari zor baitzaio, gertariok oso bakan agitzen zirela esan behar da; espiritistek zioten baino askoz bakana-go, behintzat; eta agitzekotan, behar zuten hor egon dohain berezi bat zeukaten gizaki batzuek. Gizaki horiei «medium» esan zieten, hots, bitarteko, bizidunen eta hildakoen bitarteko antza. Izen hori gorde dute geroztik, nahiz ez den, behar bada, egokia.

1871-an, «*London Dialectical Society*», Sir John Lubbock-en buruzagigopeko Englelandeko jakintzari batzak, txosten bat agertu zuen espiritismuaren fenomenuari buruz. «Bada indar bat -zioen- gauza astunak ukitu gabe mugierazteko gai dena, eta indar hori gizaki batzuen hor-egoteari darraikio, oraindik ez jakin nola». Morgan eta Russel Wallace hainako jakintzariiek izenpetu zuten txosten hori. Baina jakintzari horiek, fenomenuak hildakoen arimek eragiten zituztenez, spiritisten esanetik, bai ala ezko hau zian ez zuten alderdi hartu nahi.

Aipatu gertariok barrutikiago aztertzeke irasi zuten Londonen 1882-an «*Society for Psychical Research*» (S. P. R.) izeneko bazkun bat, Amerikako

bere abarrarekin batean (Am. S.P.R.) arlo hortan lan gaitza eraman behar zuena.

Geroztik, munduko jakintsu haundienetatik zenbait ikerkuntza horietaz guti edo asko arduratu dira. Besteren artean: William James, Amerikatar psikologiar sakona; Engelandan, William Crookes, fisikaria; Germanian, Schopenhauer, hotsandiko jakintzalea; Frantzian, Bergson ohentsua, Gabriel Marcel, oraingo giza-izanaren jakintzale eta idazle katolikua eta, batez ere, Charles Richet sendagilea. Honek asmatu zuen «*metapsychique*» hitza jakintza berri hori adierazteko. Gaur nahiago dute, meta edo parapsikologi esan, hots, psikologi gaindikoa, psikoloki arruntak alde batera uzten dituen fenomenak aztergai dituelako, harek baino giza-gogoaren berri gehiago eman diezagukelako.

Jaio zenetik honera, beren jakite eta ekite oro psikologi-gaindikoari opatu dizkioten guzien izenak ematea luze litzateke. Gorago izendatu ditudanetatik lekora, beste zenbaitek aipatzea merezi luke.

1919-an eraiki zuen Parisen Jean Meyer jaunak «*Institut Melapsychique International*» (I.M.I.), hau da, nazio arteko psikologigaindiko ikastegia. Bazkun horren buru izan dira, alkarren ondoan, Dr. Geley

(1919-1924), Dr. Osty (1925-1938) eta René Warcollier kimikaria. Engelanda eta Ipar-Ameriketako bi S.P.R.-en lankideen artean, Myers, Gurney, Podmore, Stayton Moses, Carrington, Rhine eta Hyslop, Hodgson, e. a. dira. Germanian, V. Schrenck-Notzing eta Driesch. Argentinan ere bada «*Sociedad Argentina de Parapsicología*» delako ikastegia. Italian, «*Società Italiana de Metasichica*» eta Lombroso eta Bozzano jakintsuak. Iberotar Penintsulan estudio horiek aurretatutakoak omen ziren Catalunyan, guda-aurretik. Espainiako oraingo agintariek poxelatzen dituzte, ordea, entzun dudanez: non ere ahaldun eta jakite gutxiko den apaizeriak irin bereko dauzka sineste bat den espiritismua -okerra Elizaren ustetan- eta jakintza, bat den parapsikologia.

Izen haundi horiek oro berme ditugu ez dela psikologigaindikoa gezurrezko jakintza, ben-benetakoa, egiazkoa, baizik. Psikologiaren sail bat dugu, eta oraindar jakintsu gogo, argi bat ezin egon liteke hartaz arretatzeke. Hasiera lanetan dago noski oraindik; bide makurrak jo eta joko ere ditu, aspergarri guziak bezala. Baina gero eta zuhurrago dabil, gero eta aurkikuntza ernegarri gehiago eginaz. Hedapen haundiko aurkikuntzak dira horiek, zeren gizonaren izateaz egia

zerbait irakats bailiezagukete, azkenekoz, jakintzak egiztatu egiek, metafisikari hutsen ametsek ez antzo.

#### **4. Haien baldintzak. Mediumtasuna**

Bakanki eta, badirudinez, psikologi arau jatorretatik kanpo gertatzen direla adierazi dut gorago; araugaindiko esan ohi zaie. Horrengatik, berriz, jende askok, jakintzari askok batez ere, ez dituzte aintzat, hartu nahi, berek behin ere ikusi ez dituztelako.

Baina psikologi-gaindikoan aurreratu nahi baduzu egonarri haundia behar duzu, goiz ala berandu zeuri edo zeure inguruko norbaiti zeredozer agitu arte, fenomeno horien taldean sartzen den zerbait. Edo bestela, haiek ikusi eta ikertzeko aukera izan duten jakintzari zintzoen lanak irakurri eta sinetsi. Idazti eta agerkari askotan aurkituko dituzu; hona zeintzu aholkatzen ditudan: «*Proceedings of the English S.P.R.*» eta «*La Revue Métapsychique*», I.M.I.-ren agerkaria, aldizkingietan.

Parapsikologiko gertariak oro, jakintzaria den aldetik ikertuak izan dira, laboratorietan, saiabidez. Alor hortan saiaketarik egiteko, ordea, beharrezkoa da arestian aipatzen nuen medium hura. Hona egitan

zer den medium bat: araugaindiko fenomenuak maiz xamar ekartzen dituen gizaki bat.

Mediumtasuna nondik datorren eta zerk daragin oraindik ez dakigu zihur. Gogoz edo gorputzez eri direnen artean edireiten da askotan, emasabelekoetan batipat. Jaiotzetikoa da zenbait aldiz (Horregatik omen dira ugari medium onak gaurko Polskan. Beste herrialdeetan mediuzez jende asko hil bide zuten Erdi-Aroan, sorginak zirelakoan, eta haien enda itzaltzer da; baina Polskan ez zen Inkisiziorik izan gizonak aitzaki horrekin erretzeko). Beste zenbait aldiz mediumtasuna berez sortzen da, gorputzean edo gogoan norbaitek min hartu ondoren. Esan dezadan, haatik, medium haundi batzu beste edonor bezain sendo eta osasuntsu zirela, beren mediumtasuna lanean ez zelarik, jakina.

Ezen, bere mediumtasuna lanean den gehienetan, egoera berezi batean dugu medium delakoa, transa irasorria eta lo-ibiltzalena bezala: lotan mintzo eta ari da. Orduan eragiten dituen fenomenuak bitariko dira. Batzu haren gogo-barruan baizik ez dira gertatzen; bestetzu kanpoko zeretan, haren baranoko gauzetan nabarmen dira. Baina Mediuemekiko batzarre haboroe-

netan, bitariko fenomenuak nahastuta gertatu ohi dira.

## **5. Gogo barruko gertariak**

Horiek dira errezenik aurki ditezkeenak, usu xamarra baita eskatzen duten mediumtasuna. Parapsikologilari zenbaiten iritziz, guziok ere gai ginake ekartzeko, guti edo asko.

### *1) Gogamen bidaltze eta Telepatia.*

Hala nola «gogamen bidaitze» deritzaiona. Denok ikusia dugu behin edo behin ferietako aztiren bat, han zeudenen deitura, izen eta jaiotegunak igartzen zituenena. Urrundik gogorazteko irakasbideak ere uste hortan bertan jarrita daude: batek bere gogoan zeredozer sendo pentsatuz gero, beste bati gogoraz diezaiokela.

Aspaldion ezagutua zen fenomenu hori jakintzari zenbaitek sakonki miatu du, saiaketa bidez, azken une hauetan. Besteren artean: S.P.R.-ko Whately Carington-ek eta I.M.I.-ren buru den René Warcollier jaunak.

Saiaketak honela egiten dira, grosso modo: A. bidaltzaile batek zerbait, esate baterako eredu bat, tink-tink pentsatzen du B. jasotzaile bati bidali nahi diola. Honek, eroso eserita, goxoki jarria, ilunpetan



edo erdi argitan, bere «gogo» hasten du lehenik, eta gero, gogoratzen zaizkion ereduetan, bizikien eta mai-zenik agertzen zaizkionak jasotzen ditu.

Esan dezadan lehen bait lehen, «gogaman bidaltzea» ez legokeela gogo burmuinak sortzen duela ustekizunaren aurkako. A-k B-ri beraren gogoeta bat bidali balezaio, bidezko litzateke uste izatea irradatze bat dela gogomena, fisikaren beste irraden antzeko -edo kizkin bidaltze, bat-, hukigaia eraltzen bide duten proton, neutron eta elektron kizkinak antzo. Hori aldarrikatu dute parapsikologilari batzuek, gogamen-kizkinari «psykhon» izena emanaz.

Baina egiazki ez da gogamen bidaltzerik, A-k ez dio B-ri ezer ere igortzen (cf. Carington-ek lanak, *Telepathy eta The death of Materialism*). Adibidez, A-k mahai gainean dagoen lore ontzi baten eredu bidali nahi dio B-ri. Askotan B-k ez du eredu hori jasoko. Orraitio, A eta B harremanetan daude, A-ri dagokion zerbait jasoko baitu B-k, nahiz mahai gainean nahiz A-ren gelan den beste gauzaren baten eredu, nahiz A-ren gogoeta edo olde bat.

Bestalde, ez dirudi A eta B elkarren gaindik urrun izateak zedoertan eragozten duenik harreman hori:

gogoeta bidaltze bat balitz,psykon edo gogamen-irrada bidaltze bat balitz, orduan bai, egingo luke noski.

Beraz, A-tik B-rako gogamen bidaltze, baino ego-kiago dugu telepatia deitzea fenomeno hori. B da ari, ez A. B-k urrundik jasaiten du (tele pathein) A-rekin zer dagoen; bere mediumtasunari esker, A-ren berri hartzen du haren gogoan, batzuetan haren berjakin-tzan (orduan iduri du, gogamen-bidaltze bat), gehie-netan ordea haren berjakin-tzapetikoan.

Ikusten dugu nola telepatia delako gertakari bakun horrek, ukigaiezko bi gizaki bitartekorik gabe harremanetan ari ditezkeela erakusten digularik, giza-gogoa gorputzaren senetik lekora zerbaitek eragin dezakela egiaztatu iduri duen. Lehenengo urratsa, hots arima nola edo hala badela egiztatuz?

## 2) *Metagnomia (Araungaindiko ezagutza).*

«Metagnomia zera da: gogoak araei jarraituz ezin iritsi ditzakeen gauza ukigaien nahiz gogoeten ezagutza» (R. Sudre, in *Introduction á la Métapsychique humaine*). Era haunitzetan jantarik agertzen zaigu:

a.) «garbi-ikustea» edo ikus-metagnomia.

Mediumak begiak hesten ditu, eta gogoan hesten, eta begietaz baliatu gabe, hurbil idor urrun dauden zerak «garbi ikusten» ditu.

Hemen ere, beren teoriari legokiokeen atzalpen bat bilatu dute ukigaizaleek. Besteren artean, Farigoule idazle frantsesak (Jules Romains) zera esaten digu *La vision rétnienne* delako idazlan batean: gure gorputz azalean barreatuak, sakabanatuak, baditugula begitxo batzu (ocelles: horiek omen dute ikusten gure bi begi ohituak zerratuta daudelarik). Oinarri gabeko ustekizuna, ihork ez baititu begitxo horik giza-gorputzean idoro. Gainera, Farigoule jaunak ez digu azaltzen garbi ikusleak urrun daudenak ere zergatik ikusten dituen.

Ez; metagnomi edo araungaindiko ezagutza gogorekiko gertari bat da, batere dudarik gabe, ez gorputzarekikoa. Ikus-metagnomiak norbaiten berjakintzan edo berjakintza petikoan hartzen bide du, telepatiaren legez.

b.) beste garbi ikuste mota bat, kristalean-ikustea dugu.

Mediumak kristalezko borobil batean ikusten ditu hurbil edo urrun dauden zeren ereduak. Iduripenak dira ereduok, jakina: araungaindiko ezagumenak ikas-

ten dituen berriak, borobilaren errainuekin eraldutako iduripen batzuen itxuran berjakintzaratzen ditu metagnomilariak. *Crystal-gazing* hortaz Engelandeko S.P.R.-ko aztertzeak arduratu dira, batez ere.

d.) kristalean-ikustearen antzeko dira beste ariek-tok: kartak, hezurak, kafeondarra, e. a. Horietan ere garbi-ikusleak, araugaindiko ezagutzak burmuin-ereduetara itzultzeko ordez, kanpotar ikus-irudipenetara bihurtzen ditu.

Metagnomi era horiek guziak eta telepatia alkarren ahaide dira. Goragoko B jasotzeak antzo, metagnomilariak jakiten dituen gauzen berri beste norbaiten gogoan, hobeto esanik, berjakintzapetikoan hartzen du. Ezen berjakintza-petikoan arteko fenomeno bat omen da beti araugaindiko ezagutza (Irakur G.N.M. Tyrrell-en *The modus operandi of Paranormal Congnition*, in «Proceedings of the S.P.R.», vol. XLVIII, May 1947).

e.) «Gogo-neurketa» edo uki-metagnomia

Hori, metagnomi-era azalgaitzago bat da. Jakintzarien artean, Buchanan Amerikar sendagilea ohartu zen lehenengo aldiz; haren ondotik, Denton delakoak aztertu zuen, bere arreba Mrs. Elisabeth Denton-Cridge mediumtzat harturik; biok egintako saiaketen

ondoreak argitaldu zituzten liburu ezagun batean: *The soul of things, or psychometric researches and discoveries*, 1863. Geroxeago, Pagenstecher eta Prince jaunek ere estudiatu zuten barrutik Sra. Reyes de Z., Mexikotar medium haundiaren bidez. Neronek, saiaketa, ernegarri zenbait egin ditut arlo hortan mediumtasuna poxi bat daukan lagun batekin.

Buchanan-ek erabili zuen hitza, psychometry, hau da, gogo-neurketa, ez zaio batere egoki gertari horri; gainera, beste zerbait adierazi ohi du gogo-neurketak, psikologi ikerkuntzetan. Horregatik, Rene Sudre frantses parapsikologilariak uki-metagnomi (metagnomie tactile) hitza eskaintzen digu. Horrelakoa baita izatez metagnomi mota hori:

«*Gauza bat ematen zaio mediumari eskura, eta gauza ukituz gero (nahikoa, baina beharrezkoa da ukitze hori), haren edestia ikusten du erduetan bere gogoan, hots, zer den, nondik datorren, noren eskuetan izana den, haren jabe hereziari buruzko xehetasunak, e. a. Badirudi oroimen antzeko zerbait daukaiela gauzek ere, bizitu dituzten gertakarien oroipenak nonbait gordeizen dituztela, "arima" bat badutela, Denton-en esanelik».*

Egia esan, zail baino zailago da uki-metagnomia egiazkoa denez erabakitzen; ezen M. ene lagunari gauza bat emaiten badiot uki dezan, haren edestia nik jakinik, nola zihur izan jalgiko dizkidan egiak ez dituela ene berjakintzan edo berjakintza-petikoan aurkitzen?, Metagnomi bakuna litzateke orduan. Halaz ere uki-metagnomi hutsezko gertariak izan dira: garbi-ikusle batzuei eman dizkiete ukigaiezko gauzak ukitzera, ihork ere haien edestia ez baitzekien; haietaz eman dituzten zehaztapenak egiazko agertu dira gero.

Psikologi-gaindiko fenomenuetan, aipaturiko hori, eta horren ahaide den etxe iratxodunena da noski griñagarrienetatik bat. Denton-ek uste zuen ukigaiezko gauzek gertakarien aztarrak gordetzen dituztela, aipatu diren psykhon haiei eutsiz, edukiz; mediumak jaso, bil eta adieraz litzake psykhonok. Horrela, ukigai oro «gogo-gaiez» bikoizturik legoke; gogo-gaia, ordea, ukigaiaren antzeko izaki, hura bezala kizkinez eraldua...

Ukigaizaleentzat zoritxarrez, uki-metagno milariak ez du gauzaren lehengo nahiz oraingo edestia bakarrik garbi-ikusten, baina, zenbait aldiz, gerokoa ere.

Eta oraindik izan ez denak ean ukigai aztarnik utzi. Oin makalak ditu, beraz, ustekizun horrek.

Korapilo hau ez da orraitio oraindik askatu, ez eta erraz izango ere. Uki-metagnomia metagnomi bakanaren tankera berezi bat baizik ez bada, eta uki-metagnomilariak jakiten dituen berriak giza-berjakin-tza-petiko batetik jasotzen baditu, zergatik da beharrezko gauzaren ukitzea giza-gogoarteko har-eman-keta hortarako?

### *3) Aurretiko ezagutza, (Geroa igartzea).*

Parapsikologilarientzat beste nahaspil haundi bat bada, bi gogoen arteko har-eman-keta (telepatía) eta orain badiren, edo lehenago gertatuak orain oroipen-antzean badiren gertarien araugaindiko ezagutza (metagnomia) baino askoz nahastuagorik: garbi-ikus-leak geroa ere ikus dezake...

Hori ezin litekeela pentsatuko du jakintzale zenbaitek. Nahi dut, beraz... bada. Anitz bidez konturatu dira gizonak fenomeno hortaz segur nago guretako bakoitzak horrelako zeredozer behin bizitu duela; neronek amets bat egin nuen haurtzaroan, geroko gertakari bat zehaztasun guzietekin iragarri zidana.

Aurretik ezagutzak, Etika dela ta, Jakintza eta Etikarekiko hauzia dakarkigu: non dago gizonaren askatasuna, geroa engoitik oraina aurretik eralduta bada-go?

Bestalde, aldiari buruz ditugun uste sendo guziak zalantzan jartzen dizkigu Aurretiko Ezagutzak. Benetam, adigai lanotsua da lehenaldi, orainaldi eta geroalditan zatikatzen dugun aldi hori, «sasiko adigai» bat, dio Bergson-ek. Honen aburuz, aldia badelazko iduripenak bere jatorria iraupen hutsa (gogoaren berezgarria) eta alda hutsa (ukigaiaren berezgarria) nahastekatzean dauka.

Geroa nolaz igar ditekeen atzaltzeko, batzuek Nietzsche-ren ustekizun bat berendu dute: Betiereko Itzulingurua. Nietzsche-ren arabera, direnak oro aurretik ere izan dira eta gero ere itzuliko dira, betierean aldatzeke. Beraz, geroaldian ikustea, egitan lehenaldi urrun-urrun batean ikustea baizik ez litzateke.

Bestetzuek, Betiereko orainaldian sinestea hobesten dute. Diotenez, ez da benetan ez lehenaldirik, ez geroaldirik, baina oro garaibereko dira. Aldia badelakoz gure ustekeriak, gure ukigaiezko munduon egoiteari darraikio. Bergson-ek ere horixe adierazten bide zuen.



Ustekizun zoroa, harrigarria... gogoan igaroko duzu. Hala ere, araugaindiko ezagumenaren tankerak indar eman iduri dio: ezen geroa garbi ikusten duen mediumak ez da geroko bezala ikusten, baina ikasitako araugaindiko ezagutzak oro, nahiz lehenaldi, nahiz orainaldi, nahiz geroaldiari detxekotela, galga berean agertzen zaizkio; esan nahi dut, aldiari buruzko berez-kuntzik batere gabe.

Ezin naiteke gertari hortaz luzeago mintza: aski bekit esatea hauzia ez dutela oraindik erabakia parapsikologiariek, ez hurbildik ere.

#### *4) Gogo-lekoreko gertariak.*

Oraintxe aipatu ditudanak baino askoz ikusgarriagoak dira mediumtasunaren gogo lekoreko gertariak. Askoz urriago ere bai, gizaki guttik baitauka eskatzen duen metagnomian mediumtasunera. Horregatik, zenbaitzuek, nahiz telepatian (metagnomian), berdin aurretiko ezagutzan ere sinesten dutenak ez dituzte egiazkotzat hartu nahi. Baina Crookes, Geley eta V. Schrenck-Notzing jakintzari argiak jakile ditugu egitan gerta ditezkelak. Horien jakilegoa nahikoa izan behar genuke sinesteko, nik uste.

#### *I.- Telekinesis.*

Greziar hitz hori (esan nahi du: urrundik eraginda-ko higikuna, hots urruti-higikuna) mediumen indar erakustetak direla ta erabiltzen da: ukitze ageririk gabeko ukaldi jotzea, gauza astunen higitzea, e. a. «*The London Dialectical Society*»-k, *moderns spiritualism*-aren fenomenuetaz bere iritzia agertu ondoren, Sir William Crookes fisikari haundia ardurazi zuen fenomenuok azterketan jarrai zezan. Crookes-ek, horrelako indar-erakusketak harrigarriro eta erraz ematen zituen medium batekin lan egiteko zoriona ukan zuen: Daniel Home. Honekin egin saiaketak, *Experimental investigations on psychic force* izeneko idazki batean azaldu zituen, 1871-an. Zioen: «Saiaketok erabaki iduri dute badela indar berri bat, giza gorputzari datxekiona -oraindik ez baidakigu nola-, eta, erraztu beharrez, arimatiko indarra dei dezakeguna».

Indar idoro berri hori neurtu nahian, aztakin eta tresna ondo asmatu batzuetaz baliatu zen Crookes: ezin beraz esan iduripen baten jostailu izan zenik.

Geroxeago Home-n erako beste medium haundi bat, Eusapia Palladino, estudiatu zuten Italian Morse-lli-k, Lambroso-k eta beste jakintzari eta sendagile askok (H. Morselli, *Psicologia e Spiritismo, impressioni et note critiche sul fenomeni medianici di Eusepia*

*Palladino*, Torino, 1908). Home eta Eusapia izan bide ditugu ihoiz ezagutu diren bi medium haundienak.

II.- Ektoplasma eta ukigaiaketak.

Psikologi-gaindiko gertari guzietatik, horiek dira ikusgarrienak. Media transan dagoela, konortegabe, zein nahi araugaindiko fenomeno haundi emaitako bezala, ekai bat, batzuetan arrea, bestetan zuri-tsua, ateratzen da haren soinetik, ahotik, bularretik, hezur-giltzetatik edo sabelpetik, eta ukigaitzen da itxura bereziak hartuz: nahiz gauzak direla, nahiz gorputzadarrak, nahiz giza gorputz osoak ere. Zenbait aldiz ikusiezina da ekaia mediumetik ateratzean; ikuskortzen da iratxo itxurak ukigaitu orduko. Iraupen laburra dute gehienetan itxurok zenbait segundu, onenean zenbait minutu; itzaltzen dira gero, eta ekaia mediumaren gorputzera itzultzen da.

Dr. Geley heugitz aritu zen fenomeno horrekin. Ahal izan zituen ere I.M.I.-ko laboratorian ukigaiteta zenbaiten moldaketak egin. Adibidez, esku bat ukigaitzen da mediumaren aurrean. Geley-k eskatzen zion eskuari parafin urtuzko ontzi bero batean murgil zedin. Eskua, ontzitik irtetzean, ezukigaitzen zen, eta parafin gogortuzko eskularru bat uzten zuen. Aski zen orduan eskularruan igeltsua ixurtzea iratxo-eskuaren

moldaketa bat edukitzeko. Ikugaiketak, idurizkoak ez, baina egiazko direlako egiztagarri bikaina moldaketa hori; batez ere behatzak lotuta, bihurtuta direnean, Geley-k lortu zituenak legez.

Geley-k ektoplasma (ekto = at, atera; plasma = eralketa) deitu zuen gizaki zenbaiten gorputzetik horrela atera eta ukigai ditekeen ekai hori. Haren ondotik, I.M.I.-ren buruzagi izandako Dr. Osty-k nahi izan zuen ikasi ektoplasma izatez zer den. Garrantzi haundiko saiaketak egin zituen hortarako Rudi Schneider Austriar mediumaren bidez. Ohartu zen:

a) Ektoplasma ekaiak gorri-petiko leinuruak geldierazten dituela. On da hori jakitea, ezen mediumekiko batzarrek askotan behar dute ilunpean egin, argizuria ektoplasmaren ezeztagarri da eta. Baina gorri-petiko leinuruak esker, ilunean ere gertatzen den guziaz kontura diteke?

b) Ektoplasmaren eralgintza arnas egiteari, hatsegiteari datxikol nolarebait: ekaia bazebilen Rudi-ren arnas-zalantzaren arabera. Hontan bila dezakegu ausaz honen azalpena: zergatik hats-aribideek hain toki haundia duten Indiarren yoga-etan; yogiek hain zuzen araugaindiko gertariak ekartzea dute beren helburu bat. Gogora gaitezen ere, hizkera aunitzetan

batetik gogo, arima, eta bestetik hats edo arnasa adierazteko hitzak, jatorri beretik datozela (Spiritus pneuma, Geist... Azken hatsa eman dü, esan ohi dugu, Zuberoan, norbait hiltzen denean).

Gogoz jakinen lukete jakintzariak ektoplasmaren barnemuina zelakoa den. Ondikoz, ezin diteke, ekai hartatik har: ukigaiketak ezeztatu egin ohi dira norbaitetik edo zerbaitek ukituz gero. Bestalde, ekaia mediumaren gorputzetik ateratzen baita, gorputz horren eral-atal bat da noski, eta kaltegarri luke mediumak harketa hori. Hala ere, ukigaiketek berek onetsi dute, zenbait aldiz, beren ekaitik pitin bat hartzea parapsikologiariek. Txikikuskin edo mikroskopio-pean epithelium antzeko mintz bat zela ohartu dira. Baina egiazko ektoplasma-ekaia ote zen, ala mediumaren larruazaleko mintz zatitxo bat, egiazko ektoplasmak haren gorputzetik ateratzean eramana.

Ukigaiketarik ederrena, segur asko, Crookes-ek Florence Cook medium neskaxa gaztearekin iritxi zuena izan da: den-dena bizidun bat iduri zuen iratxo edo izaki bat, Katie King izena zeukana bere bizitzan, eta XVII-garren mendeko ingeles neska bat zela berak zioena. Agertu zitzaion une haunitzetan; mundu hon-tako gizaki bat ematen zuen zeharo, Crookes-en gelan

ibiliz, han zeudenen hizketaldian parte hartuz, jakintzarien hurrei ipuinak kontatuz. Argazkirik ere egin ahal izan zuen: Katie Kink zutik, Crookes-en aldamean, Miss Cook, konorte-gabe zetzala transan.

Osotasun horren heineko ukigaiketak bakan dira, ordea: ia beti erakaitz, dira, aurpegia baizik ez ondo itxuraturik, eta gainerakoa zapiz inguraturik. Edo osotuago direnean, denbora guti diraute, laster itzaltzen dira, gehiago ez itzultzeko. Orraitio, Katie King-en bete zen beste gertaketa bat ezagutzen da, Nepenthes, Denmark-eko ikertzale batzuei agertua, Helade zaharreko andragoi bat zela alegia.

III.- Gorputzaren berjasotzea, altxatzea.

Saindutegiak edesten digu nola santu batzu, txorabio mistikoan zeudelarik, lurretik jasoak izan tiren. Home-k aunitz bidez eman zuen fenomeno hori, eta beste medium haundi gehienek ere bai. Batzutan argazkiak hartu ahal izan dira, airean zeudela zibuka (Ikus F. Schwab-en lana, Teleplasma and Telekinese. Ergebnisse meiner meine zweijährigen Experinmentalsitzugen mit dem Berliner Medium Maria. Vollhart, Berlin-en 1923).

Hirutariko gertariok bi ustekizunen laguntzaz adi ditzakegu

a) Ektoplasis (ekto = at, atera; plasis = eralgintza). Ekai bat atera diteke giza gorputz berezi batzuetatik, oraindik ez badakigu zergatik, ez eta zein baldintzetan, ikuskor nahiz ezikuskor antzean.

b) Ideoplasis (ideia = asmo; plasis = eralgintza). Mediumaren gogamenak edo asmoak eraltzen du ekai hori egin gai duen lanaren arabera -berjakintza-petiko asmoak, jakina, lotan baidago mediuma transaratua-. Nahi badu gauzaki bat higitu (telekinesis) edo bere gorputza lurretik jaso, ekaia ikusi ezina egoiten da, baina lan hortarako behar diren tresnen itxura hartzen du: eskuagak, gorrikiak, e. a. Nahi badu asmo edo olde bakunago bat kanporatu, gauza, gorputz-adar edo giza-aurpegiaren itxuran ukigaitzen da.

Azkenean, mediumaren nortasuna puskatua bada eriz (prosopopesis), ektoplasmak giza gorputz oso bat eral dezake, gu bezala mintzo eta ari dena, mediumaren bigarren nortasun baten kanporaketa alegia (Katie King). Hori da behintzat espiritista ez diren para-psikologilarien aburua. Espiritista direnek, aldiz, zenbait bider ideoplasis edo asmo eralgintza ez dela mediumaren edo beste bizidun baten asmoaren eralgintza esaten dute, hildako baten asmoarena baizik: orduan, Katie King benetan izango litzateke berak dioena, hau

da, orain dela hiru mende hil zen gizaki baten arima, oraingo medium baten ekaiaz bizidunei agertzeko baliatzen dena.

IV.- Ekarketak. Ezukigaiketak. Poltergeist.

Horiek dira parapsikolokilariek aztergai pozik hartzen ez dituzten mediumtasunaren gertari batzu, mediumatzunen zimarkunkeriak erraz atzipe baidezakete hemen aztertzeala, non ez bada beraren irudime-nak.

*Ekarkelak.* Gauzaki bat, zenbait aldiz aski urrundik etorria, agertzen da bat-batean batzarre-gelan. Mediumaren indarrak du ekarri. Gauzakiak hormak igarotzen baditu, haizu zaigu, uste izatea mediumak ezukigaitu egin duela, eta gero berrukigaitu, lehenago zen itxura bertsuan. Halaber media bera hormak edo ate hertsu bat zehar pasatzen denean: orduan bera ezukigaitu eta berriro ukigaitu bide da.

*Ukigai kizkinari* buruzko teoria berriek laguntzen digute talde hortako fenomenuok benetan gerta ditezkeela sinestera, ukigaia, izatez, orain arte uste zen bezain gotor eta aldakaitza ez dela erakusten digute-larik.

*Poltergeist*-ezko gertariak («iratxo zarategile» esan nahi du germaniar hitz horrek) dira mediumta-



sun aldietan entzuten diren hotsak: ukaldiak, karrakadak, e. a. Jakina, gaitz da erabakitzea araugaindiko gertariak diren, zinez, ala fisika-arau ezagunean eraginak (berotasuna, eguratsaren txilistindarra... ). Araugaindikoak izatekotan, mediumaren eragin bat ukigai barruan erakuts liezagukete.

#### V.- Berenazko gertariak.

Etxe iratxodunak edo «pamerialak» dira (Irakur Azkueren «Euskalerrriaren Jakintza» I-go idazkian XV-gn atala). Gehienek ezagutu edo entzun dukegu behin edo behin horrelako zerbait. Talde hontako fenomenuen berezgarri nausiena hauxe da: ez baitute mediumen beharrik gertatzeko, orain arte ikusi ditugun beste guziek ez bezala.

Baina harretaz ibili behar da alor hortan: askotan bada mediumen bat, norberaren edo besteren ez jakin. Esate baterako, harri-erauntsietan; gertari usu xamar horien ikertzalea ohartzen da, kasik beti hurbil dagoela neskabila edo mutil bat, berak uste gabean mediumean ari. Ezen gazteak gizaloratzen direnean, mediumtasuna baletorkieke zenbait aldiz.

Halaz ere, medium gabeko fenomenuak ere badira. Hala dirudi behintzat. Adibidez gela batean egunero, ordu berean, iratxo bat agertzen da. Gelan dagoen

nor-nahik ikusiko du, mediumtasun izpirik ez izanik ere. Iduri guzien arabera, ihor ez bada ere gelan agerketa berdin izango da.

Beranazko fenomeno horien beste berezgarri bat, haien iraupena da. Urteak zehar jarraitu ohi dute maiz (cf. in «La Revue Métapsychique», num. 13 Janvier-Fevrier-Mars, 1951, Borley-ko apeztegiarena). Engelandeko apeztegi hortan, lekaime gazte bat biarik horman hesitua izan omen zen XVII-garren mendean, lekaide batekin ihesi joan zelako. Geroztik haren iratxoa aunitz bider agertu dela diote hangotarrek; 1927-an inguruetako langile batek ikusi zuen azken aldikoz, eta 1943-an ere araugaindiko gertariak izan dira han.

Iratxo gertari horiek gogo-neurketa edo uki metagnomiaz Denton-ek eman zuen atzalpenaren bidez saiatu dira: iratxodun tokiak, bertan gertatuen aztarnak gordetzen ditu, hau da, gertatuen psykhonek. Gizaki «sentikor» bat toki hartan egoten bada gero, psykhonek bil ditzake eta haietatik iratxo bat eral. Iratxoa beraz tokiko oroipen bat litzateke soilki, giza gogo baten eredumeneratua.

Ustekizun horren sendogarri: iratxoek ez dute emaiten ezagumenari edo nahimenari jarraitzen dio-

tenik beren egikeran; aiheru berak berregiten dituzte beti, ikusleetaz axolatu gabe.

Baina badakigu psykhon teoria ilaun xamarra dela eta, gainera, batera sentikor ez direnei ere iratxoak agertzen zaizkiela. Esan nahi dut, nonbait iratxoak badirelazko honek, nahi ta nahiez beldur edo griña pitin bat ematen duela, eta gogoaren griña horrek mediumtasuna sor dezakeela, hortara ekarriak ez zirenen artean ere. Batzuek, ordea, agerketak ikusi dituzte iratxodun tokietan, aurretik batere ez baizekiten bazirela. Eta gehienetan han dauden guziek ikusten dituzte era berean. Iduri luke, beraz, zenbait aldiz iratxoak gauza direla, ez bakarrik eredu.

#### VI.- Psikokinesis.

Gogo-kanpoko gertariak bakan direla ikusi dugu, eta urri diren medium berezi batzu behar dituztela gertatzeko. Iratxoketek mediumik ez dute eskatzen, egia, baina ezin ditezke, jakintza arauz, erraz estudia.

Beste fenomenuak badira ordea, txit usuago, eta arruntago, edozein gizakiren gogok ukigai eragin dezakela erakusten digutenak: jaurtarri bat, joko ditare bat badut; jaurtitzen badut, alde berezi bat -seia, esate baterako- atera dadin sendo nahikatuz, ohar-tzen nahiz seia maizago ateratzen dela ene nahimena

ari izan ezpalitz baino. Bistan da «gogoaren eragin» horri ohartzeko behar dudala jaurtarria haunitz bider jaurti, zenbaki haundien legeak agindu arte.

Rhine irakaslea arduratu zen batipat gertari hortaz. Psikokinesis izena eman zion, hau da, «gogoak eragindako higikuna». India-ko fakiren landareen laster-ertera ere beste psikokinesis bat bide da (iruzur bat ez denean).

#### VII.- Hil orduko gertariak.

Ernegarri dira, zeren geroko biziaren hauzia aurkezten digute (halaber ere iratxotuak). Horrelako gertari asko bildu eta argitaldu ditu Bozzanak liburu eder batean (*Dei fenomeni di telekinesia in raporte con eventi di morte*, Erroman, 1922).

Bi sailetan jar ditzakegu:

a) batean hilurrenak; besteek ikusten ez dituzten gauzak edo gizakiak ikusten ditu (aingeruak, hilak...). Galdea da, egiazko ikuspenak direnez, ala iduripen: berjakintzapetiko asmo bat ikus iduripen antzean kanporatua.

b) bestean, hilurrena bera agertzen zaio, hil ordu berean edo, zenbait aldiz, ordu edo egun batzu geroago. Baina zer da agertzen? Telepatiaz bizidunak jaso zuen hilurrenaren berjakintza-petiko asmo baten kan-

poratzea, ala zinezko agerketa? Bigarren hau izanik, eta batzuetan berandutze luzez izanik ere, hilurrenaren agertu nahi bati ote darraikio, eta hildakoaren agertu nahi bat ote dugu orduan?

Geroko biziaren hauzia oraingoan alde batera utziz, nahikoa bekit esatea heriotzaldiak, aizalortzeak bezala mediumtasun zenbait batzutan sor deza-keela behin ere horrelakorik eduki ez duten gizakien artean ere: hori da hil orduko gertari horien zio bat.

## **6. Amaia: ustekizunak**

Psikologi gaindiko gertari nausienak gainbegiratu ondoren, aitortu behar dugu, noski, Shakespeare-kin batean, badirela:

...gauza gehiago zero-lurretan

...filosofiak uste duen baino.

(«Hamlet» 1, 5)

Zer irakasten digu gainbegiratu horrek? Lehenik, izagaindikotan sinestea ez dela txorakeria. Ziur da azti eta sorginek benetan ekarri dituztela herrien «sineskeriak» aipatzen dituen zenbait mirari: izena sortu baino lehen medium izan dira soilki. Haien sorgi-

negintzak artez edo moldez mediumtasuna eratoritze-ko dira; beharrezko den transa-egoeran sorgina jar-  
tzeko, edari mozkorgarri bereziak irentsiz eta irudime-  
na astintzen duten ohikunak ospatuz (Sorgin eta aztie-  
taz hemen mintzo naizela, aldera uzten dut, oraingoz,  
Jakintza ezkutua, hots, Magu, Kabalista eta horrelako-  
en metafisikaren jarduna; alta ziur nago egia zerbait  
bil dezakegula metafisika hortan).

Bestalde, gizagaindi eta petiko izakien hauzia ber-  
pizten du psikologigaindikoak. Ez naiz hemen horretaz  
jardungo, txit nahasia bait da gai hori eta, gainera,  
oraindik ez daukadan jakitea eskatzen du. Esan deza-  
dan haatik, Charles Richet haundiak *Traité de  
Métapsychique* delako liburu ospatu bat idatzi zue-  
nean (1922), ausartu zela pentsatzera araugaindiko  
gertari adigaitz zenbait giza lekoreko «nortasun»  
batzuek eragiten zituztela behar bada...

Mesmer-en usteak ere neurri batean jakintza  
berriak sendotzen ditu. Agian ez da bizi-irrada edo  
erakarpenik; baina baliteke mesmertzalearen ganik,  
zenbait aldiz, ektoplasis edo atera-eralgintza bat iza-  
tea (mediumena iduri) beste giza gorputzetan ari  
dena, mirarizko sendaketen eragile. (Sasi-sendalariak

ez dira denak gezurti eta lapurrak; batzuetan benetan sendatzen dute, medikuak etsi arren. )

Azkenean, Espiritismuak gure eskerrak hartzen ditu, besterik ez bada ere, jakintzarien ardura araugaindiko gertarietara erakarri duelako. Beste alde batetik, ordea, parapsikologiak erabaki behar dituen hauzi behinenak jaukitzen dituzte espiritisten sinespenek:

### *1.- Arima badea izan?*

Ez uste izan parapsikologilari guziak arimazale direnik! Ikusi dugu nola ikertzale zenbait ahalegindu diren araugaindiko fenomenuak ukigai arau ezagunen bidez azaltzera. Bai eta, ikerkuntzen hasieran behinik behin, haien azalpenek egiantzeko eta gotor xamar iduri zuten.

Halaz ere, orain badirudi fenomenuok -gogobarrukoek nahiz gogo-lekorekoek- gogo hutsezko «zerbait» badela egiaztatzen dutela, ukigairen laguntza gabe (araugaindiko ezagutzan) eta ukigaitan beretan (asmo-eralgintzan) ari ditekeena; beraz, ukigai gaindiko dena. Zerbait horri, nahi dutenek, «Arima» esan diezaioke.

### *2.- Ideoplasis prosopesis ala Geroko eta Aurreko bizia?*

Ez dut uste hori aztertzale bakar batek ere uka dezakeenik. Halaber, gogo hutsezko hori ukigai gaindiko bada, haizu da ukigaia hilondoan ere bizi ditekela uste izatea. Baina galdea: zer da bizi eta nola?

Izpiritualistek, aintzinatarrek (kristauek eta beste sinesmeneko batzuek) nola oraindarrek (espiritistek), gure nortasun osoak, gorputza itzalita ere, bizirik irauten duela dadukate, arima-huts. Baina ukigaizaleek ondo erakutsi dute (oro ez bait da arbuiatzeko haien ustekizunetan) giza-nortasuna deitzen dugun fenomenua, hein handi batean, ukigaiari datxikola; esan nahi dut, giza-burmuinari. Beraz, burmuin hori itzaliz gero, alferrik dugu igurikitzea gure oraingo nortasunak, gure oraingo «ni»-ak, batere aldatu gabe bere izatean jarraikiko duela.

Horrengatik, parapsikologilari askoz ez du nahi ukigaizale hutsak ez izan arren giza arimaren geroko bizian sinetsi. Hala nola, Charles Richet-ek eta Rene Sudre-k. Bi ustekizunen bidez azaltzen ditu honek geroko bizia egiaztatu, iduri duten Espiritismuaren gertari guziak: ideoplasis edo asmo-eralgintza eta prosopesis, hau da, nortasun puskatua edo nortasun aizunak mediumak edukitzea (prosopon = antzoki mozorroa zen).



Mediamekiko batzarretan nabaritzen diren «hilen arimak» ez dira benetan bizidun baten (mediumaren) nortasun aizuna, pekonortasunaren agerketa baizik; zenbait aldiz ukigaiketa. Gainera, pekonortasun horiek, araugaindiko ezagumenaz, hil den baten berri ikas dezakete, eta haren nortasunaz gezurrean estalitz, hila bera agertzen dela iduriazi.

Halaz ere, Espiritismuaren gertari zenbaitek ez dute ematen Sudre-n ustekizun hori dagokienik. Esate baterako, agerketak bizidunen artean ihork ez dakizkinak esan dituenen. Eztabaida gabeko gertariak guti dira, jakina; bat orraitio ezagutzen da ederra; André Dumas jaunaren *La Science de l'ame* delako idaztian irakurri dut: Lady Nona edo Telika, Kristo aurreko XV-garren mendean bizi zen Egiptoko andragoi baten agerketa; han zeudenek eskatuz, egiptoera zaharrean hitzegin zuen, hots, hizkera batean ihork haren fonetika orduan ez baizekien. Lady Nona horri esker, hizkuntzalariek, mintzaira jakintzariek ezagutzen dituzte orain Faraonen mintzaira hotsak...

Horrelako gertarien aurrean, Rene Sudre-k bere teoria osotu egin behar izan du. Aiher da orain giza-burmuina hil ondoren, giza-gogoaren zati batek bizirik

irauten duela, ez ordea egiazko giza-nortasunak, ez arimak, jendeak hitz hori aditzen duen legez.

Gorputzetik landa bizi dena oroimen hutsa omen da, ezagumen eta nahimenik gabe; hitz batez, nortasunik gabe. Oroimen hortan ditu metagnomilariak ikasten dituen berriak hartzen, alegia.

Urrun xamar ibili zaigu Sudre azalpen horren bila. Gainera, ez du adierazten agerketa zeinbaiten egintza eta bereztasunik (egia esan, oso bakan dira agerketok). Eta bestalde, burmuinik gabeko ezagumen edo nahimen batean sinestea, funtsean, ez da burmuinik gabeko oroimen batean sinestea baino xoroago.

Parapsikologilari aunitzek, beraz, arau gaindiko fenomenoak aztertuz gogo hutsa izan ere badela sine-tsi behar eta, ez dute ez Izpiritualista horien ustekizuna, ez Sudre-rena ere onartu. Gorputza hilik ere, giza nortasunak bizirik jarraitzen duela diote; aldatu egin bait da ukigaitik berezi den ezkerro.

Hori baitugu, ez bakarrik parapsikologi, bai psikologi guziaren hauzi zahar beti gorputzu bat: gogo-burmuinen edo arima-gorputzen arteko ondoretasuna. Henri.Bergson jaunak, haatik, asmo berriak ekarri ditu korapilo hori urratzeari buruz (irakur haren liburua, *Matie're et Mémoire Essai sur la relation du corps*

*a'esprit*). Giza gogoak bi alde badauzka –hemen behar dugu, Sigmund Freud irakasleari zor diogun «berjakintza petiko» haren adigai berria lagun hartu-; batetik burmuinari darraikio, hori dugu berjakintza, norberak bere gogoaren gainean bat-batean ikasten dituen berriak. Bergson-ek erakusten du nola burmuinaren berjakintza hori ukigaiezko munduon gaudelako sortu zaigun, ukigaiari egokitu beharrez.

Freud-ek, ordea, giza-gogoak beste alde bat daukala irakatsi digu, berjakintza petikoa (Freuden aurretik psikologilari zahar zenbaitek ere susmatu zuen hori, besteren artean Leibniz eta Maine de Biran-ek). Austriar irakasleak eta haren lehenengo jarraitzaileek uste zuten berjakintza-petiko hortan berjakintzak behin jakin eta gero ahaztutakoak zeudela bakarrik; batzuetan on-arau edo gizarte-arauen aurkako zireia-ko ahazturik (Freud-en libido, gizaki-griña, eta Adler-en indar nahikeria). Baina psikologilariak asko zapaldu dute azken une hauetan berjakintza-petikoaren adigaiak. Konturatu dira ez zela soilki berjakintzaren hondakin bat, alderantziz, berjakintza zela haren saila, edo, hobeto esan, haren errainua burmuinean (cf. C. G. Jung-en lanak).

Egokiago genuke berazberjakintza lekorekoa esatea, berjakintza-petikoa baino, neronek, ohiturari jarraituz, azken izen hau erabili arren idazlan hontan.

Horra non oraingo psikologiak oinarri bat eskaintzen dien parapsikologilarien ustekizunei. Asmo berri horiek aintzat hartuz, Dr. Geley-k *L'être subconscient* deritzaion liburu batean, bi sailetan banatzen du berjakintza-petiko edo lekorekoa.

a) Berjakintza-petiko arrunta; guti gora behera, Freudena, zapaldu behar ditugun gorputzaren griña eta irrika txarrez eratua.

b) Berjakintza-petiko gorena (berjakintza gaindikoa esan genezaioke); oso bestelakoa, gure benetako nortasuna da eta gure egiazko «ni»-a; gorputza hil ondoan han dugu bizi, bai eta gorputza sortu aurrean ere, Geley-ren ustez.

Ezen giza-arima, hots, gizonaren berjakintza gaindikoa, baldin ukigai-gaindikoa, bada, nola sinetsi ukigaiarekin batean jaiotzen denik? Jakintzaren bideetatik, Sortalde eta Sartalde ohitura zaharrek (batez ere India eta Keltiakoek) eta Platondarrek iritxi zuten uste-kizun berera heltzen da Geley jauna: palingenesis delakora.

Gogo hutsak (Lehenengo Batasuna) erarik edo mugarik ez du, ez eta berjakintzarik ere. Mugatuz gero, berjakintza hartuz gero, Gaia sortzen du: Gaia Gogoaren berjakintza hartzea da. Eraldua eta mugatua da, Dena (Gogoa) izaki berezietan banatuz. Beraz, izaki bakoitza Lehen-Gogoaren alde bat da, mugaturik eta berjakintza harturik.

Eta biziialditik biziialdira, izaki oro gero eta mugatzenago, berezitenago da, gero eta berjakintza gehiago edukiz. Bizialdien ingurua burutzean, izaki bakoitza, Lehengo Batasunera bihurtzen da, bizialdiz bizialdi irabazi duen nortasuna zainduz haatik: orduan bera eta oro da, batera.

Ikusten dugunez, Geley-ren ustekizuna Sudre-rena baino pozgarriago da, gure izatean betiere iraungo dugulako itxaropena ez baitigu kentzen. Gure egiazko nortasuna, gure gogo edo arima, ez da hilko gure burmuinarekin batera. Burmuina eta honen oroimenarekin (bi oroimen mota bait dira, Bergson-ek erakusten duen bezala, bata gorputzarekikoa) hilko dena, gure azaleko nortasuna, gure «ni» lurterra da.

Mediuma transan dagoela, bere gorputz, bere berjakintzaz ezaxolatzen da. Orduan bere berjakintzalekoreko izanen da, eta bera eta oro batetan izaki, den

guzia badaki: horregatik da garbi ikusle edo araugaindiko ezagutzale.

Baina urrutiago Joan gaitezke bide hortatik: esan dezakegu nornahi, medium ez izanik ere, bere gozputzaz eta azaleko nortasunaz ezaxolatzen delarik, bere egiazko nortasunera bihurtzen dela, gogo-hutsezko izanean: hala nola lo dagoelarik. Haren ametsek (Geley-ren berjakintzapetiko arrunta ez dutenean), gorputzarekiko berjakintza-petikoan dute beren jatorria, telepati eta metagnomizko gertariak ospatzen dizkigute sarri, batipat goizalderako ametsek. Bai eta ere, Jung-ek aurkitu dituen «goi-eredu» (archetypen) direlako gizaki guziekiko mito edo ereduak: guziekiko berjakintza-lekoretik baidatoz, Jung-en esanetik.

Fenomenuok erakutsi iduri dute, ukigaiatz ezaxolatzen garen aldi guziz geratu eta den guzia batetan gabela, medium, transaratua bezala. Zer du mediumak guk baino gehiago? Guk baino berjakintza-lekoretiko sail haundiago bat berjakintzara dezake, deus ez besterik.

Geley-ren izadi ikuskerak balio duena balio du... Dena dela iduritu zait aski ernegarri zela irakurleari aurkezteko, gizanortasunari buruzko beste bi teoria nausien ertzean: burmuinarekin batera hiltzen

dela dioten ukigaizaleen ustekizuna, eta, gorputza hilik ere, batere aldatu gabe jarraitzen duela daukaten Gogozale horien iritzia.

# NERE SINESTEA

Ariman sinesten dut -bere izen arrunta eman behar baitzaio-; erran nahi dut izaki bakoitzean alderdi psikiko bat badagoela; konbentzitua nago, eta materiazale mekanizaileek diotenez bestalde, *psukhê* hori ez dela ekaiaren gain-fenomeno bat abere eta gizakentearentzat, baina aitzitik, fisika-kimika aldaketek oso bestelakoa, bere izate barnatsu eta sakonean. Nere ustez, parapsikologiako ikerketen bidez, gisa batez edo bestez, hori probatu izan da. Esate baterako, erran genezake arima errealitate bakarra eta bakoitza dela. Bai; nire Arima neure errealitate bakoitza eta bakarra dela sinets nezake...

Metafisika sistema batzuek irakasten dutenaren aitzitik (adibidez, Indietan), arima hori bakoitzarena dela sinestuko nuke gisa batez bederen, zeren ez diodan ukatzen psuke-arteko iduria, baizik kristau ikasbi-dearen aitzitik, gure lurreratzea gabe, gure sortzea gabe izaten zela uste dut -eta benetan bizi zela- eta gure heriotzaren ondotik mundu honetan biziko dela. Ez dut erran nahi, hala ere, metenpsikosian sinesten dudala; erran nahi bailuke, arima bakoitzak gorputz,



batetik bestera tai gabe aldatu behar lukeela, bere aitzineko bizitzako moral merezimenduak haragitze, bakoitza eratuz. (*Karma*-ren ikasbidea.) Kelta druida aintzinekoak ohartu ziren bezala, uste dut gure bakoitzaren arimak bizitza asko dituela eramaten mundu material desberdinetan, hein desberdinetan, baina «garai» absolutorik ez denaz gain, bizitza guziak garai berekoak dira, denbora berean gertatzen, baina hori beste kontu bat da...

Hein bakoitzean, «mundu» bakoitzean, arimak gorputz aragidun bat izan behar du, zeren aldi bakoitzean erran genezake arimaren kontzientzia dela gorputza: arimak bere ezagutza izan dezan bidea (Aristotelek zioen arima gorputzaren iduria, itxura dela). Horregatik, nahiz gorputza gauza iragankor eta bigarren mailako den, Arimari berdinduz nahi bada, sinestari batzuek dagiten bezala, ez da mespretxatu behar hiltzera behartua baldin bada, arima beste plan edo hein batera iragaiten delarik. Aitzitik, gure nortasun ezagutuaren oinarri bezala ezagutarazi behar da, eta hortik («Die Hinterwelter»), hots, metafisikalarien mintzaldien gatik bere izatezko indarrak ohoratu behar dizkiogu, horiek baitira, nahiz azalezko nahiz apaleko, erro sakon eta beharrezkoenak: erran nahi

dut, sexuaren ezagutza eta etniaren kontzientzia. Gogoaren gainbegia gatik, zentzu horien ukatzea ez lizateke engainu eta astakeria baizik, zeren «aingerua egin nahi duenak animalea egin dezake».

Ariman sinesten badut, Jainkoetan sinetsi beharko ote dut? Nere ustez, hauzi oso desberdina da. Nerezat, nere arima aski zait. Halere, bere batasunaren nekeak astun egiten dionean, Jainkoak ohoratzera zirikatua da, nostalgia baten uztak edo klaneko giza handien arimen oihartzuna gure izatearen beste planetan bizitzen direnak balira bezala.

# «NIL IGITUR MORS EST» POEMAREN GILTZA

«*Gaitzak, bizidun guziek dazaguten hil-beldurra du*»

Lucrecius-en neurtitz batetik dauka izena

*(De Natura rerum, 111, 830,)*

Udaren azkeneko arrats bat da. Uda, bizi betearen aroa alegia; engoitik nabarmen da haatik laster dato- rren udazkena, hil-aroa. Karriketako haurrek, nola ere bait, ez dute jostatzeko gogorik; iduri luke dagoneko badakitela beharko dutela behin zahartu eta itzali... Aldiz, etxeen aitzinean elkarturik dauden maitaleek ez dute eiki gogoan guzien zahartu eta itzali beharra; beren elkar-maitatzeaz besterik ez dute ohart, gauza- rik beharrezko eta egiazkoena zaie maitatze hori... Jadanik ordea, poetaren bihotzean sartu da duda bat: ikusten dituenok oro (etxe, haur, neska-mutil) bere begien, bere zentzuen iduripen bat baizik ez balira? Ilunabarra da; iluntzeak, gauzen itxura lausotzen due- larik, badarakar gogoeta bakan horren buruan hartze- ra.

Baina ez du onartzen, hortarako ez bait da oraino zori. Jarraitzen du gauzak egiazki hor direla sinesten, bere zentzuek somatzen dituzten bezalaxe. Hor-direla heriorako! Gaua iguriki eta elkartu diren maitaleek ez dute, ez, etorkizun herioa gogoan, maite-lillurak debekatzen baititu gizon guziak -naiz landugabeak, naiz landuenak- beren bihotz zolan, beren bihotz ondoan ezagutzen duten hilbeaharrearen abotsaren entzute-tik, bele beltz iragarle batena antzo. Alta egia da: etorkizun herioa bizidun guzietan gorderik dago; gazteenek, gaztetasuna bera iduri dutenek ere beren aragian dakarte, har jalea fruituan den bezala.

Olerkaria bakarrik dago bere gelan, gogoeta goibel hoik lagun. Gau mina da. Are beldur gehiago damakio ilunak, eta ikaran jartzen dute gauazko hotsek. Erranen luke zerbait badela gelako ilunpetan, hari mintzatu nahia. Zer ote? Hil berri baten iratxo edo arima, gorputzaren ganik berezi ta nekeetan? Hain izitua da, non hasten zaion, gaztaroan bezala, bere orai-ko sineskabea gatik, norbait den Jainko bati oihuka, urgaitze-galde. Haren jopu izatera ere lizake, beldur izugarri hau ken lezaioken ber... Baina norbait den Jainkorik ez zaio agertzen; bakarrik da beti; deuserako ez du izan bere hel-eskatze eta erdi-sinestea...

Lehen hirur ahapaldiek eroria «tan» duate: zarta hots astun hortaz gogoratu nahi izan dut bizidunaren antsia mundu lazgarri hontan galdurik izatez, heriora-ko hor izatez.

Poeta, gogoetatuaren ariaz, jartzen da emeki emeki lo-antzeko egoera berezi batean, Okkultisten «bigarren egoera», orduan bait dago gizarima bere egiazko izanean. Sorgortzen zaizkio atzaraldiko Oroimena eta Adimena -German zaharren sinestean, nor-bait- den Jainkoaren bi bele hegazu zaindariak bai eta ahaztutzen du bi men hoiek gogoratzen zioten gauza guzien hil-behar hura. Itzaltzen dire buruan zerabilzkin pentsa hitzak: gauzak ulertu nahiz ematen dizkiegun izenak. Uste baitugu, izena jakinez gero, gauzaren izana ere ezagutzen dugula... Baina egiatan, gure eza-gutza oro hitz-keta, bat baizik ez da eta ezerek ez digu ustea zilegi egiten, hitz hoien atzean izan ere zerbait badela.

Gero ta murgiltzenago da olerkeria bigarren egoera hortan, gero eta bake ta bozkario handiagotan dagoela. Bere baitaratu da, egia aurkitu du bere baitan. Erdainatzen ditu orain aztertzen ohi zituen asma-lari sakonen lanegin eta iritzi ezberdin guziak: bazebil-tzan, bakoitza bere bidetik, munduaren arauen bila;

baina munduaren ezagutza aizun izaki, arauok ere aizun izan behar... Poetak aldiz uzten du, gezurrezko jorik, nonbaita eta noiz baita dauzkan mundu-ezagutu hori, eta aldi aldeetarik lekorean zorabioan dagoela, badantzu bere baitan hizlari ez bere goiko edo kanpoko Jaun Egile bat, baizik bera ere den Arima orokorra.

Gizon gehienek ordea diote munduko biziari, beren mundutar nortasunari, ardura oro eman, eritasun bat baizik ez duten arren delako bizi hori, hil-beharra berarekin ekarki. Behin ere ez dire beren baitaratzen ezagun ahal lezaten berak eta oro den Arima, hau da, Egia bakarra. Orduan balakikete iduritze, bat direla mundua eta munduan izatea, eta hil-beldurra joan lakieke, iduripen baten herioa bera ere iduripena bait da.

Poetak ediren du egia handi hau azkenekotz. Segurrean badaki oixtion ikusten zituenak oro bere gogoaren amets bat zirela soilik, izaterik gabeko. Atsegin batean dago, lorrezko amets hartarik askaturik eta egiazko izatea beraren baitan aurkiturik. Zer garrantzi dauka bere «gizakideek» amets zaharraren irauteak bizitze, eta hiltze, badelako sineskerian? Bere-haiekiko har-emanak ere iduripen hutsa direla ta...

Olerkiaren azkenean eman dudan «'la» jario hots zabalak azaldu nahi du poeta, gezurrezko soma-gauzen mundu mugatua utzi eta egiatan Dena-ren itsas handi mugarik gabean ondoratzera doala.

# SORGINEN JAINKOAK

*The God of the witches* tituluarekin agerrerazi zuen, duela zenbait unte, Margaret Murray eskoizar daimonologistak, laster ospatu zen liburu bat, eta frantseserak izen beraren pean itzulia izan dena (*Le Dieu des Sorcieres*, Denoël 1957). Liburu hortan, egi-leak Euskalerriko sorginak maiz aipu ditu, eta horren-gatik, bai eta aldizkari hontako idazkideak hasi direla-kotz, gure sorginekin, nik ere artikulua labur hau egin nahi ukan dut gai labaingarri hortaz.

Alabainan, Miss Murray eta beste sorgin-jakitun (hitz berri hori barka bekit) batzuen lanetarik ageri denez, euskaldun sorginak zenbaitek uste luken baino hanitzez ezagunago eta ezagutuago dira atzerriko jakintsuen artean.

Jakintsuek ikusgune askotarik so egin diezaiekete sorginei. Frantses gehienek, beren betiko ohiturei jarraikiz, materialismoaren edo, berek diotenez, positibismoaren aldetik begiratu nahi diete; erran nahi dut, gizarte-jakintza edo, soziologiaren eta psiko-patologiaren ikusgunetik, Michelet-etik hasirik (*La Sorcellerie* liburu famatu hark ere XVII-garren mendeko



lapurtar sorginak aipatzen ditu) Jean Palou-raino (Ikus, haren *La Sorcellerie.*, P.U.F., 1960). Horientzat, Erdi Aroko gizarte hierarkizatuari oldartzen zitzaizkion nekazari eta bertze proletari behartsu batzu ziren sorginak, hots, «kontestari» batzu *avant la letre*; bertze zenbaitentzat, aldiz, zainak edo gogoaa, eri zituzten jende dohakabe batzu baizik ez ziren: histeriko, neurotiko, eta abar. Mende ilun haietako Eliz-gizon eta erregeek ziorik gabe ankerki pertsegitu zituzten (cf. Rolland Villeneuve-n lanak, *Gilles de Rays*, Denoël, 1955, eta *Dictionnaire du Diable et de la Démonologie*, Marabout, 1968 eta bertze hanitz).

Interesgarriago da sorginek egiten zituzten «mirariak» -orduko hauzi-agiriei sinetsi behar bazaie- ukatzen ez dituzten beste zenbait, jakintsuren pentsaera. Ez dute naski uste delako mirariak Debru txarraren edo gizagaindiko beste izaki batzuen laguntzaz egiten zirenik; baina, jakintsu horientzat, gogozko edo izpirituzko ahalmen berezi batzu zeduzkaten jendeak ziren sorginak, eta sorgintza, beraz, parapsikologiak iker-tzen dituen gertakarien alorrean barna sartzen du: sorginek, beren nahi hutsez, edo erabiltzen zituzten droga eta gantzugailuen bidez, beren burua trance bezalatsuko izaera batean ezartzen zuten, eta orduan

metagnomia, psikokinesia eta horrelako beste fenomenuek agertzen zituzten. Ikusgune, hortarik, balio luke ikertzea zerengatik sorgin omen zirelako metagnomos horiek herrialde zenbaitetan besteetan baino ugariago agitu edo agitzen diren Mendeetan zehar: Euskalerrian, Lotaringian, Normandian, Eskozian, Finlandan eta, batez ere, Goi-Asiako eremuetan Tibet eta Mongoliako buddistasunari bere kutsu berezia, ematen diotenak hango «xaman» eta «beki» deritzaien mago famatuak baitira (Tantris-tasuna edo *vajrayana*). Baina luzeegi litzateke sorgintza parapsikologiaren ikusgunetik hemen ikertzea, beste jakintza hau gure «latin» herrietan oraino ere guti ezaguna delakotz, eta behar bainuke, beraz, zer den eta zer meto-  
duz ari den lehenik erakutsi (sorgin metagnomosen ohikunde trance-eragileez irakur: Mircea Eliade, *Le chamanisme et les techniques archaïques de l'extase* Payot, 1951).

Azkenekotz, bada hirugarren ikusmolde bat jakintzaren aldetik sorgintzaren ikertzekotz: hura da Euskalerrri eta Europa Sartaldeko beste sorginen baitan giristinotasuna etor-aitzin zeuden sineste eta erlijio zaharren begiratzaileak ikusten dituztenena. Alde hontarik ere badira gure sorginez ikerpen oso on eta

sakonak eginik, hala nola Julio Caro-Baroja, «don Pio» handiaren iloba eta diszipulu den etnologoaren liburuetan; aipa ditzadan haren *Algunos Mitos españoles y otros ensayos* (Editora Nacional, Madrid, 1944), eta, oroz lehen, *The World of the witches Weidenfeld and Nicholson* (London, 1964).

Hori bera da, hain zuzen, gorago aipatu Margaret Murray-ren ustekizuna. Haren araura, Europa Sartaldeko sorginek, eta Euskalerrikoek ere haien artean ez zuten giristinoen eta juduen gaizkina edo deabrua jauzesten, baina bai giristinotasunaren aintzineko betakortasunaren jainko paganoa, aker baten irudian (Galiako Keltak *Cernunnos*: adardun, erraiten zioten); baina, emeki-emeki, giristinoak hasi ziren Satanas gizon-aker baten itxuran ikusten, ustez beren herritar pagano egon zirenen jainkoa beren Debru nausia zela. Badirudi Miss Murray zuzenean dagoela; alabainan, gure sorginen bilkuretako «debru» adardunak ez du Juduen eta beste goizerritarren gaizkinaren egite handirik; aitzitik, Jentilen jainkoren batzu go goratzen ditu: oroit gaitezten akerra zela, aspaldiko Helladan, Afrodite sexu jainkosaren zamaria, bai eta Germanen mitologian gudu eta indarraren jainko den Thorren abere sagaratua ere (Pio Barojak, *La Leyenda de Jaun*

*de Alzate* eleberrian, euskaldun jainko zahar Ortzi Germanen Thorrekin idurikatzen du). Euskaldun sorginek aker beltzari zioten jaurespenetik dator haien biltokiari *ake(r)larre*, akerlanda eta abar izentzat emaita, eta jaurespen horren oihartzun bat aurkitzen dugu, naski, Gipuzkoako kantu zahar honetan:

*Donostiarrek ekarri dute  
Getariatik akerra  
Kanpantorrean ipiñi dute  
Aita-Santua zutela...*

Gainera, Pireneotako harri-hitzetan *Aherbelste* agertzen zaigun jainko-izena, zenbaitek uste ukan du euskarazko aker-beltz zela; baina hizkuntz jakitun gehienek ez dute itzulpen hori onartzen.

Uste izateko da, bestalde, gure sorginak, ez bakarrik Ortzi-Thorr, baizik Jentilen pantheioneko beste jainko eta daimunak ere akelarrean jauresten jarraiki zirela... nahiz inguruko girstinatu berriak -aintzina jainko izate horien baitan sinesten zutenak- Semiten Jainko bakarra jaurestera heldu (Hala ere, askok badu sinespen zahar haien hondarrik, sinespen zahar horiek sekula ez baitira osoki galtzen). Hori garbi ageri da

Irlandako ohituren ikertzetik: alabainan, apez eta fraide izpiritu zabal batzuei esker, «Sainduen eta Jakintzuen Uharte» horrek Sartaldeko herrietan bakarra begiratu du, hein batean bederen, bere literaturan, Erromatarrek eta Kristoren misionistak jin aintzineko mitologia; horrengatik, ezin preziatuzko jakilegoa ematen digu aspaldiko Europatarrek zer erlijio zedukaten jakin nahi dugunean. Bada, Irlandako mito eta ipuinetan ikusten ditugu fede zaharraren apez *druida* izenekoak -sorgin eta mirarigile bezala ageri- aintzinako jainkoak zerbitzatuz nola bizi diren; nahiz beren herritar gehienak giristino bihurtuz gero ere.

Jainko zaharrok, aldiz, lurraren eta lurtarren nausi handitsuak izanik, orain lurpeko leizeetan, harpeetan, karbeetan, megalithos-petan, ohituraren araura bizirik diraute, Euskalerriko lamiñak, Gales Herriko *tylwyth teg* («*The fair people*» = jende politak), Armorikako *korrigan*, Alemaniako *Heinzelmanchen* eta Iparraldeko *trollak* iduri.

Julio Caro Barojak, *La magia en Castilla durante los siglos XVI y XVII* deitu ikerlanean (in *Algunos mitos españoles*), zuzenez ohar-erazten du Euskalerriko sorginak ere, Gaztelakoez, eta El-Andalus-ekoez bestela, ez zirela soilki azti ala mirarigile, baina oroz lehen

mitologia baten begiratzaille, jainko eta jainkosa zahar-  
rren apez edo ema-apezak izan balira bezala; eta  
azkenekotz, ulergaitz ez den biraldakuntza baten  
-ondorioz, berak gizagaindiko izate batzu izatera  
heldu direla, gure Zuberua herrian ni ene konturatu  
naizenaz: orain han, leheneko «belhagileak», nahiz  
izenak ez duen belar egilee besterik erran nahi, hau  
da, belarrekin eden eta filtroen egile, jendeen ustean  
lamiñekin eta euskal mitologiako beste daimonekin  
gutxi edo hanitz, nahasiak dira.

Dena dela, gure sorginen inguru diren mitoek har-  
tze, dute ikerketa eta begira ditzagun artoski, gure  
mitologiaren zati zabal bat moldatzen dutelakotz, eta  
gure mitologian datzalakotz gure egiazko Ohitura, ez  
sasi-folkloreko «gure tradizioe zahar» ospetsuetan  
(berri xamarrek, eta kanpotik etorriak gehientsuak).  
Euskaldun bakoitzak, bere uste, filosofiko zernahi iza-  
nik ere, ohitura horietarik, mito horietarik, aberats  
ditzake bere burua, bere gogoia eta bere ikusmena;  
bai eta euskaldun idazle eta antzelariek ere bertan  
aurki dezakete beren langintzaren iturburu nasai bat:  
Finlandan, erraiterako, Kalevala-ko mitoetan Sibelius  
batek soinugintzarako, Kehonen batek irudigintzarako  
bere gaiak ediren dituen bezala. Ez, dugu, geuk, zori-

gaitzez, Kalevalaren heineko mito-bildumarik sortu orain artean; beharbada. Lonrot-en neurriko poetarik agitu ez zaikulakotz.

Halarik ere, gure elezahar eta ipuin zaharrek darabiltzaten mitoak etnologo euskaldun bihoztoi zenbaitetek gartsuki bildu eta biltzen dituenak, Azkuetik has eta gure egunetako Aita Barandiaran eta Caro Barojaraino (mugaz hunandian aipa dezadan Pierre Duny-Pétre-ren Basa fauna, in «*Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*» num. 92-93 eta 94) landurik ez izan arren, ez dira oro har beste zein nahi sartaldetar herritakoak baino gutxiago edo gutiesgarriago, ikertzaile zenbaiten ustez Harriaroraino garamatzatenaz gero.

# ABERTZALETASUNAREN INGURUAN

Menderdiaz goiti dala gaur Arana-Goiri'tar Sabin'ek eusko abertzaletasuna irazan zuela, igikun orri buruz apur bat gogoetatzeko ordu dugula iruditu zait: zertan dabilen orainaldian, zein geralditarantz dijoan, eta abar.

Arana-Goiri'k Euskadi itz-berria asmatu zuenean, zazpi euskal-eskualdeak -Frantzia eta Espainia aldekoak- gogoan zituen noski, zazpiak izkuntza bateko, enda bateko, gizalanbide bateko dira-ta. Auzo erriek jarri diguten mugak ezin bereizi du bat-izate ori. Baina Arana-Goiri bizkaitar izaki, eta Bizkaian bizi izaki, Bizkaitikan zion abertzale igikunari abiadura eman. Andik landa Gipuzkoara edatu edo zabaldu ba zan ere, bai eta Araba eta Goi Naparroara, Iparraldeko euskal eskualdeak ez zituen asko ikutu igikun berri orrek. Beraz lenengo abertzaleak Espainiarekin euki zuten auzia edo. Obeto esan, Espainia euki zuten etsaia.

Ori ezinbestekoa zan, yakina. Baina Espainiari arrotuz, Frantziari buruz ingaratu zituten begiak eusko-abertzaleak. Zio onak ba zituzten ortarako,



ezpairik gabe, Frantzia Askatasunaren Erria baita -berak aski gora aldarrikatzen duanez- Euskadi ere lagunduko zuela askabidean uste izan zuten Euskaldunak...

Ustea ustel biurtu dala agiri da orain. Beren itxaropen edo iduripen batzuk orraztu eta garbitu bear lituzketela abertzaleak ba dirudi beraz, garbitze lan orren ondotik obeto ikus dadin Euskadi gaizkatzekotan zer egin diteken.

Frantziak eusko-abertzaleak batere lagundu ez dituenik ez dut esango. Espainitar anai-gudaren ondoren atotsi ditu ta aterbe eman die. Bainan ez ditu lagundu Euskaldun ziralako «faszismuaren zinopak» ziralako baizik. Frantzitar politikaren araura, eusko abertzaleak «gori» ziran eta, orrengatik, orduko Frantzes gobernu ezkertarraren gogarako. Frantziako eskubitarrak, aldiz, Francoren adiskide eta Euskaldunen arerio gertatu ziran, oiek «gorri» ziralakoan, ain zuzen ere. Guk badakigu Euskaldunak ez zirala ez gorri ez zuri, bainan euskal-endazale, eta euskaldun egoteko borrokatutakoak. Gertakizunek ala nai izanik, eusko abertzaleak Espainitar Erkalaren aurka gudan arkitu izan ba lira, orduan, vice versa, Frantzes esku-

bitarrak gure adiskide ta ezkertarrak gure arerio ikusi-ko genitun...

Ots, Frantziaren etsaigoa edo adiskidantza ez dagokio euskal-endari, baina politikatik dijoa beti. Nola izan leike bestera? Frantzesek enda bat zer dan ez dakite; jakin ere ez dute nai. Frantziako politika gizon guztientzat «Frantzia Ekintzako» Murrastarretatik asita demokristar eta sozialistearaño, abertzaletasuna asmo uts bat baizik ez da: batzuentzat Frantzia Erromaren alaba geiena da; besteentzat, demokrazia-aren sorteria... Baina ez batzuek ez besteak odol-ara-gizko gizonaz, egizko gizonaz, enda bateko dan gizonaz batere ez dute ardurarik bere errietan.

Ez da beraz arrigarri Europa-Erdiko ghettoetako seme batek, edo Afrika Beltzeko giza-jaleen biloba batek Normandia edo Bargondiako aurren eskubide ta eginbide berdinak baldin ba ditu erri argitu eta aurreratu ontan, Erkal Bat, eta Zaitezinaren dogman sinisten duen ber. Ori Frantzitarren barru-auzi bat dala badaikit, eta ez dugu bertan sartzerik. Baina enda asmoa ain osokiro arbuiatzen dutelako, Frantzi-barruko enda minoritateak oinpetzen dituzte Frantzes erri-ketariak; Breiztarrak (edo Bretoinak, naiago ba duzute), Flandestarrak, Elsas-Lotharingarrak, Korsekarrak

eta, azkeneko, Laburd, Be-Napar ta Zuberoko euskaldunak.

Jakin bezate eusko abertzaleak eta, batez ere, euskaltzaleek, oik baitira egizko abertzaleak, euskera betiere Ipar-Euskadiko ikastetxeetatik at atzitzen duela Frantziak Ego-Euskadiko ikastetxeetatik at Espainiak atzitzen duen bezelaxe, «Euskal-Frantzesak» abertzale sutsu beti ez gerala badakit, eta mendiz bestaldeko gure endakideek euskaldungoa izkilluz zaitzen zutelarik, guri ori dantzaz eta kantuz egitea aski zitzaigun... Ala ere, Euskaldun guztiok anai gerala egia ba-da, ta ez itzu-irudi soil bat, Frantziak euskaldungoari egiten dion iraña, Laburtar, Be-Napartar ta Zuberotarrei izkera-askatasuna kenduz, Euskaldunak orok ikutu bear ditu, Espainiak bere meneko Euskaldunei egiten dionak oro ikutzen gaituen bezala.

Breizerarekin, flameserarekin, edo beste edozein minoritate bateko izkuntzarekin Frantzitarrak ala-ala jokutzen dira, jakina. Europako errialde guztiei gainbegiratu ondoren, Frantzia ta Espainia dirala erririk zentralistenak oartzen gera. Biok berdin nabari darakuste Latinen edo, beintzat, Latin-berrien ezaugarri dan beste enda edo kulturen ganako erdeinu ori. Nai ala

ez, biak berdin euskaldungoaren, bai enda-minoritate ororen etsaitzat jo bear ditugu beraz.

Gure etsaiak nortzuk diran dakigula, nora itzuliko gera adiskiderik arkitzeko? Nire aburuz, beste erri minoritari oriek ditugu, ain zuzen ere, adiskidetzat eta lankidetzat artu bear, gure zendagoa zaitzeagatik egiteko dugun gudan. Benetan diot: erri andi baten edo besten jarri zituzten itxaropenak utzi bearko dituzte eusko-abertzaleak; erri andiengandik ezer ez dezakegu itxaro. Europaren mapa bati begiratzen ba diogu, orde erri andi gutxiz-geienetan enda minoritateak daudela ikusten dugu, gure arlora oinpetuak, geure asmatasun -amets eta asmo berdiñak dituztela-, ainbat non minoritate guztiok bat eginda, erri andi endekatuak baino andiago ta indartsuago gertatuko baikera. Espainitar guda aurretik Euskadik Katalunia ta Galiziarain egin zuen *Galeuzka* dalako alkartza orain zabaldu bear dugu, Frantzia ta Europa guztiko erri minoritariak oro artan sarreraziz.

Ba dugu lan, egiteko ortan. Bainan ba dugu ordu, lanari lotzeko. Enda-asmoaren arerioekin alkartuz ezer ez dugu irabaziko endazale baikera gen Bakarrik egote ere ez zaigu balioko. Eusko abertzaleak, berriz beinera gogaide ez ditukegun erri andietako politike-

roekin flirtatzen ez dutenean, beren artean kokatuegi-rik egotera ekarriegi dira, nik ikusi dudanez. Txundigarri da beste abertzale igikunen aldera erakusten duten jakin-eza... Esate baterako: 1951-gko Azilan oraindik, breiztar abertzale bat (Andrev Geffroy) eriotzara epaitu Frantzitar auzitegi militar batek; ez euskal aldizkari bakar baten ere, ez dut auzi orren aipurik irakurri...

Egia esan: Euskaldun gazteetan batik-bat, jakin-min geixeago nabari diteke guda anaitzat artu bear genituen beste aberri oinpetu oriei buruz; zenbaitzuk dazaguzkit breistar abertzaleekin ibiltzen diranak, folklore jaietan eta orrelako batzarretan, bai breizera pitin bat ikasi dutenak ere. Ori, ordea, ez da naikoa. Ez soilik Breistarrek, baiñan Frantziako beste enda minoritateak -Flandestar, Korsekar, Elzastar, Okzitanitarak, e.a.- Baita Sartalde-Europa guztietakoak -Bretainia Andiko Keltak, Nederlandako Fristarrak, Italiako Sialitarrak e.a.- abertzaleen lagunarte ortan onartu bear ditugu, aspaldion Katalanak eta Galizitarrak onartuak ditugun bezala.

Ene gardiz, Paris au toki egokia genduke orrelako «Aberri Oinpetuen Alkartza» edo liga bat eraikitzeko, ugari baitaude emen minoritate gotxizgeienetako semeak. Oraindanik, eusko abertzaleak ar-emanketan

sartzera saiatu bear lirake oriek guztiekin, erri-arteko batzaldiak antolatuz bai eta, eginkor ba'litz, aldizkari-txo bat argitaratuz ere, erri-arteko alkar-laguntza berri orren adierazke litzakenik.

Eusko-abertzaleoi zer derizkiozue?

# BERTERRETXEN KANTUAZ OHARPEN BAT

Eukaltzale gehienek gogoz ba dakite dudarik gabe *Berterretxen Khantoria*, Zuberoako eta, irizlari zenbaiten ustez, Euskalherri orotako eresi zaharretatik ederrera, Mitxelenak bere Euskal Literaturaren Historian idazten duen bezala: «*Oido de labios de un suletino, con su sobria melodía y su ritmo grave, es un auténtico eco del pasado, milagrosamente conservado en la fragil memoria popular*» (p. 42). Egoki litzake soinu-argitaldari batek disko batean ezarririk eman ba liezagu, Zuberotar batek behar den moduz kantaturik, azken urteotan bain ugari argitara ohi diren baserritar folklorekerien ordez. Bainan ez da hau ene mintza-gai.

Euskalherri guztian hedatu den 15 ahapalditako versionea J. D. J. Sallaberry-ren *Chants populaires du Pays basque* (1870) delako kantu-bildumari zor bide diogu eta euskaltzale mauletar honen gandik hartu dute gero argitara duten beste euskal-kantu bildumagileek, hala nola Jon Gorostiagak, Aita Onaindiak, Lafitte Etchemendy-k e.a. Nik Zuberoan ene etxekoen edo auzoen gandik orain artean entzun izan dudan

versioneak ere, gizalditik gizaldira ahomihiz heldua ta ez liburuetatik hartua izana gatik, ez zuen Sallaberry-k dakarren versionetik arte handirik, kantatzalleak hitz edo neurtitz bat-edo-beste aldatu eta, zenbait aldiz ahaztu egin zitzalolakotz edo sekula jakin ez zuelakotz -ahapaldiren bat aldera utzi gora behera.

Bainan egun batzu direla, ene aita eresi zaharra kantatzen ari zelarik, ohartu naiz 13 eta 14garren ahapaldien artean gainerako ahapaldi bat emaiten zuela, nik behintzat ezagutzen ez nuena eta Sallaberry-k ez dakarrena. Berterretx bera da mintzo bertan eta honela dio:

*«Ezpeldoian nintzarian  
Janak ba nian zer egina:  
Haritx bati esteki eta,  
Bizia han galdü nian».*

Aitak esan didanaz, bere haurzaroan ikasi, zuen Berterretxen kantua Allande Bidegain, Sohüta-Gollart-eneko etxeko-jaunaren gandik. Allande hori, ene amonaren ahizpa batekin ezkondua zena, 1850-garren urte inguruan jaio omen zen; Zuberotarra zen, bainan ez dakit haren leinuaren jatorria nongo zen. Noizkoa



da, ta nork egina, kantatu ohi zuen ahapaldi gainera-  
tiko hau? Kantu originalaren egileak berak, ala hurren-  
go gizaldietako bertsolariren batek, askotan gertatzen  
den bezala bertso herrikoietan? Hizkuntzatik ez da  
ezagun, jakina, oraingo zuberotar hizkelkian emana  
baitago.

Halaz ere, hitz-altxorraren aldetik, hitz ohargarri  
bat dakar ahapaldi horrek: bigarren neurtitzeko *janak*.  
Nik ez nakien zer esan nai zuen (ez da «jan» aditza,  
jakina), sekula ez bainuen orain artean entzun, ez eta  
inon irakurri. Parisen galdekatu ditudan Zuberotar  
batzuek ez zuten ezagutzen eta Lhandek eta Larras-  
ketek ez dute beren hiztegieta emaiten. Bainan, ene  
aitak dionaz, zuberotar hitz jatorra da ta «hatik» (=  
hargatik) bezalatsu erabilten omen da: esan naiduke,  
beraz, edo «halaz ere, orraitino», edo «egiaz, bene-  
tan». Adigarritzat bertso jostagarriok eman dizkit:  
«Janak eztüta trempü hun / Ardû hunez ase ondun»;  
eta oharpen hau idazten hasiz geroz Beñat Mardo-ren  
kopla batean hatzeman dut: «Lau egun Barkoxen,  
janak, / Dütinak igaraiten / Entzün gabe erexiak /  
Segür ezta phatitzen...». Nire susmoa da *ja-* errotik  
datorrela; beharbada «jadanik» da, laburturik? Azken

hitz hau, ordea ez dugu Zuberoan usatzen, orain behintzat.

Beste ikusgune batetik ohargarri zait ahapaldi berri hau: Zuberoako jendearen ustez Berterretx nola hil zen, nola erho zuten, jakin erazten digulakotz. Haritz bati esegirik bizia galdu omen zuen zuberotar aitor-sumeak. Baina ez zen noski urkatua izan: ba dakigu lehenago, kristau herri gehienetan -Islam-lurretan ez bezala- gizon odol-garbikoak ez zituztela urkatzen hiltzera epaiturik zirenean, baina lepo egiten, gaizki itsusiegirik egin ez ba zuten bederen (eta eretz hortatik Zuberotarrak oro aitor-semetzat joiten zituen herriko Foruak). Beaumont-eko kondeak ez zukeen halaz ere beldurkunderik izango bere etsai amorratuari urkamendiko herio lotsagarria paira erazteko, baina kantuaren hurrengo ahapaldiak diosku: «Ezpeldoiko alhabak... Berterretxen odolirik ahürkaz biltzen ari da». Beraz zauri batetik odola ixuririk hil zen Berterretx, ez itotzez.

Heriotze-mota horrek gogoratzen du bitxiki erro-matar konkistaren aurreko Galian usantzan zegoen giza-sakrifizio bat, Lukan poetaren eskoliasta bati eskerrak ezagutzen duguna. Alabainan latin poeta horrek Galiarren hiru Jainko nausiak aipu ditu bere

*Pharsala*-n: Teutates, Taranis, *-horrensque feris altari-bus-Esus*» (=«Esus ikaragarria, basa-aldare batzuen bidez...», ematen dutela, alegia) eta eskoliastak dio, neurtitz horren azalgarrizat: «*Hesus Mars sic placatur: homo in arbore suspenditur usque donec per cruorem membra digeressit*». (= *Esus* Marti honela ematen da: gizon bat zuhaitz batetik zintzilikatzen dute odola galduz gorputza akitu artean). Egia da beste lekukotasun zehatzik ez dugula sakrifizio mota horren gainean, eta uharteetako Keltek ez zutela eza-gutzen, dirudenez, Galesherriko ta Irlandako mythologiak ikertzetik ageri den araura. Bainan ba dakigu eretz askotan beren gisako ohiturak eta ohikundeak zeuzkatela lehorreko Keltek. Onhar dezakegu, beraz, Galiarrek -Germanen edo Germaniako Kelten eragintzaz beharbada?- *Esus* beren baso ta gudu-jainkoa ohoratzea gatik gizonak sakrifikatzen zizkotela, zuhaltzei esegi (zuhaitzak, eta batez ere haritzak, Kelten arbola sagaratuak, baitziran Jainkoaren basaaldareak), ez ordea lepotik urkaturik bainan besoetatik edo gerritik loturik edo nola ere baitzen, eta gero zau-rituz, non eta nola ez dakigu, hala non biktimak odol-husturik hiltzen baitziran.

Euskalherrian ere aintzina holako gisa-sakrifizioak izan ote ziran, oihanetako jainkoren bati eskeiniak; gero, herria kristautu ondoren, erligino-kutsua galdu ba zuten ere, usantzan egon ziratekeanak hiltzera epaitutakoak erhaitekotz? Berterretxen kantu osotuak hori uste izaitera haizu uzten gaitu, ene aburuz. Ez da ahaztu behar, Barandiaranek gure folklorea ikertuz idoro duen bezala, Euskaldun zaharrek Indi-europarren kulturako elemendu hanitz jesan zituztela; eta auzo izan dituzten Indi-europarren artean, Latinen aurretik, leihorreko Keltak izan dira, ez beharbada lehenak, baina bai kultura landuena izaki beste herri bati gehienik eragin zezaioketenak. Ez litzake beraz handi aspaldiko Euskaldunek Kelten erliginoa parteka jesan ba lute, ez noski druiden metaphysika intelektuala, baina herri komunaren polytheismuko itxurak eta mythoak, hala nola baso eta gudu-jainko bat giza-sakrifizioz ematen zutena.

# GONCOURT SARIA DELA TA

Aldizkari honen irakurleek ba dakite noski zer den Goncour saria: Edmond de Goncourt frantziar eleberrigilleak bere ordenuari halaerabakirik eta dirua hortarako utzirik, Goncourt-Akademia deritzaion idazle-batzarrak urtero ematen dio sari bat, auteskunde baten ondotik, irudimenezko lanegin bat delako urtean argitara erazi duen idazle berriren bati 1905-garren urteaz geroztik hala sariztatuak izan dira frantzeseko idazle gailen zenbait eta hain gailenak ez zirenak ere... Ezen urteko sariduna aukeratzean ez da kontuan artzen zein erritakoa den haren lana frantzesez idatzirik dagoen ber, eta horrengatik, jatorrizko Frantziatarrez gainera, atzerritar batzuek ere saria jaso dute bein baiño geiago, batez ere azkenengo urteotan, bai ta heien artean, frantzesaren lehen izkuntza ez izaki, nolazpait zerabiltenak ere. Esaterako, joan den urtean Schwartz-Bart (on dizutela!) delako batek zuen jaso *Le Dernier des Justes* eleberria gatik, «Zuzenetako Azken» hori ez frantzes zuzenean baiñan mordollo batean idatzirik izan arren. Halaz ere Frantziako initelektual ispiritu zabalek gogo onez onartu

zuten Goncourt-arren aukeratzea; alabaiñan Schwartz-Bart hori judua da, haren liburuak polonitar *ghetto*-etako siñeskeria bat du gaitzat eta, dakizuten bezala, Frantzian (eta Gaullian halaber) on ta edertzat dauzkate zuzenka edo zeriarka Israeldik datozen Jende, ta gauzak oro: Goizerritik argia...

Aurten, Rumaniatik iges etorritako VINTILA HORIA eleberrigileari eman zioten Goncourt-saria, Azillaren 21-ean, *Dieu est né en exil* («jainkoa erbestean jaio da») bere liburua gatik. Hau ez da noski frantzes txit jori ta akats-gabekoan idatzia, baiñan tira! azken urteotako saridun batzuekin parekatuz Horia ez da hain gaizki ateratzen... Liburuaren gaiaz den bezainbatean, ez-oitua ta gogamen-eragille dela esan diteke haren alde, besterik ez ba da ere: Ovidi latin poetaren egunkari ezkutua bailitzakean ematen du egilleak, poetak bere «*Ars amatoria*» lizuna zela kausa Kaisarren aginduz Geten lurraldera desterraturik zegoenean idatzitakoa; eta kontatzen da bertan nola, Geta basoi monoteista zintzoekin ibiliz eta Beth-Lehemen gertatutako sendagille grezitar metafisikazale batekin itz egiñik, emeki emeki Erromako siñeskeria ta lizunkeriak arbuiatuta jainko bakar berriaren billa asten den Ovidi.

Aldi hontan ere Frantzitar intelektual ispiritu zabalak ontzat artuko zuten bear bada Goncourt-Akademiararen aurkeratzea, naiz haren liburutik ageri denez Vintila Horia ez den bañan kristaua. Dena dela, jakiña zen «zigor-zelai» batean egona zela Rumanian eta horrengatik aintzin-iritzi bat da zuketen haren alde, Judu Kristautu bat zela alegia... Beste puntu bat ba zen haren onetan: Daniel-Rops judu katoliko ospetsuak egin zion itzaurrea haren eleberriari... Baiñan, saria banatu eta bereala, André Wuirmser judu komunistak salatu zuen «L'Humanité» komunisten egunkarian Horia izugarritzko gaizkille bat zela: eskuindarra, eta, geiago dena, nazi-en adiskide izandakoa, eta, geiena dena *-horresco referens*, juduen etsaia. Gure intelektual ispiritu zabalok arritu ta txunditu: juduen zale ez izatea, nola al liteke? Bertan kontuak eskatu zizkioetan idazleari.

Horiak erantzun zuen egiaz eskuindarra zela; ez zuen ukatzen Alemanen aldeko artikulu bat edo beste eman zuenik Rumaniako kazetetan; nazional-sozialistetakoa izan zelako salakuntza, ordea, ez zuen onartzen: altzitik, Codreanu-ren «Burnizko Zaindari»-en politikaren kontrako gertatu zen, eta Alemanek berek bein giltzapean sartu zuten. Bestalde, haren aukera-

tzeak sortu zituen nahaspil ta iskanbillak zirela eta, Goncourt-saria ukatzen zuela zioen. Eta Goncourt-Akademiako burges onek, Wurmer baten alderdikide ta odolkideak ez sumindu naian, onartu dute ukatze hori: aurten ez da Goncourt-saririk izango, beraz -beranduegi da alabaiñan idazle frantzes-hebreutar bat aukeratzeko- baiñan Frantziako intelektual iudu edo kristauak, komunista edo zernai-istak, jabalduak eta zoartuak ditu. Hori zen bearrezkoena.

Denek dakitenez, Frantzia libertatearen jaioterria da Matxinada Aunditik hona beintzat (beren libertateak orduantxe galdu zaituzten erri ta jendakiak kontuan artzen ez ba ditugu, hala nola Zuberoa, Lapurdi ta Be-Nafarroako Euskaldunak...), eta horrengatik beren biotzeko erriari bezala begiratzen diote mundu guztiko liberalek, bai eta mugaz bestaldeko Euskalerritar zenbaltzuek ere: ez al du Frantziako oiñarri-legeak berak erabakitzen gizon guztiak berdin direla ta guztiek beren iritzak fedeari edo politikari dioazkionak ere zaintzeko ta zabaltzeko zuzen berdiña daukabela? Baiñan «auzo eltzea urrez, urbildu eta lurrez...». Hemen gaudenok ba dakigu itz aundi horiek ez direla Ebanjelioko egiak bailirakean artu bear. Besteei ere erakutsiko al die Vintila Horiari gertatuak (kasu bat



baizik ez da eta dotzenaka aipa nitzazke horrelakoak) geu Frantzian libre gerala, beste erresumetan bezala, geronen iritzi beremak eukitzeko, erriko buruzagien iritziekin bat datozenean. Bestela ez. Eta Frantziako buruzagien iritzia hauxe da: baldin gizon guztiak berdin ba dira, juduak besteak baiño berdiñago dirade.

# ENE ARTIKULU BATEN «KRITIKA»-REN ONDOTIK

EGANen 1960-ko 3-6-garren numeroan artikulutxo bat ager erazi nuen urthe hartako Gongourt-sariaz. Gai hori hautatu nuen «euskalfrantzes» izaki Frantziako literatura-alhorrean gerthatuak dohazkidalakat. Bertzalde, EGAN literatura-aldizkari bat baita, iruditu zitzaidan egoki lizatekeala hor publikatzea, euskal-irakurle gehienek Frantziako kulturaz eta bizi intelektualaz axol dutelakotz.

Erran gabe doa, aburu pertsonal bat erakhusten eta hauzi batean pharte hartzen nuenaz geroz, ene artikuluaen kritika baten haiduru nintzala, alde ala kontra. Kontrako irizlariak bi gisatara oldartzen ahai zitzazkidan: edo nik erranak gezurrak zirela erakhusiz; edo, egiak ba ziran ere, salhatzen nuen juduekiko alderdikoikeria gauza zuzen eta naturala zela frogatuz, nik bertzela uste ukhan arren.

Bainan ez dirudi Euskaldunok ba dakigula zer izan behar den kritika. Gehienetan, zer nahi izkiriatzen ba du euskal-idazle batek, edo adiskideek bazterrik gabe laudatzen eta goraiphatzen dute, etsaiek aldiz urrikal-

mendurik gabe phorrokatzen dutela munta gutiko phondu batzuek gatik -hizkuntza dela, graphia dela, etc.- edo, usuago, gure idazlanek oiharzunik batere ez dute iratzartzen, nehork irakurri ez balitu bezala. Zorionezko da, kritikatzaile egiazko bat hatzeman duen idazlea, hori baitu bere langintzan aurrerapen egiteko bide bakharra...

Ene EGANeko artikuluekin, ordea, gauza bitxia gerthatu da: ezin erran dezaket egiazko kritika bat egin izan zaionik eta halarik ere ez da ixilik utzia izan. Aginaga delako bati ez zaio lakhet izan Gongourt-sariaren banatzea aiphatzean erakhusten nuen «anti-semitismoa», bainan prosemita horrek, delako artikuluz kritika egoki bat egiteko orde, hau da gorago ezarten ditudan mugetan barnean eta frogantzak emanaz, jakina -hori onharturen bai nuen- nahiago izan du, «orain zortzi urte duelarik» bertze aldizkari batean publikatu nuen artikulua bat, bai eta nere bertze lan batzu (izenik eman gabe uzten dituenak) oin-harritzat harturik, ene iritzi politiko eta philosophiko, ene ideologia, hots, ene pertsonalitate guztiaren kontra bere bihotza ixuri -ene juduen alderako herra itsusiak zauriturikako bihotz samurra...

Aginagak zuzen osoa zedukan baiki ene leheneko artikulu eta idazlen horiek begiko ez ukhaiteko, eta ondorez ene pertsonalitatearen ez maithatzeko, nihauk harena maite ez dudan bezala, (haren artikuluen irakurtzetik ezagutu ahal izan dudanez bederen, orain artean ez bainuen egile horren entzuterik ere). Bainan, ene ideiak ezin jasanezkoak baldin ba zitzaizkion Aginagari, delako artikuluak argitaratu bai-koz, gauza bat baizik ez zuen egitekotz: orduan bertan, zortzi urthe iguriki gabe, behar zituen bere kritikak artikuluok publikaturik izan diren kazeta edo aldizkarietara igorri, ez EGANera. Segur naiz aldizkari horiek zuzendariak botzik onharturen zituztela... Aginagari eta Aginagaren gisakoei gauza bat ukhatzen diet deplauki, ordea: hori da, orain eta bertze kazeta batean, ene leheneko idazlanetan gainen khondu eskatzea, eta horren gatik ez naiz orai hasiko ene nietzscheismuaren edo berak erran lironez, ene nietzschekeriaren justifikatzen haren aintzinean.

Bertzalde uste dut, hobeki erran: uste nuen, EGAN ezin daitekeala politika hutsezko tribuna bat izan (nik Gongourt-sariaz izkiriatu nuenak politikarekin zerikhusia ba zuen ere, oroz lehen literaturekiko hauzi bat zen), eta are gutiago eztabaida pertsonalen ager-

tzeko lekhu bat. Phondu horri dagokionez, erran behar dut idietako eztabaidak hein batean gustatzen ba zaizkit eta preminazko edukiten ba ditut euskal kulturaren aberatsierazteko, eztabaida pertsonalak higuin ditudala, ene jitez. Ingelesek dioten bezala: *No personal remarks*, urrhezko arau bat dela deritzait gizarteko harremanetan.

Gogozkoenik, ihardetsi gabe utziren nituen, beraz, Aginagak nihauren eta nere gogaideen eretzeko darabiltzan «ez-jakinak, xinplekeriak eta ez-egiak», bai eta humore pisu batez estalitako irain edo laidoak. Edo beharbada, mende ohorezaleago batean bizi ba gina, laido horiek hitz izkiriatuak baino egokiago diren medioez ordain eraziko nituen, ene ohorearen zaintzea gatik... Bainan Aginagaren atheraldiek ororen gaintetik ene herritar euskaldunen aintzinean belzten nautelakotz, eta haien artean nukean fama ona galtzeko zorian iminten dutelakotz, eta bertzalde, EGA-Nen azkenengo numeroaren irakurtzetik khonduratu ahal izan naizen bezala, nehor ez baita nere alde mintzatu hark ixuritako gezurren era laidoen zuzentzekotz, bortxatu naiz nihauk hala egitera. Ahal bezain laburzki egitera entseiatuena naiz irakurleen ez aspererazteko hauzi pertsonal honekin eta uste baitut,

berriz ere diot, EGAN ez dela lekhu egokia horrelako ezatabidentzat. Ez natzaio Agingari mintzo, jakina, baizik fede onezko Euskaldun orori, nahiz ene ideien kontrako datekean.

Lehenik bihotzez argitu nahi nuke zer den Franzian «antisemitizgoa», Aginagak bekatu mortal hortzaz hobendun emaiten nauenez geroz. Orrialde azpiko ohar batean, mordollo filosofiko batez baliatuz Euskalherriko Sartretxea balitz bezala erraiten du berak: «pentsaera horrek beti sasi-abstraktutik konkretura egiten du bide». Ez da hala: erresuma hontan behintzat, eta oraiko demboran, antisemitismuak konkretutik egin du bide abstrakturak (nik ere ber mintzaeran hitz egitekotz...). Erran nahi dut, Erdi-Mendee-tan giristinoen judu-gorrotoa *a priori* egoera bat bazen ere, juduak populu «jainkoerhailea» zirela eta horren-gatik populu giristinoaren ganik bazter uztekoak zirela uste izaitetik sorthua, antijudaismu *theologiko* hori kasik osorik galdu dela, ErdiMendeetako fedearen gal-tzearekin batean; Elizak ere orain kondemnatzen du, San Agobard edo Inozent III bat sekula izan ez ba lira bezala... Antisemitismu modernua, ordea, bertzelako zerbait da: sorthu da, ez Frantzesek Juduen kontra zuten aintzin-ephai baten gatik, bainan emeki-emeki,

Frantzesek ikhusi duten arau judu jin berriak zertara ari ziren. Zehazki mintzatzekotz, antisemitismu hori hasi zen agertzen Napoleon Lehenaren demboran, Frankfurt-eko bankier askenazita batzuen ethortzearekin. Beren sinheskideetarik franko jarralki zitzaizkien hauei eta geroztik Europa erdiko ghettoetako semeok nausituz joan dira Frantziako zereginetan: hastekotz oikonomian; gero joan den mende erditsuan hasirik, politikan; azkenekotz, menderdi hontan eta batez ere gerlatik landa, bizi intelektualean ere (eta Gongourt-sariarekin gerthatua kulturaren alorrean nausitze horren seinale bat baizik ez da). Ongi ba dakit Aginaga batek ez duela juduen nausitu nahi horretan sinhetsiren bainan Frantziako gauzen berri egiazki dakitenek ez dute frogantza beharrik hortarakotz. Bertzeentzat, berriz, gerthu naiz diren liburu, aldizkari eta dokumenduen izenen emaitera, eni galdeginaz geroz.

Antisemitismuaren hauzia hauxe bertzerik ez da: juduok herri-minoritate arrotz bat dira Frantzian bai, Europako erresuma guztietan: ez oroz lehen arrazaren aldetik (baita german eta slavu odolik asko Askenazita horietan), bainan bai kulturaren aldetik: Orienteko ethnia bat dira Okzidentean bizi, eta berek hala nahi

izan dute iraun menderik mende, beren leialtarzun guztia Israeli begiratzuz beren egiazko nazioneari bezala «judu batek ez dio sekula ukho egiten Israele-rat itzultzeko asmoari» dio ZVI LEWIN sionistak *La Terre Retrouvée* kazetaren 10 (545'gn numeroan), eta Israel hori, lehenago sortherri mythiko bat ba zen ere, egungo egunean Estatu arrotz bat baizik ez da gure-tako. Bainan Frantziako populuak ez ditu juduak atze-rritar direlaketz higuin; ba dira bertze arrotzak Fran-tzian: langile italiano, polonitar, espainolak, eta erres-petatuak dira; ba dira bertze batzu odolaren aldetik askenazitak baino atzerritarrago direnak: Jitoak, Armeniarrak, eta aski ongi hartuak dira; gehiago dena, ba dira judu zenbait ere aspaldidanik Bordelen, Baionan eta bertze hiri batzuetan bizi ziren sephardi-tak, eta horiek ez dute antisemitismurik sor erazi. Frantziako populuak higuin ditu Europa-erditik ethorri-tako askenazita horiek, minoritate arrotz bat (oso arrotza) izaki, ez direlaketz Minoritate baten zuzen mugatuekin askitu nahi, bainan aitzitik, nehondik ere hartze ez duten buruzagigoa hartu dutelaketz indige-nen egitekoetan. Eta ez othoi eni erran juduok nausi-tu direla entheleguz, langiletarzunez, etc., bertako jendea baino gailenago direlaketz..., alderantziko



razismu hortan ez baita sinhesterik; nausitu dira elkarhar lagunduz xede hortara heltzekotz (alde on hori ez zaie ukhatu behar, bainan zorigaitzez, bertzeen kaltetan usatzen dute) eta ororen gainetik batzuen ergelkerla eta bertzetzen komplizitatea gatik.

Zergatik behar othe zukean Frantziako populuak atzerritar askenaziten nagusitzea onhartu? Haren ganik bere buruaren zaintzekotz sorthu du, joan den mendean, antisemitismua, eta hau Mugimendu popular bat dela, ez reaktionariak, ez aberatsek, ez intelektual «faxistek» sorthua, fede onezko den orok aithortu beharko du. Aski da jakitea nor zen Drumnond, semitismuaren lehen, salhatzailea (*La France juive* liburuaren idazlea), eta nor izan diren honi jarraiki zaizkionak. Aberatsak, kapitalistak eta bertze errandelako «handikiak» (?), aldiz, hatsarrean, XIX-gn mendean, juduek artzen zuten influentziaz mesfida izan baziran ere, laster khonduratu ziran hobe zutela bankier askenaziten ondorengoekin elkhartzea heiei oldartzea baino, eta orain hauien sosaren ederra gatik, hauien sinheskideak oro beren babesean hartuak dituzte.

Ez dut ukhatuko antisekmitismu popular horren aldamenean ba dela bertze bat, Alemanian batez ere bainan bai Frantzian, Inglaterran, etc., ere, juduei

oldartzen zaiena ez oikonomian edo politikan hartu duten lekhu handiegia gatik, bainan baitakusa juduetan (zehazkiago: desertuko Semiten mentalitatetik jaiotako ideologietan) europar izpirituaren antithesis bizia. Ez naiz hemen antisemistismo ideologiko hartan gaindi luzatu nahi, ez baitu ene artikuluan erraiten nuenarekin zerikhusi handirik (nik ez nituen hainbat juduak kritikatzan hartan, nola Frantziako prosemidak) bainan, Aginagak «sasi-filosofia» batheiatu duenaz geroz, erranen dut uste dudala ba direla haren alde-tzaileetan entheleguz eta intellegentziaz bertze gaidiko philosophoei deus zor ez dietenak, hala nola Gobineau, Nietzsche, O. Spengler bai, hurrunago noa eta aithortzen dut enetako Alfred Rosenberg batek ere, gizon, pentsatzaile eta idazle bezala, orainaldiko Sartre eta Sartretxoak oro bezainbat balio duela...

Bainan Aginagak ez-jakin, ximple erhotzat baizik eman ez baldin ba nindu, ez nintzan khesaturen -naiz nerhork ez derauzkion orain artean, EGANen bereren (eta nik dakidanez ez bertze euskal aldizkarietan ere), bertze euskaltzale bati izen pollit horiek egotzi- ezen *Passer pour un idiot aux yeux des imbéciles est une volupté de fin gourmet* (Courteline). Haren ganik ezin jasan dezakedan gezur Laidostagarria da, emaiten

baitu aditzera ni eta ni bezalako «basajaunak» (?) gerthu garela gure aburuko ez diren guztien zanphatzaera, bai KZ-zelhaitan («zihor-zeuhaitan») sar eraztera, III-garren Reiche-ko buruzagien ereduari jarraikiz.

Bethiko leloa: norbait den gutien judu dohakabeen karra katzerta ausartzen denean (hala nola ni, Goncourt-sariaz hitz egitean), berehala heien zerbitzuko prosemidak orroaka hasten dira, baizik-eta 6 (edo 4, edo 8...) miliun judu erho dituzten SS-ekilakoa dela, edo bera ere SS-etakoa. Ez naiz Hirurgarren Reicheko antisemiten zaintzen ari hemen, nihauren buruaren zaintzen ari naiz. Utz dezagun, beraz, KZ-zelhaien khondu hori, ez baititut nik eraki. Eta juduen persegitzean Alemanak lagundu ditudala, haren artikulua irakurtzetik edonork uste ukhaiteko zuzen lukean bezala, ez dakit Aginaga horren frogatzerta prest denetz, baina ba dakit ontsa, demokraten justizian sinhest ba neza, hura nirola hauzitegietan persegi, gezurrezko salhakuntza hori dela kausa. Ez, Aginagak bertzela sinhests erazi nahi ba du ere, jakin behar da antisemitismuak ez duela Frantzia Alemaniako nazional-sozialisten teorietan ezer ikhusterik; Hitler sorthu eta *National sozialistisches Sirafreeht* delakoa izkiria-

tu baino askoz lehen, egiazko Frantzes gehienak erran nahi dut Frantziako ethnia baten seme direnak, eta ez kampotik ethorritakoen semeak antisemitak ziran, eta nazional-sozialismua itzali ondoren ere, orain hala dira; eta hala iraunen dute, juduek, atzerritar izaki, nehondik ere merezi ez duten toki berhezi bat Frantzian hartu nahi duten artean behintzat.

Ez dut eiki erran nahi juduei oldartu zaizkien antisemiten artean, Frantzian, Alemanian edo bertze errialdeetan, gizerhaileak era sadikoak izan ez direla... bai eta, dudarik gabe, ohoin, mozkorti, paideras-tak eta bertze biziodun guztiak ere erresuma eta alderdi orotan bezelaxe. Bainan, ni ezagun gabe eta zer egin dudan edo zer egin ez dudan batere jakin gabe, nihau heletakoa edo heiekilakoa naizela aditzera emanez (eta batez ere ene herritar euskaldunen persegitzera gerthu nintzatekeala), Aginagak erakhusi du, nik uste, ni eta nere gisakoak «basajaun» omen ba gara, hura ez dela neholazko jaun bat ere... Autozentsuratu nahiago dut, eta ez dut erranen ene arauera zer den hura. Halaz ere erranen dut ez dudala pentsatzen, ni bere artikuluaz irainduz, kalipu handirik frogatu duela, ongi baitzekien nehor ez zela ausartuko «nazi» delako Euskaldun baten alde agertzera

hunen ohoreari zuzenik gabe eta zuzentzen kontra oldartzen ba zaio ere...

Azken hitz bat, Aginagaren bertze gezur baten zuzentzekotz: zerbait euskaraz izkiriitzen dudanean, literaturaz ala politikaz ala zer nahi gaiez, ez dut hori egiten ene herritarren ene ideietara erakhartekotz. Nere gazte-demboran holako ametsik ukhan badut ere, segurtatzen ahal dut Aginaga aspaldian galduak ditudala.

# EUZKADI ETA EUROPA

Ba dira ispiritu «aurrerazale» batzu Euskalerrriaren nortasuna iraun erazi bearrez diardugunoi isekaz ari zaizkigunak, anakroniko geralakoan. Haien araura, gizadiaren aurrerapena berezitasunetik batasunera dijoa: leenagoko gizeliak bategin ziren bezela erri bereziak emateko, orain erriok, beren berezitasuna utzita, bategin bear dute, hala non mundua baitukegu erri... Gurasorik duen gizon orori sentimenduak lenen-gotik dirausko mundu-erritarren ideologia arbuigarri dela; bañan adimenak eta oartikasak ere kosmopolitismo hori oker dena darakuskigute. Egia ba da aurrerapenak leenagoko gizarte ertsiak gizarte aundiagotan alkartzea berarekin dakarrela, ez da ustekizun gizadi guztia bategiñik izateko moduan. Aitzitik, gizadia ageri zaigu salletan zatikaturik, geroago ta alkarren etsaiago direnak. Optimista sendagaitzek barka bezaidate bañan gizonak beti zerbaiten edo norbaiten aurka batzen dira, ez zerbaiten edo norbaiten alde, eta munduko gizon guztiak batuko lirake bearbada etsai komun bat gerta ba lekie, beste mundu batetik etorria edo, ez ordea bestela. Bañan ez dut uste Mar-

tiztar edo Venustar edo beste izartarren ezagutza hain laster egingo dugunik, non ez ba da «*fiction-science*» eko eleberrietan...

Intelektual endekatu batzu baizik lillura ez ditzaiken mundu errizaletasuna arbuizatzen dutenen artean zenbaitek berriz, beren burua «europazale» deitzen dutenek, Europaren batasunaren kaltetan ari omen geralako gaitzesten gaituzte Euskaldun, Katalandar, Bretoi ta beste erri txikietako abertzaleok, Txeko, Soumitar, Irlandesen zoriona oraindik ez izanik gure esku-bideak zangopetzen dituzten. Estatuena gandik berezi nai geranak. Diote europazale horiek problema zarrak askatzeko orde problema berriak era askoz askagaitzagoak ugari sortu dituen azkenengo munduguduaz geroz gure lurzati osoa galbidean jartzen duten zema lazgarriak kontuan arturik, geiago ez dela ordu erride bereziak irazateko, bañan Europako erri guztiek bategin bear dutela kampakoko arerioari gogor egin nai ba diete.

Nik ere uste dut lur-zati honetako biztanle guztioi Europar on izatea dagokigula, orain dala eun bat urte Nietzschek jadanik aolkatzen zigun bezela. Euskalerriaz erri-ugarte bat egitea, garbizale zenbaitek amesten duketenaz, oker baño okerrago litzake. Halaber

«Euskadi ta mundua» abertzale internazionalisten itzburua ezin onar dezakegula derizait. Alabañan beste gizonekin ditugun lokarriak era askotako dira. Lenengoak, eta sendoenak noski gure senitartekoekin ditugunak. Gero Euskaldunak oro alkartzen gaituzten lokarriak: odola, izkuntza, oiturak, ots, erri berezi bat egiten gaituzten elemendu guztiak. Bañan Europako beste erriekin ere ba ditugu lokarri bereziak: endazkoak leenik, ez baita euskal-enda bat emparantzako europar endez bestelako litzakenik, eta gure odola moldatu duten gaiki antropologikoak oro europar enda-aindi zuriarenak dira: gero, ez baiditeke uka euskal-kultura bat izan ere ba denik, geure kultura hau beste Europarrenak bezelaxe, iturburu komun jakin batzuetarik dator horietatik garrantzikoena baitira Erromako kaisar-erria. Eliza ta germanismua. Beste Europarrok atzerritarrak ba dira ere guretzako, izaeraz ez zaizkigu arrotz: hek eta gu «kultur-aro» bereko gerade. Kultur-aro hortatik landa ditugu egiazko, ots, Afrika, Asia ta Ameriketako kolorezko jendeak, eta arrotz hoik ere maitatu ta anaitzat eduki bear ditugula ba diñosku etikak edo erleginoak, delako maitasun hori izaerazgaindiko da; bañan hemen politikaz mintzo naiz, ez theologiaz.



Euskaldun eta Europar gera beraz, ez ditzagula uka izate bikoitz horrek leporatzen dizkigun eskubide ta eginbideak. Europar gera ordea, Euskaldun generalako ta gure euskaltasunari buruz ditugun eginbideak bete bear ditugu, gure euskaltasunetik datozkigun eskubideak balia erazi bear ditugu, Europar on izatea pentsatu baño leen. Alabañan, sendia ba da erri baten oinarria, erriak dira Europaren oinarriak, eta iñor erritar on izan ez baititeke beraren senitartea ukatzen ba du, halaber iñor ezin izan diteke Europar on bere erritasuna ukatzen ba du. Erririk gabeko Europa bat abstrakzino uts bat baizik ez litzake, aragi ta odol gabeko iratxo bat.

Bañan orain beren mordolloan dioten bezela. Europa «egin» nai diguten politika-gizonek bestelako asmoak darabilzkite, geienetan beintzat. Estatuak dituzte batu nai europar systema berri batean; erriez aldiz ez dute batere ajolik, esan nezake ez dakitela erriak zer diren ere, ta ez dutela heien hor-izatea ikusten estatu baten moldrean agertzen ez zaienean. Erri askok ordea ez dute orain artean estatu baten artu aal edo nai izan, adibidez euskalerrriak, Britainak, Gales-erriak eta beste aunitzek. Estatu asko bestalde, batez ere aundiak, erri bat baño geiagoz moldaturik daude:

Frantzia, Espainia, Britainia Aundia e. a., horiek ez dira erri-estatuak, bañan aitzitik erri-ondatzale diren estatuak, geuk zoritxarrez ongi dakigun bezela. Geia-go dena, ez dugu aaztu bear estatu aundi hoik, erri txikien ondatzalle izanaz gañera. Europa bera ondatu dutela Edestian zear. Alabañan, Europa batu bat izan da leenago, Erromako kaisar-erriaren ondakiñetatik eraikia erdi-mende goitarrean. Bañan orain ezagutzen ditugun sartaldeko estatu aundi hoik sortzearekin galdu zen gure lurzati honen batasuna: bakoitzaren imperialismu ertsia zela kausa, ondatu zen emeki emeki Karolingiarrek irazandako europar imperioa. Mende luzeetan bata besteari eten gabe gudu egiñaz, estatu aundiek ez zioten bakarrik etsaiari, edo beren buruari, kalte egin bañan bai Europa osoari hau aultzen zutelarik eta bere enda ta kulturagallentasuna gatik zitzaion buruzagigoa gal erazten zutelarik beste lur-zatietako populuen artean. Dakusgularik orain Estatu aundiotako ordezkariak gaituztela Europaren batasunera eraman nai, delako batasuna heuren ondatu ondoren, zillegi, zaigu mesfida izatea... Ez, ez dezagula uste izan Estatu aundiak egiaz sinisten dutenik Europaren batasunean. Zio politikoak dituzte beren batasuneko asmoen eragile: leenagoko buruza-

gitasuna galduz doakiela ikusirik, konturatu dira bear zituztela indarrak batu Amerika ta Rusiaren aurrean zerbait izateko-edo zerbait agertzeko: bi blok aundi horiei dieten bildurra ez ba litz, sekulan ez ziran batasunerako bidean ibiltzen asiko, ta oraindik ere alkarren arteko gorroto zaarrek bizirik diraute, berek asmatutako Europa «batua» arrautzean illor dizakena. Zio oikonomikoak ere ba dituzte: aski dugu dagoneko antolatu dituzten europear eraiguntzai so egitea (hala nola jaio berri den Merkatu Komun zorioneko hura), ots, nai digute merkatarien Europa bat eskaini, ez odol-artagizko gizonena... Benetan europazale geranok beste itxaropen bat, beste ideal bat ginauka-gun!

Bañan Estatu aundi hoik ez dira Europa, ez eta heien zerbitzuan dauden politikero ispiritu estuak, ez ta geiago hek esku-makillatzat darabilzkiten kapitalista biotz-eta arimagabekoak. Europa geu gerade Euskalerrria, Katalunia, Britainia, Flandeserria, bai eta Gaztela, Gaskoinia, Normadia, Baviera e. a., hau da beren tradizioari leial egon diren egiazko erriak oro. Europar erri guztion batasunari buruz abia gaitezana, bai, leenago alkarren artean ditugun gorrotoak eta liskarrak hortarako aaztuz, bakoitzak geure nortasuna

gordetzen dugun ber: oinarriztat erri bereziok ezagutzen ez lituken Europarik es baititeke izan. Horrengatik, hain zuzen ere, geure lenengo eginbidea Europar onak geran aldetik euskaltasuna zutiñik iraun eraztea dugu, gure izkuntza debekatuz, gure lege zaarrak kenduz, gure odol-garbitasuna edonongo erbestetarrek gutartera etor erazirik galbidean jarriz euskaltasuna galdu naiean dabiltzan arerioai gudu egin bear ba diegu ere.

Gudu horrek ondore onik sekulan lortzekotan ordea, ez dugu bakartuki gudukatu bear: kideak bear ditugu geu bakarrik urri baigera ta etsaiak aldiz ugari. Esan gabe dijoa lenengo gudukideak beste erri txiki, oraindik aske ez direnetako abertzaleak ditukegula, geuk bezela beren ethnia galzorian dakustenak Estatu aundien imperialismu berekoia dela kausa. Bañan segur nago europazale zindo guztiek gudu hartan lagundu aalko digutela ta premiña dugu beraz horiekin nolarebaita alkartzea, gure etsai izan diren errieta-koekin ere, edo politikan gureaz bestelako ikuskera bat dutenekin ere (ezen ba dira europazale onak bai «demokrata» bai «faxista» omen direnen artean). Azkenekotz, gogora gaitez an erri berezi bezela bizirik egon ta hala ere Europa batu baten parte izateko, ez

dugula Estatuon bearrik arartekotzat; obeto esan: ez ditugu Estatuok bear, gure erriaren ta europar batasunaren ondatzalle direlako.

# EUSKALDUN GUDU-ZALDUNTZA BATEN BEHARRKIAZ

*«Gogoetan nengoelarican egun batez cer perpaus  
haulatuco nuen  
gure gazteriari aippatceco, gogora citcaitan,  
hei guehienic agrada ahal daquieten gauca dela  
gerla...»*

(Joannes Etxeberri Sarakoak, «Escual-Herrico gazte-  
riari»n)

*«ezen gizonak ez dira elkharren bethe:  
horrela mintzatzen da Zuzentarzuna».*

(Friedrich Nietzsche'k «Also sprach Zarathustra»n)

Izen haur harrtzea duten Euskaldunik gehienak, erran nahi dut, beren herria aske eta beren hizkuntza ohoretan ikhusi nahi dutenak, azken menderdion Europa iharrosi duten iazarrkhundeetan demokrazien alde ibill izan dira, nehoizko usterik hoberenekin: asmo demokratikoa euskaldungoaren ikurrik nabarie-na dela eta nazione handi demokrazi-zainek gudua

irabaziz, Euskadirentzat irrikatzen zuten askatarzuna emanen zeraukotela uste baitzuten. Azken phondu huntaz zer gertatu den ikhusi dugu. Demokraziek gudua irabazi dute, baina heietan igurikipen iarri eta heien aldamenean gudukatu zuten euskaldunak ez dira horrengatik askeago. Aitzinetik bezala bi zathitan dagoz: batzu askatarzunaren zaindari omen dan statu baten nagusigo-pean, herrien arteko batzar orotan enda-erhaiteka kondemnatzen duena, haren politika ordea, bereganatu dituen enda zuri, beltz edo hori guztien kulturen suntzi-arazteari doalarik; atzo, dikta-dore zelakoan demokraziek arbuiatzen zutena, egun, aldiz, beren UNESCOn era hitz-harmen oikonomikoe-tan onhartzzen duten statu-agintari batek oindikatuak bertzeak. Nazione handien lokera hori delata, euskal-abertzaleak haurrñoak bezala intzirika dabilta, salha-tu izan direla hotsez. Baina zer! iokera hori egoki baino egokiago da, ahanzkorr izaitean baitatza demo-krazien verthutea, demokrata batek zionez.

Intzirika ibili baino norberak bere uste eta konzep-zioeen kritika egiati bat egin leza hobe litzateke, demokraziekin khidetze hori, bai eta asmo demokrati-koarekin euskal-nazionalismuaren identifikatze hori

Euskalherriaren onerako izan diren eta diren ikhertuz.

Paradoxotan ari naizela dirudike, baina Euskaldunak zinezko demokratik behin ere izan diren uste ez dudala aithor dut, non ez ba da azken garai hontan, atzerrikako era sozialak ekharri landerriak, atzerrikar ikastetxeak eta Romako Elizaren kristaudemokratik deragieten influentzia hirurkoitza dela zio. Euskaldunetaz mintzatu izan den errankhunik zuhurrena Le Play soziologuarena zait: lurginzalduntza bat zirela, alegia. Zaldun eta aitorseme ziran egiaz, beren burua «etxeo iaun» izendatzen zuten lurgin hek, etxeo guztien, emazte, haur eta sehien nagosi zirenok, ez nabaski Romako pater familia garratzen antzoan, haatik gutiago feminismuak eta «puerismuak» indarragabetzen duten sendi modernan bezala. Eta Euskaldun gehienak etxalde baten iaube eta beraz *etxeoiaun* zirelakotz, elkarren bethe ziran oro, heien gizartean zuzenbide gabeko gizamalik ez zelarikan. Horregatik euskal kulturaren demokrazitarzunaz hitz-egin ahal izan da. Emanak alderdikerizko aitzin-eritzirik gabe harrituz, ordea, Euskalherrian ere egoile guztiak *cives optimo jure* ez zirela, baina aitzitik, kasta lekhorekoak eta hunki-ezinak ere zegoela ezagutu behar da:



h.n. Gaskoinak, Jitoak, Juduak, Agotak e.a. Hauien aurkha negurri gogorak erabaki ohi zituen lege-emai-leak, zenbaitek Euskaldun idiosynkrasis onhesleaz zernahi erranik edo idatzirik ere. Erraiterako, Nafarroan sarri zedin Jito edo Buhameari legeak ehun zigorrada eman lekion manatzen zuen; eta Bizkaiko Juduez... Gaztelako regeari gaindeithu beharri ukhan zeraukoten Euskalherrian egon ahal izaitekotz. Lizarrako pograma ere aipha dezagun. Gure arbasoen «bidegabekeri» horrtaz ahalketu beharri dugua egungo Euskaldunok? Nire ustez, bozkariotu beharr genduke, orduko Euskaldunek beren ondoreko anhitzetan guttiagotarzun-komplexua ez zutela bai ordea bertzeen enda baino gehiagotzat euskal enda ioiten zutela derakhusate-ta.

Folklorearen ikhertzeak odolgarbitarzuneko hauziei garrantzi handia zemaietela agerrtzen du; odolgarbitarzun horren erakhustekotz mazmarroak (sic), h.d. atharigainean ibenitako blasoink zerabiltzaten. Horiek orok demokraziaren kolore guti dute, eza? (sic)

Badarik ere lurrigin zalduntza bat izan aitzin, gudularizalduntza bat izan ziran Euskaldunak. Lurrigintza berant samarr sarritu zan gure herrian, atzerritarrek ekharririk nabaski (beharr bada Romako soldatu-labo-

rariak) hizkuntzaren ikhertzetik agiri denez. Lehen abere-haztetik bizi izan ziran Euskaldunak; artzainkulturr jori bat erakhusten du euskarak bat eta guduegite-tik ere. Gure arbaso zaharrei buruz zehatzapen guti dakigu; Historian agertzen diren orduko, berriz Imperi, Behereko garaian, alegia gudulari eta guduzale borthitz bezala pintatzen dituzte idazki eta elhezaharrek: hatsapenean lurr ebasle inorganizatuak; ondoren herrialde -eta resuma- eralkitzalle, Waskoniko duke-herria (VII gn. mendean) eta Nafarroako regeherria (IX gn. mendean) irazan zitutenak. Hemen, faktu baten interessant da iakitea: orduko euskaldunok zeduzkaten aitzindari eta guduburuzagiak german endako zirela dirudi, beren endakide, Hegol-aldeko Got eta ipharraldeko frankei aitzia iazarriak. Ezin ukhatuzko german eragin bat euskal gerlahiztegian, beharr bada goten ganikakoa: gudu = «katus» germanek mailegatu keltak-hitzetik; iskillu = got. skildu; murga edo morga = got. baurgs; sala (lauregi) = frank. sal; e.a. Zer nahi den, german altzindariok gallo eta ibero-roman artean ez anzo gudulari indigenak (euskaldunok) zituten beren meneko; gehiago dena, berek euskal anzoko izenak zeduzkaten -Azenari, Lupus = Otsoa, Gartzzea, Santx Mitarra (menditarra?)-

eta textuetatik nabari denez, euskaraz hitz egiten zuten. Bertakotu ziran osoki, bertakoak hein batean germandu ba ziran ere. Ordurarte basati eta anarkheian bizi izandako euskaldunok beren endaren gudu eta herri-organizacionerako ahalkeizunen agerraratu zituen legamia ukhan zuketan german elemendu hori. Zorioneko ondorioa ekharri zuen guretzat bi enden elkharr-eragiteak: Euskalherriaren irazaile den Nafarr Statua.

Euskaldun germandu zalduntza gudulari hori izan ez balitz, Euskalherrikeri ere izanen erizela ahantzi beharr ez dugu: gizeli bihurri anarkhistetan banaturik egonen ziran euskaldunak, goiz ala berant hauzoherrir hobeki organizaturen batek bereganatu eta assimilatuko zituenak. Geure herriaren Historiak nola bertzeenak, indarrak duela bethi gizasaldo amorphea gizarte organizatu bortxaz bilhakatzen phorogutzen du. Zuzen da hori: ezen bortxatzea borthitzenari dagoko.

Bada, Euskalherriaren oraiko egokera kritikoa kontuan hartuz, berriz ere horrelako gudu-zalduntza baten beharrunean gagozela nabari da. Hiltzera doa gure herritarzuna, eta ez gudukarien herio ohogarriaz, endakatzeko herioaz baizik -ahalke- izangarriagorik ez baita. Askatarzuna galdu dugu eta gure ekhintzako

aberastarzunak arrotzek gozaten ditute. Areago da ordea, geure ethniaren osotarzuna ere galurhen baitaigo, euskaldun elemendu garbien herr-bertzeatzea eta bertze endako, guretzat onura gutiko elemenduez haien ordezkatzea dela kausa. Atzerritarrekiko ezkontzek mestizen problema aurkhezten deraukute, behin askatu beharrko duguna, baina nola? (Atzerritarrekiko ezkontzak oro kaltegarri direnik ez dut erraiten: odol-gurutzatze zenbaiten on dakharrkigukete eta nezessari ditugu; eskontideen enda batere kontuan hartu gaberik egiten direnak ditut arbuiatzen. Baserritarrtza euskaldun sentho eta garbi egon eta bethi ere «zalduntza» bat dela, bainan egungo kulturen ez du lehen bezainbat garrantzi eta gainera, euskaldun anhitz lurr-gintza utziz hirietaratu dira, bertzeak bezala arbasogabeko proletari edo burjes ttipi egin baltira heietan.

Euskaldungoaren endakatze hori egokera politiko-tik doa dudarik gabe eta haren aurkha sendagailu politiko bilhatzea sori da bainan are euskaldun gehienak loiten dituen gutiagotarzunezko komplexutik. Horrek eraginik enda burgoitazun oro galtzen dute eta Frantzitarr edo espainitarr kultur-nirvában beren nortarzun oro honda dadin baizen ez dute irrikatzen.

Gutiagotarzun komplexu bat emaiten ez zaieno, euskaldungoak burua ezin iaso, dezake uste dudana.

Euskal-abertzaleak bihotzez maite ditut... Bihotzak ordea, itsutu beharr ez gaitu eta abertzaleok, euskaldun gendeari, batez ere gante-gendeari iomuga aski gora bat ezin eman deraukotela agiri da. Horrengatik dira, heien seme-alhabetarik hainbat eta hainbat emankorrago eta sakonago dirudieten doktrinen alde su eta khe iarrten: marxismu, internazionalismu edo bertze-ismu batzu, gure herriari on guti dekharrkeotenak. Askatarzuna gura izaitea guti da. Azkarrtarzuna gura izaitea hobe da. *Zazpiak-Bat* parolak herrialde ttipi baten zedarrietan barnen koka ez diteken arima handia ezin sukharret dezake eta «Arbol Malato» delakoaren ideala, irenduen ideal bat da ene aburuz. Zuzenaz dagokunaren eskatzeak ez du balio: zerbait izaitekotan, dagokuna, baino gehiago eskatu beharr dugu, legezkoak baino argumendu hoberenak ditugula, erran nahi dut, indarreko argumenduak.

Euskaldunei premia dituten endarekiko gehiagotarzun komplexu eta indarrezko ideal hoiem emaiteko biderik egokienetarik bat, gudu-zalduntza berri baten kreatzea lizatekela uste dut. Bidenabarr euskaldunon odolgarbitarzunaren begiratzeko ardura luke zaldun-

tza horrek: horrtarakotz blasoin eta bertze emblema jeraldikoen harritzara erabiltea on genuke behar bada. Asmo horrek irakurrleak zaletzen ba ditu, zaldun berri hoik nola hautets litezken bertze artikulu batean azalduko dut.

# EUSKALDUNGOAREN ETSIAIAK

Gure herria maite ukhan arren halaz ere maitarzun horrek itsutu ez ba gaitu, guhaur izan garela maiz lehen etsaiak aithortu beharrko dugu. Bertze gende individualistak oro bezala -halanola Keltak- alde bate-tik autonomian bizi nahi ukhan dugu bethi, eta bertze-tik, autonomia hori segurta lezaketen organizazione sozialik ez dugu behin ere onhartu nahi ukhan. Mark Legaz-ek dioenez, anarkhistak gara... Nire ustez, haa-tik, atzerritarrek dute anarkhismu galgarri hunen hazia gure baithan erein, Euskalherri elkharttu eta indartsu baten bildur zirelaketz.

Eze, nahiz oraiko Euskalherritar bakhetsuak ahan-tzi duten, dirudinez, bi aldiz gure arbasoak beren lpharr eta Hegoialdeko hauzoen bildurra izan ziran: lehen aldiketoz, Pyreneuz haraindiko aldiriak Garonna ibairano -eta haratago ere- errhausti, soildu edo bere-ganatu zituztenean. Nafarroko menditarrek; bigarre-nekotz, Hispaniaren *reconquista* zela zio, Nafarrtar Statua eralki zutenean Afrikatarren aurrkha... bai era hauzo khristauen aurkha ere. Hauk dira gure historia modernoko egintza nagosiak; huiengatik batez ere,

zuzenbide dugu Euskaldun izenaz burgoi izaitera, enda sentho eta azkari bat izan garela baiterakhusate; enda sentho azkarr ororen antzora hauzo ahulagoren bizkarretik hedatzera eta aberastera ekharriak ginelarik. Egun, aldiz, erran-delako abertzale zenbait, Euskaldun zaharrak izan diren zaldun aidor, gudu-zaleen spiritu aristokratikoa erdeinatuz, haren lek-huan beren gisako Euskaldun berri, bakhezale, hauzo on eta puska-onen spiritu demokratikoa «*a la française*» eredutzat iarten deraukute. Nik ez dut erranen spiritu berri hori gure dekadentzaren kausa izan danik, bainan bai dekadentzaren ondorio eta agerk-hun dugula. Frantzitarren ariora demokraziaren amets urdinekin lokhartzen den herriak zahartzen eta akhi-tzen ari dela emaiten du ikhusterat.

¿Nondik ethorri zaiku dekadentza? Gure ahalmen politikoaren bildurr zegozen hauzoek, hots, Frantziako Rege Guztiz Khristauak eta Espainiako Rege Katholikoak, ohartuki eragin zeraukutela ezagun da. Deithura huietan, hain zuzen ere euskaldungoaren etsai handienak nabari zaizkigu: Europako Sarthaldeko bi statu latin-berriok eta Romako Eliza. Hoiek, elkharrekin lankhideturik, gure endaren bereizgarri guztien erauz-teari thaigabe ekhin deraukoten, nahiz alhorrr politiko-



an nahiz sinhespenen alhorrean. Eta, gerorren ergelkeria lagun, ekhite hori han osokiro burutu dute non, azkenean, beren sehirik leialenak egin baitituzte Euskaldunetaz: batzuek Espainitarr hoberenak izan nahi ukhan dugu; berzeek, Frantzitarr hoberenak; eta guztiak, Eliza Amaren semerik zintzoenak, Arana Goiritarr Sabineek politikan eragin-reakzionarioari eskerr (nahiz edadura aski ez duen ukhan, ene aburuz), Hegoialdeko Euskaldunak hain Espainitarr jathorak ez direla ohartzen hasiak ba dira ere oraino burhau bat dirudi Zuberotarr edo Benafarrrtar edo Laphurtarr baten Frantziaren etsaitzat aithortzen duenean bere burua; bai eta burhau bat ere ikharagarrigoa non-nahiko Euskaldun bat Katholizismuaren aurkha agertzen denean. Ni oroz lehen Euskaldun izaiki, heien etsai naizela aldarrikatuko dut ausarki, pseudo-euskaltzaleak oro eta %50-eko abertzaie guztiak nardarazi beharr ba ditut ere.

Hasteandanik, euskaldungoaren gorputzkintza izan den Nafarrrtar Statuaren kontra iokatu dute Aita Sainduak Elizaren urgaitzez, Rege Katholikoak Bizkaitarrak eta Giputzak seduzitu zituzten euskal-statuaren ganik alde egitera. Bi eskualde hoiien iokaeran gure geroztikako bethiko makhurra iadanik agiri zaiku: lek-

horetik ethorritako lege, sinhespen edo sinheskeriei beharri emaita eta gurez-gure direnen arbuiatzea. Horrtan ez soilik Bizkaitarra eta Giputzak, baina bai Euskaldun guztiok hobendun izan gara goiz ala berantago. Espainiaren politika «herri eta sinhesteosotarzu-naren alde» zorionean bururatu zitzairen iaungoikoak benedikatzen zuelakotz, agian Nafarroako azken monarkhak protestante zirelakoan eskomulgatu izan zirenean, eta heien lege-berriak hauzo khatolikoen menpeko eman zituenean Romatarr eskuzabalak. Ai beren aitzinako paganizmuaren begiratzera herabe izan ziran Euskaldunok, behintzat protestant bihurtu izan ba lira Euskalherria salvatuko zan ezbairik gabe, herri bat denetik. Albreteko Joanna eta Leizarraga hotsemaile genituela, berphizkunde bati buruz ginho-zen bai herriketan, bai inteligentzan: gure gogo-hertstura dela kausa, hala ez da izan... Gurt gakizkien, halaz ere, Reforman alderdi hartu zuten Zuberotarr eta Nafarrrar Aitorseme zintzo heiei: hobe baita gudu-katu eta galtzea batere ez gudukatzea baino.

Alta politikaren alhorrean baino are kaltegarriago izan zaiku Elizaren eragina espirituaren alhorrean, geroko edozein berphizkunderen ithurri biziak urdindu zerauzkigulakotz. Euskaldun zaharren gogo basa,

borthitz eta handia aphabetu, ahuldu, hobeki erran irendu zuen haren doktrinak; otso, ginelarik, bildots egin gaitu... Gu paganu ginan oraino gure hauzo guztiek espaldian onharrturik zutelarik Goierriar batzuek ekharri «Berri Ona»; eta gero ere, paganu egon gara bethi gure izaiki-zoian, egiazko Europatarrak oro diren bezala. Orienteko doktrina bat baita Khristautarazuna, hangotarrentzat egina; eta Europa hunetan erro hartzekotan, hemengotarren *Weltanschauung* bereziari egokitu beharr zaio, nahi ala ez. Europatarrak zuzentza nahi du, bai eta nuantzak; ezinharr dezake... evangeli-elhetzat Goiz-erritarren enthelegu sorgorak kilikatzen dituzten dogma zehatz eta lazgarriak. Horren-gatik, Elizaren hastapenetik hunat «heretikorik» asko aurrkhitu dituzte bethi beren aurrkha iazarriak, Romako iaun berriek. Lehenik Keltek, monakhismuaren bidez, eta gero Sede Saindua osoki italianizatu zenean, Germanek, Luther-ek eragin Reformaz iosuren irakaspenari txertatu zertaukoten Europatarrok hain nezessari dugun paganismuaren guna. Gure harrian, ondikotz «eraberritze» hori ez zan egin ahal izan... Aitzitik, are lehen baino arrotzago genduen Eliza baten menpean makhurrturik egon ginan, italia-nizant izaiteko ordez orai hispanizant, h. d. Afrikatarr-

Kamita, bihurtu baitzan Kontra reforma zala bide. Kontrareforma horren «gizon-handia» Euskaldun bat izan dela, horrtan gure zori guztiaren synbol bat dakusat: Euskaldunak, beraren nazionalitatea halako atsegin masochista batekin gutietsiz eta aldebat atsiz (sic), bethi eta bethi indarr eta ahaleginak oro, bere enda-energeiak oro arrotz eta atzerritarren zerbitzuan eman ditu. Egun ere, gure neskak Frantziatar edo Espainiatar bourgeois endekatuen baithan neskame sartzen diren bezelaxe; gure muthilek Frantziaren harmadetan, Alemaniaren kontra gudukatuz, gudari hoberenen izena irabazten duten bezelaxe -Frantzia Euskaldungoaren etsaia eta Alemania, gurea ez baina gure etsaiaren etsaia izalki- halaber Euskalherriko adimen bizkorrak, euskararen eta euskal-kulturaren alde lan egiteko ordeztapenez sartzen eta proselytismuaren aritzera ioaiten dira lurralde hurruntarat, *ad maiorem gloriam Romae*, baina gure herriarentzat onurarik gabe. Hainbat eta hainbat gogo, -eta soin- indar Euskaldun horrela alpherrik galtzen ikustea, nigar-egingarri da.

Nire elhe hauk entzun-eta, hypokritak edo ergelak iauntziak urra eta beharriak tapa ariko direla badakit, blasphematu dudala hotsez. Engoitik ahatik, Euskal-

dunik anhitz -gizaldi gazteetan batik bat- nik hemen garbian izkiriatu ditudanak ahapetik erraiten hasiak dira. Ai ginitza bildur eta ahalge zozoak bethikotz utz gure ona eta onura non dagozen ikhus dezaguntzat, behinik bein. Agian eguna ethorriko zaiku, uste baino lasterrago, gure gizeli iainkoen aldareak haizara (sic) lorez estaliko baitira gure oihanetan, edo gure bihoztetan; eta Zazpi eskualdetako semealhabak, latinke-riak arbuiaturik eta euskal-endaren genioari itzulirik, harzara herri azkarr, sentho eta handi nahi bat formatu-ko baitute, geroaldi zabal bati buruz ioaile.

# EUSKALDUN ROMANTIKO BATEN ALDE

*«Nire burua dakust Gipuzkoa edo Nafarroako mendietan gaindi gudari-saldo bat darraitala, bati barrandan bizi, gogoia beti gertu, oldartzen, iges egiten, sasietan ezkututzen, indarka ibiltzen, etsaiaren baserriari su ematen».*

Pio Baroja-k

Orain euskaltzaleak ba ditugu, leenago. Euskal-erriaren problemarik sortzen ez zuen garaietan, ez zirenak. Euskaltzale horietatik bakan zenbait -garbiak, zindoak... ameskorrak- euskera bein «goi mailako» kultura baten ekarle izan dadin alengintzen dira. Zorixarrez erri euskalduna ez zaie orain artean jarraiki gora dijoan aldapa hortan: zaarrek jadanik alegiñik aski eginda, atsedena dute orain amets; nork gaitzesiko lituke horrengatik?, «doatsu logale direnak, loak artuko baititu...», doakabe aldiz iratzarri nai dituen... Eta gazteak, Euskadiren geroaren itxaropena omen ditugun gazte maiteak? Ez dira gure auzo-errietakoak

baño txarrago ez obeak: mutillak futbolzale, neskak dantzazale, sentimendu onez beteak guztiak.

Zeruari esker euskaltzale batzu ba dira ordea realistago direnak. Erriak zer nai duen ikusita beren begi zorrotzez, ots «ogia ta jolasak» erri orok bezela, borondate onez saiatzen dira hoik Euskaldunari ematen, kulturzaleak beren bakartegian utziz jolasak beintzat ugari ematen dizkiote, bañan kontuz! ez nolanaiko jolasak, EUSKAL-jolasak baño: haiei zor diogu gure neska-mutil zintzoenek fandangoa dantzatzen ba dute rock'n roll'en ordez, eta gure gazte gotorak pilotan ari ba dira futbolea bezain trebeki. Euskaltzale arrizale maitagarri horiek gutxiago izanaren kompleksua kendu diote askori: haien irakaspenaren araura, dantzari, pilotari edo muslari on izaki, Euskaldun ona zera euskera tutik ez jakiñik ere edo euska-odol tantorik zure zañetan ez izanik ere; bañan bestaldetik, folklorekeriok erdeinatzen ba dituzu, sekulan ez zaituzte Euskaldun egiazkotzat edukiko euskeraz Axularrek bezain ongi ba zeneki edo lau saietsetatik Aitoren odoletikoa ba ziña ere.

Bañan erriaren ogia ez dago azturik euskal politikariek agintzen baitigute, ongi guriñeztatua, gañera, biarko, gobernura eltzen direneko. Orduan ba dituke-

gu aurrerapen oikonomikoak, gizarteko zuzentza, bai eta erri baten zorionaren urrezko giltzak diren Auteskunde Aske ta Orokorrak... ots, lurreko paradisu bat izango da Euskadi! Bitartean arrotzen menpean bizi gerala Euskaldunak urrituz dijoazela edonongo kompotarrek hoiien lekua arturik, euskera galtzen ari dela? Ez estu: gure egoera its horrek ez dezake iraun. Alabañan leenago aske, gure askatasuna lege-kontra kendu ziguten, ergo, legez itzuli bearko digute bein: hala eskatzen du errien arteko Zuzentzak. Eta ez da dudarik munduko demokratek orok lagunduko digutela askatasunerako bidean, ongi merezi baitugu ere: ez al gera betidanik, Arri-aroan asita XXgn mendeko demokraziaren printzipioen araura bizi izan, ez al gera iñoiz konkista gudarik egia ez duen erri bakarra, euskal-politikari legezale, zintzo horiei siñetsi bear ba diegu?

Alde batetik politikarien legalismuak, bestetik euskaltzaleen folklorismuak, euskaltasun berri bat sortu digute azkenengo mende-erdi hontan: Euskaldun erredugarria gizon gotor bañan bakezale bat da, puskaona, gaiztakeriarik gabeko, alai ta parregille, optimista «baikor ez dut esango, baitaki ezezkoa ematen bearra denean, adibidez euskal-kulturzaleek laguntza



zerbait eskatzen diotenean..., auzo ona ots, notin bat oso atsegiña gizarte edo ereriarteko jolasetarako! Langille ta realista gañera, oraindar munduari egokitzten dakiena...

Adiskide maiteak, ba da ordu euskaltasun irriegin-garri hori arbuiaturik beste baliosogo baten moldatzeari buruz abia gaitezan. Nork ez dakus, nork ez du somatzen hori gure endaren iñakin edo karikatura bat baizik ez dela, eta eredutzat aurkezten diguten Euskaldun gorputz sendo ta biotz eztia gure beerapenaren igali ustela dela? Gorputzaren indarra doain ederra noski, jo-muga guren batera eldu bearrean diardun gogo bortitzari laguntzeko; berez, ordea, alperrikako da ezer ez da: atleta uts dena ez da abere bat baño geiago. Langilletasuna ez onbidei bañan gaizbide da aberastunaiak sorturik denean gure realisten artean gertatzen den bezala, ezen ondasunek ez ba dute gogoia zikintzen, ondasunen billatzeak bai ordea. Eta sobera Euskaldunen optimismu merkea biziaren ukatze bat da, bizia tragoidia bat baita eta ez komoldia, gudua eskatzen baitu eta ez bake ta atsedena, eta gizon edo erri baten elburua ez delako zoriona izan bear, aunditasuna baizik.

Adimena uko eginda, ametsetan ari naizela esango dute noski abertzale realistek, edo izen egokiago batekin deitzeko, razionalistek, beren ideologia XVIIgn mendeko frantziar «pilosopu» engandik bildu dutenak. Bañan adimena baño gorago ezartzen dut ametsa, arimaren erraño eta deia baita. Adimenak aldiz, uste duelarik egia billatzen ari dela, mytho batzu baik ez ditu erabilikatzen hala nola, erriketaz mintzo baigera, gizandiaren aurrerapena, bakea gizonen bear duten gauzarik, garrantzikoena balitz bezela, legearen nausigoa e. a. Ba da ordu gure ideologiaren iturburuak razionalismu estu hortatik kanpoan billa ditzaungure, erriari buruz amets aundiak egitera ausart gaitez, itz batez, ba da ordu razionalista adimentzale izateko ordeztan romantiko izan gaitez. Hala izan ziran sekula euskaltasunaren garra, piztu izan dutenak: Aita Larramendi, Agostin Chaho, lenengo guduburuzagi karlistak, Arana-Goiri ta beste bakan zenbait. Zoritzarrez, horien ondotik etorri izan direnek; beren burua horien «ikasle» bezela agertu nai dutenek zein nai zuzenbide politikotako izan ditezen euskal-igikunde batendez «euskal» alderdiak eskeintzen dizkigute erriaren salbabidetzat, hau da, gauza estatiko, geldikor batzu gure endaren abioa eragozten dutenak.

Gogo razionalista mythozale ba da, romantikoa mystikazale da: mystikaren bidez eltzen da mundu irudikor honen atzean den egiazko izateraño, ots, Arimaraño, eta hartan indar arturik berriz ere inguratzen da munduari buruz, bañan ez geiago haren jopu, bai-zik haren nausi bezela, ta mundua moldaberritzen du bere ametsaren araura. Geu euskal-mystikoak izan gaitezkan beraz, abertzale realistek gure lepotik iseka egiñik ere amets-egilleak geralakoan. Alemaniako romantiko aundi batek, NOVALIS olerkariak esan bezela, adimena, oldozmena «somatze itzali bat da soilki, bizi auldu, marguldu bat». Gure ametsaren bidez aldiz, egiazko euskaltasuna ezagut dezakegu, gure arbaso aundiek Erdi-Mendetan Munduari erakutsi ziotena. Eta odol-garbiko Euskaldun horiek ez ziran ez auzo on, ez bakezale, ez jasankor, bañan aitzitik bortitz, urduri, guduzale ta aundi-izan anaiak: hainbat obe horrelakoak izan direlako, askoz eredugarriago baitukegu orduko Peru Abendañoko bat oraingo Perrando Amezketarrak oro baño.

Arbaso indartsu ta indartzaleok ez dira il betiko -izan denik ez baititeke il, bañan beti izan ere bai da-ta garai-berriko mundu ekaizale ta atsedenzale honen morroin izan nai ez den Euskaldunak oraindik entzun

ditzake bere barruan ametsari egoak aske uzten ba dizkio, antxiñako gudateen aranotsak, leenagoko euskal-zalduntasunaren deia. Dei horri ez diezaiogula gogor egin! Gezurrezko euskaltasunaren mythoak aldera utziz, berriz ere izan gaitezak, leenago izan giñan bezela, «Vascones inquieti», Euskaldun urduri ta biurriak.

# FRANTZIA DE GAULLEREN KEPISPEAN

Frantziako politikaz ardura duten Euskaldunetatik bat baino geiago arrituko zan, noski erri honek, leenik irallaren 28'ko referendum zelakoan eta gero Azila-Abenduetako auteskundeetan eskuin aldera eman duen ingurakadari oarturik. Munduari «gizonaren ta erritarren eskubideak» ezagut erazi diaion erria faxista egin ote zaigu?

Lasai beitez beldur hori dutenak, De Gaulle buru duela leenago bezain errepublikano baitirau Frantziak... Autesleen eskuin alderatzeak ez du iñolaz ere faxismuaren gurenda bat esan nai komunistek eta beste ezkertar zenbaitek hala siñets erazi nai badute ere. Egia da jaurbide-aldakuntza bat eskatzen zuela erriakerritar gutxiz geienen gorrotoa edo erdeinua baizik ez baitu irabazi Mariana IV-garrenak bere jau-ralkian egon amabi urteetan. Hemen izartea kampotik edo azaletik baizik ezagutzen ez dutenek uste dute askotan Frantzitar guztiak, larriak eta xeeak, aberaski bizi direla. Hala izango dira Europa egoaldeko erri atzeratuetako jendeen aldameneani ez ordea oikono-

miaren aldetik komparakizun artu bear diren Europa-sartalde edo Iparraldeko errietako biztanleen aldame-  
nean: Britainia Aundia, Nederlanda, Alemania e.a. Ba  
dira Frantzian bear gorrian bizi direnak, esaterako  
jende adinekoak; edo-ta jateko diña irabazten ba dute  
ere gaurko bizitzak eman bear lizkieken erosotasunak  
iñondik ere ezin eskura ditzaketenak: langille geienak,  
nekazari xumeak, moda politikoari jarralki nai ez zaiz-  
kion intelektualak. Egia da metalurgia edo beste  
industria aundietako langilleak ongi samar bizi direla;  
alderdi ezkertarrek batez ere komunistek eta komu-  
nisten esku-makilla den C.G.T. delako langille-batasu-  
nak, zaintzen dituztelako horien intresak ez karitatea  
gatik noski bainan auteskundeetako petzeroak heien  
artean dituztelako, bai eta gudukariak iñoiz erri-gudu  
bat gertatuko ba litz! Aberatsak edo erdi-aberatsak  
bear bada ugariago dituzte Frantzian beste erri-  
batzuetan baino, halaz ere minoria bat dira eta mino-  
ria hortatik ez diren erritarrak konturatu dira azkene-  
kotz 1944 garren urtetik hona aldizkatu diren ezker-  
edo erdi-aldeko gobernuek ez zutela heien egiazko  
ajolarik. Gainera desadan gobernuok ez direla gai izan  
Frantziako lenengo gizarte problema etxe berriak  
eralkitzea, alegia, eskatzeko, eta bestalde, galtzera

utzi dituztela kolonia ta beste frantzes lurrik asko: Indo-Sina, Marroko, Tunisia... Ez da beraz txundigarri ezezkoa eman ba diote IV-garren Errepublikari Frantziar gutxiz geienek, eta auteskundetan eskuinaldera inguratu ba dira, De Gaulle zaleen «*Union pour une Nouvelle Republique*» (U.N.R.) izendun alderdi berriaren onetan, gizon «berri» horiekin gauzak aldatuko zirelakoan.

Aldatuko direnentz beste auzi bat da... Dagoneko ba da dembora apur bat De Gaulle'k eta honen adiskideek gobernuko giderrak eskuetan artu dituztela. Zer egin dute orain artean Frantzia osakundeari buruz abiarazteko, aurreneko gobernuak egingo ez zutenik? Ezertxo ere zergak goititu dituzte, gobernu berri orok bezela bizia galestitzera utzi dute, orain artean izan den bezela; Argeliako guduak beti ere dirau naiz autesleek uste zuten bakea ekarriko zuen gizon bakarra, zela De Gaulle... Aaztutzera ni Joan zerbait egin du jeneral eskuintarrak bearbada gobernu ezkertar batek egingo ez zuena: Ginea galtzera utzi du, hortara batera beartuta izan gaberik... Zergatik bada «Maiatzaren 13-garreneko gizonak», IV-garren Errepublikaz nazkatuta ta Frantziaren aunditasuna berpiztuko zuen aberzale bat irrikatuta, beren itxaropena ta konfidantza

De Gaulle'n jarri izan dituzte? Guy Mollet sozialistak egia aundia esan du bein, Frantziako eskuintarrak munduko ergelenak direla alegia! Hala agertu dira berriz ere jeneral luzea aukeratu dutelarik salbatzailletzat, Frantzitarrik geienak zarraizkiela propaganda alegin eskerga baten ondorioz. Alabainan eskuintarrok -ez dira faxistak, zenbaitek hala aldarrikaturik ere, bestela De Gaulle bezelako gizon bat sekula ez zuten onartuko- betidanik militarista amorratuak dituzte ta gertu daude beti kepis baten aurrean belau-nikatzeko, kepis horren pean, maiz gertatzen denaz, burezur asko bainan burmuin gutxi ba dago ere, humorista batek zionaz... Muin baino ezur geiago estaltzen duela De Gaullen kepisak zoritxarrez kontu-ratu aal izan gera Frantzitarrak edo Frantzian bizi geranak, haren itzaldi ozen, uts parregaiek salatzen duten bezela 1940-garren urtetik hona itzegiteaz bes-terik ez baitu egin. Kalte aundiak egitera utzi ditu ordea, esan delako «liberazio» hartan, bere adiskide ta aldezelek: orduan 100.000 baino geiago gizakik bizia galdu dute, Alemaniaren edo Vichyko gobernua-ren alde izan zirelakoan, naiz komunistek sarraskituz, naiz Zuzentzaren iñakin bat ziren «*Cours de justice*» izeneko auzitegi alderdikorren epai baten ondorioz:



egiazko errizalea izan balitz eta egiazko zentzu politikorik izan ba lu, bere alegiñak oro egingo zituen De Gaullek horrelako erri gudu bat baztertzeko, bainan naiago izan du izu jaurkera bat izatea Frantzian komunistei gogor egitea baino. Geiago dena: orain komunisten etsai aundia emen den jenerai eskuintar horrek berak ministro-kargu bat eman zion bere gobernuan Maurice Thorez desertoreari... eta berak lekuan ezarritako komunist sozialist-kristaudemokratek naiko desordena orotan zabaldu ondoren, naskatuarena egiñik gobernua utzi eta bere «Oroipenak» idaztera baserri batera joan zitzaigun erriaren salbatzalle hori! Halaz ere adarrak esartzeko diruditen frantzitarrek, igarotakoak aazturik, biotza burua bezin utsik daukan militar horri dei egin diote berriz ere, berak sortu zuen gaitzaren osagarria emango dielakotan eta naiz zenbait damutzen asiak diran dagoneko, ba dira oraindik haren aurrean auspez etzanik daudenak, jauresleak iduri, arabitar zaarrak ka aba zelako jainko izunaren aurrean zeuden bezela...

Bainan balio du urbillagotik so egin diezaiegun jainkoizuna eraiki ta jaurespidea antolatu duten sorgiñei, esan nai dut, gaullismu ber-egosi hori erriari aurkeztu to onar erazi dioten politikagizon barriei. Berriak

dira ote? Bai zera... Izenari baino, izanari begiratzena-  
go ba diogu. «*Union pour une Nouvelle République*»  
deiturak ez gaitu atzipetuko orain artekoen irin bere-  
ko baitira alderdi hortako politikeroak edo beste De  
Gaulle-zaleak; eta nola lirake bestelako, hain zuzen  
ere gobernuan ezarriak izan ba dira Frantziako jaurbi-  
dea funtsean alda ez dadintzat? Alabainan erriak alda-  
kuntza bat eskatzen zuen egiaz, hala non Errepublika  
bera galzorian baltzegoan.

Hori iñolaz ere ezin onar zezaketen ordea Errepu-  
blikaren benetako buruzagi ta Errepublikatik bizi diren  
notiñek, horiek ez baitira soilki politikariak eta gober-  
nu-gizonak, bainan politikari ta gobernu-gizonak atze-  
tik darabilzkiten kapitalista aundia, geienak judu edo  
ezkontzaz juduerian sartuak direnak. Oargarri da De  
Gaulle'n inguruan ainbeste judu izatea, orain gobernu-  
ko giderrak eskuetan dauzkatena: Jacques Soustelle,  
Michel Debre, Maurice Herzog e.a, e.a. Andre Malraux  
bera bankier baten seme izaki, judusa batekin ezkon-  
dua da, Massu jenerala (zenbaitek faxista bailitzan  
aurkezten dute den bezela! Bainan zenbait judu geia-  
go itzalean egoten direnak, publikoaren ixillik, ez  
ordea finantzetako espezialisten jakinezean... Dakus-  
gularik Mendes-France sefardita gaullismuaren kon-

trakoarena egiten, zillegi zaigu beraz parre egitea: otsoek ez baitute elkar jaten.

Orain arte Frantziar bat banintzan bezela mintzatu naiz. Hala naiz ere legearen aldetik, eta frantzes legeak leporatzen dizkidan zergaordaintze ta beste eginkizunak bete bear ditudan ezker eskubidea daukat De Gaulle'n «eraberritzea» merezi duen bezela epaitzeko. Baina zuberotarra naizen aldetik, Frantziako Errepublikak izate ofizial oroz gabetu duen erri bateko seme alegia, ajola gutxi nuke De Gaulle'n kepis-pean Frantzia sendatze bidetik abia dadin ala, uste dudanez, erorbidetik jarrai dezan, Zuberook eta beste Euskal-erriek zer edo zer itxaron aal ba lezate gobernu berriaren gandik. Horrelako itxaropenik ezin izan dezakegu ordea, Frantziar errepublikanoak -bai eta Charles Maurrasen eskolako pseudo-erregezaleak ere- bata bestea bezain zentrallistak baitira guztiak naiz ezker-aldeko izan ditezen sozialista, radikal eta demokristauak bezela, naiz eskuin-aldeko De Gaulle ta De Guallezaleak bezela. Afrika'ko beltzak ba giña, bear bada gure erritasuna ezagutua litzake, larrua beltzago ta begirune geiago zor baitzaio «gizapertsona»ri Frantzitarren ikuskeran bainan Europarrak baizik ez gera... Nondik zer itxaron dezakegu beraz euskalta-

suna gure errietan galtzera utzi naiz ez dugun Zuberotar, Be-Nafar eta Lapurtarrok? Laguntza gutxi noski «Euzko Abertzale-Alderdi» ofizialaren gandik, demokraziaren konzeptu abstraktua euskal-enda baino maiteago duela erakutsi, baitu orain artean, eta De Gaulle ala ez De Gaulle, uste izateko da aurrera ere Frantziako Errepublikaren zale jarraituko duela, non ez ba du frantzes gobernu berriak Franco'ren Espainiaren adiskidetasuna billatzen, hori ere bai bailitzke... Eta guretzat, eta Bretaña, Flandira, Elsaz-Lotharingia ta Frantziaren menpeko beste erri oinpetuentzat, itxaropen bakarra litzake edo Frantzia egiazko Jaurbide ta gogo-aldakuntza bat gertatzea hala non 1789-garren urtean onartutako kontzeptu universalistak utziko bailitukete Frantzitarrek, bainan beldur naiz hori amets urdin bat baizik ez dela, edo kampak almen batek Frantzia guduz garaitu ondoren guri askatasuna atzera emate... *Quod sit in votis!*

# FRANTZITAR ERREPUBLIKAREN MENPEKO HERRIAK

Hemeretzigarren gizaldian frantzitar errepublikano eta errepublikazaleak goraki mintzatzen ziran «*principe des nationalités*» delakoaren alde, haren araura edozein errik, den txipienak ere, aske izateko zuzena omen baitu; miresgarri ta atsegingarri zitzaizkien demokrata on horieri, Italiano, Txekotar, ungaritar e.a. abertzaleek Austriaren «ustarri»tik aldegitoko zeramazkiten guduketak. Egia da frantzitar askatasunzaleak bazakitela berezkuntza egiten askatasuna merezi dutenen eta ez dutenen errien artean: esaterako don Carlosen ta beren foruen alde borrokan ziar-duten Euskaldunez ez zuten ajolik, ez eta Ingelaterren aurka jazarri ziren Irlandarrez -naiz ta Iriandarrek, XIX garren mendearen asieran 8.000.000 izanik mendebukaeran 4.000.000 soilki gelditu ziranek- piska bat geiago nozitu zuten Ingelesen gandik goian aipatutako erriek, Habsburg'etar printzeen gandik baño... Austria ordea, -Frantziaren «jaiotzetiko» etsaia izateaz gañera, kaiser-erri atzerazale bat zen: Ingalaterra

berriz leenago «jaiotzetiko» etsaia zena, orain Frantziaren lagun ta adiskide (?) zenuten eta bestalde, demokrazia aurrerazale eredugarri bat. Halaber Euskaldun karlistak, Españako liberalen kontra ta erregegai absolutista baten alde jarri baitziran, fanatiko illun batzu baizik ez ziran. Errepublikano aundi batek esan duen bezela: «*Pas de liberté pour les ennemis de la liberte!*».

Ba dakigu beraz frantzitar errepublikanoen ikuskeran erri guztiek ez dutela ein berean askatasuna artzen. Hortan berezkuntza egiten dute Frantziak berak mendeak zear konkistatu ta uztarpetu dituen errien artean ere. Esaterako gertu dira askatasuna emaiara Asian edo Afrikan dauzkaten kolonia ta eskualdeetako populuei.

Indo-Sinan egin duten bezela, Ipar-Afrikan ere egingo lukete «faxista» larru-gogor zenbaitek ez ba lute eragozten... eta poz beitez demokratak oro, ezen orain Kamerum ta Togo'ko gizajaleen billobek ba dituzte beren batzar legegilleak, beren gobernu ta ministroak frantzes legar-ordaintzalleen bizkarretik aberaski bizi direnak. Oraindik bart ere, errepublika «salbatu» berri duen De Gaulle jeneral aundiak, edo obeki esan luzeak, zioskun radiotik Frantziak eta Afri-

kako populuok emendik aurrera federazino bat eratu-ko zutela, guztiek eskubide ta eginbide berekin. Bañan beste jokaera bat dute Frantziatarrek beren menpekoko populuen aldera zoritxarrez larrua ori, beltz edo beintzat beltzaran ez dutenean, esan nai dut, frantzes Estatuaren mugetan barne bizi diren Frantzitarrez besteko populu edo errien aldera.

Alabañan endak izkuntzak, legeek -idatzitakoek edo oiturazkoek-. Edestiak dute erri bat besteetatik berezten eta ikusgune ortatik, Españan Eskualdunak eta katalandarrak aurkitzen diren bezela Españolen aldamenen. Bretaña Aundian Ingelesen alboan Galestarrak eta Eskozitarrak dauden legez, beste sei enderri ba ditugu Frantzian, Frantzitarrez beste Euskaldunak Laburdin, Be-Nafarroan ta Zuberoan; Bretoiak; Nederlandarrak Flandesetan, Rijsal (Lille) uriburuaren inguruan; Alemanak, Elsatzian ta Lotharinglan; Italianook Korzikan; eta Katalandarrak Rosellonen. Erriok Frantziako Erregeek beretu zituzten Edestia zear, naiz guduz, naiz diplomaziaz, naiz ezkontzez edo diruz: Laburdi eta Zuberoa XV garren gizaldian, Bretaña XVI garrenean, Rosellon, Flandes, Elsatzia ta Be-Nafarroa XVIIgarrenean eta Lotharingla ta Korzika XVIIIgarrenean Frantziako koroari batu izan ziran, ez

ordea frantzes erriari: esan nai baitu erregeek utzi zizkietela beren batzar ta legeak, beren oitura ta usantzak, bai eta beren izkuntzak erabiltzeko almena: orduan ez zegoen «imperialismu linguistiko» delakorik. Egia da erri zenbait ez zirela azken almen hontaz bear zuketen bezela baliatu, ala nola Euskaldunak eta Bretoiak, hauiek erdera baitzerabilten beren batzarretan (ez ordea beti frantzesak; gaztelania ta oc-izkuntza ere erabili zituzten Be-Nafarroa ta Zuberoako Euskaldunek, baiña iñork ez ditzalela arri astunegirik orregatik bota; ez al dute berdin jokatu mugaz bestaldeko Euskaldunek beren esku bizi izan diren garaietan ere? Beste erriek zintzokiago jardun zuten jatorrizko izkuntza zor zitzaion maillan atxikiz batzarretan, irakaskintzan ta beste erri-zeregiñetan. Eta XXgarren mendean bizi geranontzat txundigarri ba da ere, gobernuak laguntzen zien ortan: Rosellon Louis XIVgarrenari eman zion Pyrensuetako itunaren ondoren ikusten dugu Errege-Eguzkia neurriak artzen bere eskupeko berriak katalanera ona ikastera mugaz bestaldera joan al-zitezen, adibidez.

1789garreneko jazarmendu edo Matxinada aundiak ordea gauzak alda erazi zituan zearo, ez bakarrik Frantzitarrentzat, errege erregeiñai lepoa moztu ta



Errepublikarri jarri, baiñan bai erri txipiontzat ere. 1789garreneko dagonillaren 4ean jazarleek gizon bakoitzen eskubide bereziak eranzi ba zituzten, uri ta provintzienak ere kendu zituzten: provintzien eskubide bereziok, bada, errien lege ta usantza zarrak ziran, erregeek konkistatu ondoren utzi zikietenak. Urtebetegarrenean, jazarleak urrutiago joan ziran bide ortatik: provintziak berak ezeztatu zituzten ta haien ordezsailketa administrativu berri bat asmatu zuten, erresuma beren naiara departamendutan zatikatuz. Hori egin zuten errien ordezkarien protestak kontuan artugabe, hala nola, Euskaldunak baizik ez aipatzeko. Garat bi anaiena Lapurtarren izenean ta Uhar'eko markis jaunarena Zuberotarrenean. Itzezko protestak soilki ez ziran izan: laster errepublikanoek indarra, edo berak ziotenez latz-ikara («latz-ikara, hura gabe bertutea indarge baita» zion Robespierrek...) erabillibeaz izan zuten gure erriok beren lege berriari amorematerra erakartzeko: oroit zaitezte Pinet eta Cavaignac'en beldur-jaurkeraz Euskalerrian, Carrier'enaz Bretañan. Ez da arrigarri beraz erri txipiek iskilluak artu ba zituzten errepublikanoen aurka beren askatasuna ta bizia zaintzeagatik. Vendee'ko «chouan»ak jazarri baziran erregeari ta Elizari zieten maitasunak

bultzaturik, Bretainia eta Flandesetakoek gudura joan ziran errepublikanoen kontra oroz leen beren erriari zioten eraspeno zela kausa. Eta zio berak gatik frantzes gobernu berria igunduz, Laburdi, Be-Nafarra ta Zuberoako Euskaldunek ixilpeko intunbenak egin zituzten Españaiko erregearekin Errepublikaren kontra. Korzikarrek aldiz, ezin obekiago jakin zuten frantziar errepublikaz apentzen, ogei bat urtez zango-pean errastaka erabiliko zuen Napoleon Buonaparte baten bidez...

Bañan erri txipiek gogor egin arren aal zuten bezanbatean, azkenean garaituak izan ziren, naiz iskilluz, naiz guillotiñaz. Arrezkero besteak bezelako Frantziar batzu baizik ez gera, legearen araura. Lumaukaldi batez 1789garreneko jazarleek gure aitzinako batzar legegilleak gaierazi zituzten: Laburdiko Biltzarrak, Be-Nafarroako Parlamendua, Zuberoatarren Ordenako Gortea, Bretainiako Estatuak e.a. Erritar Zuzenean, frantzes legeak baizik ez du aginterik eta nork ez daki lege arrotz orrek zer zalitasunak leporatzen ez dizkien Euskaldunai, batez ere ondasun jarraikuntzako zuzenean: euskaltasunaren iturburu ta kabi diren etxe-ondoak gizalditik gizaldia osorik iraun erazteko, zer ez dute asmatu bear gure baserritarrek ia orain

artean hori nolaerebaita lortu badute ere, geroago ta zaillago egiten ari zaie, geroago ta baserri geiago atzerritarrai saldu bearrean arkitzen dira Zuberoan, Be-Nafarroan ta Laburdin, halatan non egiazko Euskaldunak urrituz baitijoaz eskualde hauietan, naiz ta, jendearen arauka, jaiotza geiago gertatzen diren heien artean atzerritarren artean baño. Azkenekotz, Errepublikak indarrez frantsez-errian sar erazi gindun ezkerro Euskaldun, Bretoi, Flandestar ta beste erriok, gure jatorrizko izkuntzek ez dute den gutxien izate ofizialik. Asieratik Errepublikanoek erakutsi zuten izkuntzoi zieten gorrotoa. 1794garreneko ilbeltzaren 27an «*Comité de Salut Public*» delako batzarrean, Barere de Vievizac izeneko batek aditzera eman zien batzarkideei zenbat galgarri ziren ta zergatik leen baileen erauzi bear ziren: «*Le Fédéralisme et la superstition parlent bas-breton; émigration et la haine de la République parlent allemand; la contre-révolution parle italien et le fanatisme basque*» eta «*Chez un peuple libre, la langue doit être une et la même pour tous*» (ots askatasunaren izenean, bere mintzairaz itzegiteko askatasuna kendu bear zaio gizonari). Beren eginbidea zer zen ezagutu zuten Barere'en lagunek: denborarik galdu gabe neurriak artu zituzten izkuntza iguingarri

oik itzal litezen askatasuna ta aurrerapenaren onetan, eta politika berari jarraitu diote geroztikako errepublikano guztiek: gaurko egunean, errien askatasunaren erakusle omen den Frantzia zorioneko honetan, euskera, betroiera nederlandera e.a. debekatuak daude ikastolan, auzitegian, gudaletxean, administrazioan, radioan, itz batez erri-eralgintza orotan.

Egia den bezela aitortu bear da, frantzes errepublikaren miresle amorratuak diran euskal-abertzale zenbaiti mingotz izango ba zaie ere: Frantzian ez dute erri txipiek Españan baño askatasunik geigo. Aitzitik, izatekotz Alabañan erritar zuzenean beintzat, Bizkaitarrek eta Gipuzkoarrek beren lege zaarretatik zer edo zer gorde omen dute, eta Nafarroak oraindik ere autonomia administrativu piska bat dauka, azalekoa ba da ere. Mugaz onaindiko Euskalerrria, Bretaña, Flandes, Korzika ta Rosellongo Katalandarrak, berriz, erri diren aldetik edozein zuzenez, edozein izate ofizialez gabe turik bizi dira. Bakarrik Elsatatzek eta Lotharingiarrek ba dituzte lege berezi zenbait, Alemaniaren aldera ingura ditezen bildurrez frantzes Estatuak uitziak; adibidez, Eliza ta Estatua 1905garren urtetik hona berez ba dira Frantzian, Elsatzia-Lotharingietan gobernuak oroindik ere ordaintzen ditu apaiz katoliko ta protes-

tanten eta israeliten rabinen lan-sariak gañera bi eskualdeotan alemanera erakusten da ikas-etxeetan (erderarekin batean, jakiña), eta Radio-Strasburg'ek irratsaioak emateri ditu izkuntza hortan.

Beste gauza bati oartzen gatzazkio Frantzitarren jokaera erri txipiei buruz ikertzen dugularik: erresuma hontan beintzat, Errepublika askoz etsaiago ta kaltekorrago izan zaie monarkia baño. Leenagoko erregeei aski zitzalen lur-eremuez jabetzea; errepublikanoak aldiz lurraldeotan bizi ziren gizonen korputzez eta arimez ere jabetu nai izan dira, bide guztiez, diren garratzenez ere, hortarako baliatuz. Erregeek ez bezela, ezin zezaketen errepublikanoek erri edo endaminoriak izatea jasan: alabañan dogma bat da emen, katoliko batentzat Irutasun Santuarena bezain siñesgarria, «Bat eta Zatitu-Eziña» dela Errepublika. Baterazale ta berdintzale amorratuak izan ziran 1789garreneko jazarleak -eta haien ondorengoa halaber egon diraberen astekizun ta ideologia guztiak hala eskatzen baitzuen. Gizonak elkarren bete direla aldarrikatu zuten, bañan iaiotzez gizonak oro alkarren bete direla uste duenak aisa uste izango du elkarren berdin ere direla, edo, nabarmenegi ba da ez direla, hala izan bear luke-tela. Zentzu oneko edonork badaki endak, izkuntzak,

aspaldiko oiturek eta edestiak dutela erri bat moldatzen. Frantziako errepublikanoek ordea faktore hoik garrantzi gutxiako dauzkate, non ez dituzten besterik gabe ukatzen; heientzako erria adigai abstraktu bat baizik ez da geiago; erri araudi edo konstituzino bat darraizkionek omen dute erri bat moldatzen. Ez da arritzeko beraz Poloniako ghetto batean jaioriko judu bat, bai eta Afrikako beltz bat, aitzin-eritzirik gabe Frantziako erritartzat onartzen ba dute, mundu guztiko «aurrerazale»en goraiпуak horrela irabaziz. Bañan bestaldetik, ukatuko dute Euskalerrria (mugaz honaindikoa bederen), Bretaña, Flandes-erria e.a. egiazko erria, ots, aberriak direla. Eta bestera uste eta nai duten Euskaldun, Bretoi edo Flandestarrak, edo ergeltzat edo traidoretzat dauzkate.

Euskal-abertzale batek edo bestek -demokrazia Euskadi baño areago maite duten haietatik- uste izango dute noski Errepublika beztu dudala lerro hauietan eta egotziko didate bearbada jadanik entzundako ateraldia duket Euskalerrriak, Bretañak, Korzikak eta beste erri txipiek, erri diren aldetik askatasunik ez ba dute Frantzian, hori beren erruz dela, pozik daudelako frantzes izanaz eta delako askatasunik eskatzen ez dutelako bañan eskatuko balute errepublikano biotz-

zabalok dudarik gabe emango liekete. Nago itsuak ala azal-utsak diren horrela pentsatzen dutenak... Egia da Frantziaren menpeko Euskaldunak geienak ez direla oartuki abertzale, mugaz bestaldekoak diren neurrian. Nola izan litezke ordea? Abertzale izateko bear du gizonak bere aberriaren berri jakin, bere enda ta erriaren edestia ezagutu; bañan hemengo Euskaldunak Errepublikako eskoletan irakatsi izan zaizkion gezurrei esker; ezer ez daki Euskalerrriaren historiaz, iñolaz ere ezin dezake susma gure erria leenago bere buruaren jabe izan dela, Frantziaren zati bat ez zela. Gogora zaitzete «Laburdi», «Zuberoa», Be-Nafarroa» izen soilak ere ez direla Estatuaren aldetik ezaguturik; Giputz batek beintzat oraindik jakin dezake zer den Gipuzkoa, hartan bizi baita. Mugaz honaindiko Euskaldunok, berriz, ez gera Euskal-errian bizi, «Basses-Pyrenees»-etan baño...

Bañan Estatuak eta Eskolak gure nortasuna itzal araztea arren mende ta erdi hontan egin dituzten alegin guztiak gatik ere, oraindik badira abertzale-igikundeak aipatu ditudan sei errietan, eta hori miresgarri da, kontuan artzen ba dugu zer baldintzetan ari diren lanean. Orain dala ogei bat urte, Frantziak Alemaniaren kontrako gudua galdu eta atzeritar gudariak

haren lurrea zeudelarik, aski nabarmenki buragertu ziran abertzale-igikundeok. Ergelkeria litzake delako abertzaleak maixeatzea, «nazi»ekin lankidetu zirelakoan. Irlandarrek ba dute esaera bat: «*England's difficulty, Ireland's opportunity*». Zuzen ta bidezko da geuk ere halaber joka dezagun zangopetzen gaituen Estatuaren aldera.

1940garren urtean Errepublika lurtatu zanean, ba zirudien garai berri bat astera zijoala Frantziaren menpeko erri txipientzat. Petain mariskalaren gobernuak -ez dakit bere oguz zen, ala atzerritarrek ala nairik-askatasun geixeago ematera zijoan erresumako eskualde bereziei beren nortasuna lant aal zezaten, eta ba zen aipua aitzinako provintziak berriz ere zarriko zituztela departamenduen orde. Bañan 1944garren urtean -zeinbatentzat «liberazino» aren urtea izan ba da ere- berriz ere frantzitar zentralisten uztarpera erori gera osoki. Beren erriaren alde zerbait egitera saiatu ziren abertzaleak errukirik gabe persegiturik izan ziran, Alemanen lankide izandako Frantzitarrak baño lazkiago noski; aipa Goihenetxe Euskaldunen artean, Petru Rocca Korzikan, Gantois apaiz jauna Flandesetan. Bretainan bereziki, ugari baitziren abertzaleak erri hontan, izugarriko sarraskiak egin zituzten



emakume ta aurrak erailduz, presondegian ezarriz e.a. Ez dago hori aztutzerik eta bein, goiz ala berandu, gure apentzaren ordua etorriko da noski. Hala uste du beintzat.

# HERRI SAINDU ETA DEMOKRATIKOAREN PARABOLA

*(Marc LEGASSEri barkhamendu eskatuz  
parodia asusi horren gatik. J.M.)*

Lehen ba zen berri saindu eta demokratiko bat. Euskalherria deitzen zena. Baina Euskaldunak zorigaitz handitan bizi ziran, ez baitziran beren gain bizi.

Hegoaldeko Euskaldunak erresuma arrotz baten menpean zeuden, Europako harroena zena. Gehiago dena, erresuma arrotz eta harro hori diktadura bat zen; hartan kapitalistak, militarrek eta elizgizonak, ziran nausi. Kapitalistak aberats ziran, baina behardunek: lurginek, langileek eta berheziki intelektualek kasik ez zuten dirurik zezeketen ikhustera joaiteko ere; diru ukhaltekoz bortxatu ziran militar edo elizgizon edo bertzela futbolista egitera. Militarrek oso gaiztoak ziran: jende gaztea soldado joaitera behartzen zuten, euskal-baserrietako muthil zintzoak barne. Erromako Elizak, azkenean, zuzenak oro zeduzkan: katoliko ez zirenak persegitzen zituen: liburuak gona

motzak, bi zathitako igeri-jantziak eta dantza lothuak debekatzen zituen. Eta Euskaldunek oroz lehen libertatea maite baitute, ikhus zuhauek zein dohakabe zeuden horrelako erresuma baten menpean.

Iparraldeko Euskaldunak ere erresuma arrotz baten uztarpean bizi ziran, bere ustez munduko argituena zena. Erresuma arrotz eta argitu hori izenez Demokrazia bat zen, baina ez izanez. Ezen han ere aberatsak eta behardunak ba ziran, eta egiazko demokratek dakiten bezala, egiazko demokrazia batean -populudemokrazia batean- ez da aberatsik: oro behardun... Han ere militarrek ba ziran beharbada Hegoaldeko erresumakoak baino gaiztoagoak, ez baitzuten bakharrik jende gaztea soldado izaitera eramaiten, bainan gerlarat ere, euskal-baserrietako mut-hil zintzoak barne. Egia da gerla horietarik zenbait Zuzentarzunaren eta Demokraziaren alde izan zirela (horiek dira gutienez miliun bat soldado erorten diren gerla handi ohoragarriak) eta Euskaldunak botzik joan ziran gerla horietarat. Bainan gero militarrok hasi ziran gerla ttipi eta berekoien egiten, beren erresumako lur-zathi batzuen begiratzekotz eginak!... Euskaldun demokrata bakezaleek nehola ere ezin onhar zitzaketanak. Azkenekotz, erraiten dudan Ipharralde-

ko erresuma hortan atheistak eta Hargin Beltzak luzaz nausi izan ziran; Erromako Elizak ez zuen kasik batere zuzenik bertze gisaz pensatzen zutenen persegitezkoetz, ez eta liburuen, gona motzen, bi zathitako igerijantzien edo dantza lothuen debekatzekoetz. Eta Euskaldunak, Harri-aroaz geroztik katoliko on direnak, asko dohakabe ziran Eliza gure Amaren aldeko erdeinu horren gatik.

Bertzalde, nahiz Hegoaldeko nahiz Ipharraldeko Euskalherrian, herriko mintzaira, euskara maite paregabea Lurreko parabisuan mintzaturik izan zena, sekula izan den hizkuntzarik garbiena eta jakintsuena, gaizki erabilten zuten bi gobernu atzerritarrek. Ez zuten eskoletan irakasten, ez eta hauzitegietan, kazernetan edo administrazionean libre uzten. Euskaiherria bere gain bizi izan zen aspaldiko dembora eder heietan ere, ondikotz! hala egiten zen: auzoko bi erresuma arrotz, bekhaitz, gaizto horien influentzia zela kausa. Horrengatik euskara maite paregabea batzaiteko orde z 8 dialektutan eta 25 subdialektutan zatikatua zen, hala non Euskaldun anaiek elkhar enthelegatzekoetz behar zuten erdara itsusi motzean hitze gin. Zer gauza bihotzerdiragarria Ama Euskalherriarentzat!...

Zio (kausa) guzti horien gatik Euskaldun zorigaiztokoak bortxatu ziran beren Herri zoragarriaren uztera eta herbesterat joaitera hala nola Ameriketarat (Euskaldunek zuten Amerika ediren, K.K.K. eta Eirik Gorriak baino askoz lehenago). Han aberasten ziran, libertatean bizi ziran, bainan fedea galtzen zuten eta beraz, han ere, dohakabe zeuden.

Halarik ere, hain gaizki bizi arren, Euskaldun bakezale demokratek ez zuten gudurik nahi beren herri lillurugarriaren libertatearen ardiestekotz. Egia da Hegoaldekoak zer edo zer egitera entseiatu zirela, beren abaila eta ezpatekin etsaiaren aireplan, oldargurdi eta kanoinen kontra zuthituz, bainan, nahiz Jaun Goikoa haien alde zegoen, beren Lege Zaharra galdu zuten. Ipharraldeko Euskaldunak zentzatuagoak ziran; heiek ere beren herri xarmantaren libertatea nahi zuten ororen gaintetik, bainan, giristino eta demokrata on bezala, zin egin zuten ez zutela odolik ixur eraziko libertate horren ardiestekotz; beren zuzen onean fidantzarik aski zedukaten segur izaitekotz erresuma arrotzek, egun batez, beren gain eta beraz zorientsu bizi izaitera berriz utziko zituztela. Eta haiduru zeuden.

Arrazoin zuten Euskaldun zinto horiek. Ba zen orduan mundean *zerki* miresgarri bat, ONU deithua, Demokrazia eta Zuzentarzuna bazter guztietan zaintzen zituena. ONU horrek libertatea eman zerauen herri menpetuei orori: Lehenik Afrikako kulturaherri zahar ederrak galtzetik salbatu zituen horrela: Sanghak, Lundak, Okandak, Aplinglak, Mandingak, Songoak, Kakongoak, Bakangoak, Musorongoak, Minungoak, Edonongoak, etc. Gero Asiakoak: Kazakhak, Turkmenak, Txetxenak, Uzbekak, Kirkhizak, Buriatak, Tadjiak, Samoyedak, Buruxoak, Buruxoroak, etc. Gero Amerikakoak: Eskimoak, Irokesak, Araukandarrak, Blackfootak, Aztekak, Toltekek, Gugeanoak Quitxuak, Khakatsuak, etc. Azkenean, larru beltz, hori eta gorri guztiak libratu ondoan, Europako herri merezidunekin hasi zen: Lapoinak, Makedonak, Sorabitarrak, jerseytarrak, Guerneseytarrak, Kornubitarrak, etc. Eta azken azkenean, Euskaldunak ere bai.

Euskaldunek beren elizetan Te Deum ozen bat khantatu zeraukoten Goiko Jaunari. Gero zuhaiz-petan bildu ziran beren biltzar, batzar, burubatzar eta zinbi-deetan Euskalherriaren geroari buruz deliberatzekotz. Ez zituzten deliberamenduak euskaraz egin, bainan lpharraldeko edo Hegoaldeko erdaraz, munduari erak-

hustekotz ez zutela kultura-imperialismurik atzoko bi erresuma menperatzaileek bezala bai eta bata bertzearen hobeki aditzekotz. Ezen kontu handizko gaiez deliberatu zuten.

Lehenik, nor izanen zen Euskalherriaren buruzagia erabaki zuten. Ez zuten nahi izan gizon bakhar bat izan zedin, hori Hegoaldeko erresuma arrotz harroaren etsempluari jarraitzea izanen baitzen. Ez zuten nahi izan batzar bat izan zedin, hori Ipharraldeko erresuma arrotz argitua eredutzat hartzea baitzatekean.

Gauza oso beregisakoa, eta beraz oso euskalduna, asmatu zuten: hirur gizon izanen zirela Euskalherriaren nausi, bainan hirurak ongi hautatuak. Lehena, Euskalherri Hegoaldeko kapitalista bat, ez baitzuten segregazionerik batere egin nahi, antirazistak izaki. Bigarrena, Euskalherri Enbata-aldeko pelotari bat, pelota euskalkirol edo joku zahar zaharra baita, euskal-kulturako elemendurik premiazkoena, eta Euskaldunak munduko laur hegaletan famaturik egin dituen (cf. frantses verba *peloter*). Eta hirugarrena, Euskalherri Ipharraldeko kalonje bat, karitate giristinoz bezainbat jakitatez betherikako gramatikalaria, euskararen 8 dialektuen 25 subdialektuetarik bat oso ederki zekiena.

Hirur gizon hautu horiei esker Euskalherri berria herri libre eta demokratiko bati dagokion araura bizi izan zen. Erran gabe doa demokratak ez zirenak pre-sondegian ezarri edo desterratu zirela, populua segurtarzunean bizi ahal zedintzat. Aberats gaiztoei gudu egin zeratieten; alabaina, ba dira aberats onak ere: erraiterako, Euskalherri librearen gobernu libre lagundu zutenak; hauk, natural den bezala, ohortuak, xingolaztatuak, begiratuak eta zainduak izan ziran. Bainan gizon guztiek berdin balio dutela eta, euskaldun gobernu demokratikoak legez erabaki zuen bankierrak bertzeak bezalako gizonak izanen zirela, salbu eta aberatsago.

Demokraziaren hobeki finkatzekotz, auzo-erresumetarik jin militargoa harroa dena khendu zuten eta haren orde z euskaldun gudari jathorrak ibeni zituzten, herriko mugen zaintzekotz, ordenaren begiratzekotz, gobernugizonen gerizatzekotz; zenbait aldiz, gerla egitekotz ere. Bainan ez lehen bezalako gerla imperia- lista itsusiak, norberaren erresumaren ohorea edo handitarzuna gatik egiten ziren gerla berekoiak, bai- zik-eta Demokraziaren eta Zuzentarzunaren aldeko gerla ederrak. Ezen munduko larru beltz, hori edo gorri guztiak ordukotz libre ba ziran ere, noizik behin



eztabaidak eta gathaskak gerthatzen ziran heien artean. Orduan ONUk bidaltzen zituen Lapoinak, Kor-nubitarak, Euskaldunak eta Europako bertze populu libreak Afrikarat, Asiarat, planetarat... arrazoin zedu-kanari (erran nahi baitu, larrua beltzago zuenari) laguntza ekhartera, eta Euskaldunak botzik eta khan-tari joaiten ziran ONUk agindu lekhuetarat. Hanitzek azken ohoragarri bat aurkhitzen zuten Afrikako giza-jaleen sabelean, Asiako burhezurbilhatzalleen bildur-netan, etc., eta orduan medalla ederrak emaiten zitzaizkien heien etxekoei.

Gero Euskalherriko hirur buruzagiek euskara sal-batu zuten. Hortan ere oso zintzoki ibili ziran ordea. Burubero edo mehe batzuek nahi zuten erdara khen-du edo behintzat bigarren mailan ezarri; eta «euskara bat-eta-landua» egin. Bainan hori diktadura bati dago-kio, ez zinezko Demokrazia bati, huntan bakhoitzak nahi duen bezala mintzatzeko zuzena baitu. Horren-gatik, gehiegikeriok utzirik, euskararen 8 dialektuak eta 25 subdialektuak hizkuntza ofizialtzat hartu zituz-ten; bertzalde, auzoko bi erdarak; bertzalde, latina, Eliza gure Amaren mintzaira delakotz; bertzalde, anglesa, salerospenetarako balio duelakotz. Ez bakha-rrik hizkuntza, bainan euskal-kultura ere salbatu

zuten, Euskalherriko Unibertsitate guztietan, doktrinaz (katiximaz) eta pelota-jokuaz bertze, euskaldun bertsolari xoragarrien bertso zaharrak eta bertso berriak, bertso jarriak eta bertso botatuak sakonki istudiatzen hasi baltziran, atzerriko sasi-idazle eta poetak bazter utziz.

Azkenekotz, zorioneko Euskalherri libratu hortan, Elizak bere zuzenak berriz eduki zituen. Hastapenean, integrista gibeloien zenbaitek Protestantak, Hargin Beltzak eta juduak ohildu nahi izan zituzten. Baina hori ere Demokraziaren kontra izanen zen, baita eta gainera Aita Sainduaren manhamenduen kontra. Beraz, aski izan zitzaizkien Euskaldun katoliko onei egiaz galgarri eta eskandalgarri diren sekten desterratzea: adventistak eta adventista reformatuak, bahaistak, pagano zaharrak eta pagano-berriak, biokosmikoak, darbysta herriak eta darbysta zabalak, homosexualak, mazdasnandarrak, neo-agnostikoak, neo-apostolikoak, neo-pazifistak, neo-palladistak, neo-spiritualistak, sayercetarrak, oomotistak, tritritaristak, libre-pentsatzaileak, eta bertze pentsatzaile guztiak. Gero liburuak, gona motzak, bi zathitako igeri-jantziak, dantza lothuak, eta bertze gauza guztiak debekatu zituz-

ten. Orduandunik Euskaldunak ez ziran bakharririk libertatean *bizi* izan, bainan berthutean ere bai.

Eta egun oroz Euskaldunak biltzen ziran zuhaizpetan, beren biltzar, batzar, buru-batzar eta zinbideetan, eta goraki khantatzen zuten: «Libertatea, zeinen eder den».

Eta gau batez, gordailuz, gudari mugazainak hil eta, guztiek Ameriketarat ihes egin zuten.

# IGELAK AZKEN HITZA BERE

Zenbaitek ez diote gure IGELARI barkatzen ur-benedikatu untzietako igel heletarik ez izatea. Fransesek dioten bezala. Adibidez ENBATA argitaratzen duten muthil zintzoek.

Berriz ere erran behar dugu gure aldizkaria sorthu genduela Euskaldunen edo bederen euskal idazleen artean ohar emaiten genituen tabu ugarien erauzte-kotz, hala nola sexualitatearen ez aiphatzea, eliz-gizonen ez hunkitzea, euskaldun nazionalisten ideologia baxarra izan omen daitekela, kristau-demokraziari ez oldartzea, e.a. Ez du horrek erran nahi gu lizunzale edo antiklerikal garenik are gutiago bertzelako doktrina politiko bat aldarrikatu nahi dugunik gure aldizkariaren bitartez. Baina zinez uste dugu holako tabu gehiegi atxikiz gure literatura bethi zainhil, mugatuai aspergarri egonen dela. Aitzitik ikhusten dugu bertze herri gutiz gehienetan, gurea bezain saindu eta aratz diren herrietan ere idazleak mintzatzeko libertate askoz gehiago dadukala, irakurle batzuen iritzi edo aintzinitziak hunkitzen baditu ere. Gehiago dena, ba dakigu gure herri bereko bertsolari, koblakari eta ipuinasma-

tzaileak mintzatzeko libertate hortzaz baliatzen direla: hain zuzen ere, IGELAn publikatu duguna erdiaz goiti euskal-folkloretik hartua izan dugu (eta ikhugune hortarik behintzat, agian interes aphur bat ezagutuko deraukute euskalariek).

Hala uste zina genduen. Zuzenez ala okherrez, bertze hauzi bat da. Dena den, IGELAren lehen numeroa athera baino lehen, gure asmoak agertu genizkien euskaltzale eta euskal-idazle askori, aldizkariaren probak erakhutsi ere batzueri. Guztiek gure egingaia onhartu zuten orduan egin zerauzkiguten kritikak IGE-LAren itxuraren gainean izan ziran (hizkuntza, hiztegia e.a).

Erran gabe doa ez genduela hargatik ENBATAren iritzia eskatu, hau politikazko kazeta bat baita, frantsesez egina, euskarazko literaturarekin zer-ikhusirik ez duena. Halaz eta guztiz ere, gure lehengo numeroa argitara eta hurrengo ENBATA-k (1962 artikulua bat gutzaz ekharten zuen, hartan erraiten baitzeraukun zer egin behar genduen eta zer ez egin, erreient (eskola-maixu) batek bere menpeko haurrei predikatzan derauen seiostasunarekin.

*Sutor ne supra crepidam* ENBATAko politikari argituek zuzen osoa dute naski, merkhatu komunaz, Al'D-

jezair-eko gerlaz edo Espainiako langile-ophorrez duten aburuaren iratzekotz, edota Euskaldunei erraitzekotz nola jokatu behar duten beren herriaren salbatzekotz (hortarako berak aski zuhur eta jakintsu direla iduri ba zaie).

Bainan nehondik eta nehola ere ez dadukate esku-biderik geuk hautatu dugun zuzenbidean (euskarazko idazkuntzan) guri leitzione egiteko. Horregatik gure bigarren numeroan garbiki erran genduen zer pentsatzen dugun gutzaz egin zuten aiphamen hypokritaz.

Gogorki mintzaitu ginen, agian, ez ordea injustoki. Bainan heien legearen pera ez makhurtu nahi hori anhitz gaitzitu zaie ENBATAko jauntxoei eta beren azkenengo numeroan (1962-ko buruilakoa «Amelioration d'Igela» titulua emanaz; eta gibeletik, hartan jorratzen baitu IGELA, aldizkari satirikoa omen dena, zeinen merezimendia baita osoki euskaraz izkiriatura izatea J. Mirande-n eta D. Peillen-en arthaz.

Hala dio gutzaz ENBATAK. Gainerakoa, delako irakurlearen eskuthitzetik hartua omen da. Bainan irakurle begiragarri eta begiratu horren izena ez baitakar artikuluak, emaiten dugu ENBATA atheratzaileek haren erranak ontzat hartzen dituztela eta hauei derauegu ihardetsi nahi.

ENBATA-ko artikulu berri hortan gure kontra erraiten diren laidoetarik «puskatzea, laphurtzea, ebastea, bortxatzea, eta erhaitea ere laket zaien *blousons noirs* delakoekin gu konparatuz» gure buruaren zuritzeko ez dugu phenarik hartuko laido eta salhakuntza horiek irri-egingarri direla baltakite IGELAREN irakurleek eta, beharbada, ENBATA-ren irakurleek ere bai.

Gure balio intelektualaren aldeko kritikak ere ez gaitu gehiegi axolatzen. Euskaraz lan seriozik egin, egiten eta eginen badugu ere, irri egin erazteko publikatzen dugu IGELA, bertzeen eta guhauren kostuz. Ergelek edo iztarbegiek baizik ez dute gure aldizkari umil hortan sakontasun sataniko bat bilhaturen. Bertzalde, ongi ba dakigu satirian ere ez garela Rabelais eta Voltaire batzuen heinerat heltzen, ENBATA-k erran beharrik gabe. Bainan, geu ere konparazionetan aritzeko Enbatakoeri erranen deratiegu «euskaldun nazionalista omen den aldizkari hori S. Haran, Labeguerie, J. L. Davant eta bertze zenbaiten arthaz erde-raz idatzia dena» arthozki irakurri ondoan, ez dugula uste burges on horien artean nehor badela Sabin Arana Goiri batekin berdint ditekeanik edo atzerrian gure adibideen hartzeko Irlandako O'Connell, Kataluniako Companys, ez eta Britainiño Mondrel, Hego-

Flandreseko Gantols, Korsikako Petru Rocea batzuekin.

Halaz ere ez dugu nahi bata bertzeen merezimen-  
duen gainen literaturan edo politikan polemika bat  
hasi ENBATAko-ekin. Baina, hauiek hain moralzale  
direnaz geroz, nahi dugu gure arteko hauzia moralaren  
tontorretaraino eraiki.

Moralaren aldetik, ba laiteke es generala hek eta  
heien kaperakoak bezain aratz, giristino on e.a. Behi-  
nik behin gu ez gara sekula ibili azpijokutan eta faltsu-  
kerian gure herritarren aldera, uste baigenduen ez  
zela hori euskaldun manera, eta ez dugu nehoiz herra-  
rik (gorrotorik) predikatu bertze Euskaldunen ere-  
tzean.

ENBATAko gure etsaiok -hitz hau jakinaren gai-  
nean darabilt- Euskaldunen batasuna nahi dutela  
oihukatzen dutelarik (eta ondikotz, beren elhe zurie-  
kin lilluratu dute hegoaldeko Euskaldun on bat baino  
gehiago, hemengo gauzen berri ez dakianik) gorrotoa  
eta aiherkundera baizik ez dituztela ereiten herritarren  
artean, ez bakharrik IGELAREN kontra, bainan heiek  
bezelaxe pentsatzen ez duen edonoren kontra ezin  
ukha dezake kazeta erdal-euskaldun horien artiku-



luak, «irakurleen eskuthitzak» (ongi hautatuak) e.a. irakurtzen dituenak.

Geu ENBATAkoak bezainbat euskaldun nazionalista gara eta hek nazionalismua ediren baino lehen halaginen. Halarik ere, ari diren bidetik jarrakiz -hemen ere, heien jokhabide morala aipatu dut, ez heien politikaren egia edo gezurra- uste dugu on baino kalte gehiago egiten zazkiola gure Herriari. Horrengatik, gu ere aholku emailetarik bagina, gure aholkua heiei hauxe lizateke: «*pour une auto-suppression d'ENBATA*».

# KULTURA ETA FOLKLOREA

Europa federal baten barruan, bere nortasuna, bere etnia jatortasuna begiratuko dituen Euskal Herri batentzat borrokatu nahi dugu; beraz izpiritu zuri eta lotsorri beldur emateko lain den ekintza bat gogoan hartu behar dugu, eta nahiz politika itxura beharrezko duen, gure xedea ez da abertzaletasun ohil eta kanpotarren etsaikerian sartuko dena: Marc Legasse-k, non-bait zioen bezala, gure herria euskalduntzera inguratzeko gaituzten atzerriek bortxatu gaituzte. Baina jarraitzen dugun xedea kulturazkoa da.

Egiaz abertzale artean, azken urteotan, euskaldun kultura asko aipatzen entzuten da. Baina zer diogu horrekin? Beldur naiz ainitzentzat euskaldun-folklore erran nahi duela. Artean, zer da folklorea? Bere etimologiaren arabera, german eta satson herrietan herri batek bere gogozko eta lanezko esperientzietan, ohi-ituretan bildu dituen jakitateak dira, eta bere metafisika gogoeta, eta mitologia erausten dizkiguten ipuinak barne diren bezala, joku eta lanaren tankera zaharrak teknikaren aldetik barnean daude. Hala mugatu folkloreaki Kondairari eta Euskal Ekonomiari bezala inte-

resatzea komeni, zaio naski bere herria osoki ezagutu nahi duen euskaldun bati, kontuan hartuz gainera bere jakin egarria asetzeko nahiko elementu eman izan zaiola Azkue eta beste Ikertzale zintzo batzuen lanen bidez: hala nola Julio Caro Baroja edo J. M. Barandiaran.

Baina Frantzian eta orokorki latin herrietan herri baten jolasketak folklore izendatu ohi diran, hala nola kirolak, kantikak, dantza eta jauziak, eta hala euskaldun kultura hedatzea eta gordetzea aipatzen denean, herri kantak, dantzak, kirolak gordetzea eta hedatzea da.

Naski gure kiroletan edertasun, jaukaltasunik bada; berdin dantzetan, eta gure bertsolarien kopletan humore... Baina euskaldun kultura hortara Muga-tzea, edo kulturaldetik garrantzi berezia daukala, sinestea, frantses kulturak Becaud-en kantetan duela bihotza, eta amerikar kulturak base-ball-ean erraitea litzateke.

Zer da beraz euskal kultura? Egiaz ez da zuzen, nere ustez, euskaldun kulturaz mintzatzea, kultura hitzari bere adierazpen osoa emaiten baldin bazalo bederen. Europar badago, gurean, beste herrietan bezala tokiko ikurra duena, edo, nahi bada, europar

«kultura ziklo» bat badago eta herri bezala haren barnean gaude, ez jende, ez frantses edo espainol herri-tar Legean. Euskaldun kulturaren alde lan egitea helburu denean, europar kultura hortaz jabetzea on da, bereziki Beltzen eta Orien abertzalketasun borroka-riak jotzen duenean, Nietscheren izu deia guri zuzen-dua dago: izan gaitezen Europar on! Guretzat euskal-dun bezala hortaz jabetzea eta ekitea beharrezko da, eta euskararen bidez halabeharrez.

Bitxi iduri baldin bazaizue ere, uste dut Shakespeare, Poe, Sofokles eta Platon itzultzen duten euskal-tzaleek lan beharrezko bat egiten dutela, eta abertza-le zentzu egiaiago bat ez badute besteek baino, begi-raleak baino argiago direla nola nahi, zeren horiek herriak utzi zorian edo zeharo utzirik duen dantza piko bat salbatzea bakarrik nahi dute, edo sekulan jantzi ez diren soinekoak kontserbatzea. Gainera gogoz, biho-tzez, hizkuntzaz ezinago euskaldun izan diteke, nahiz arin-arina baino cha-cha-cha gogoanago eta poker musa baino, edo biak baino java (Pariseko dantza) eta belota (frantses karta joku errezena). Berriz ere, guzti horrek herri baten bizitzan ez dauka garrantzirik.

Aitortu behar dut euskaraz eta euskaldunentzat egiazko kultura baten alde obratu dutenek mende

erdiz gaizki zuzendu zituztela beren aleginak, beren egin ahalak; jakitate guztia gatik, ideologia alderdikarien gatik eta abar, problema nagusi asko aterabidegabe gelditu baitira, hala nola euskara idatziaren batasuna... Guri doakigu beren irakatsiez baliatzea, hobeki egiteko edo hobeki enseiatzeko. Zeren haiek baidigute bidea erakutsi.

Baina euskaldun folklorea eta kultura nahastea, eta lehen hori bakarrik gordetzeko lan egitea eta hala euskaldun nazioaren gogo bizitza salbatzea, iñora eramaiten ez duen bazter bide itsua da, desilusio garratza ez bada; zeren, gogoko ala ez, «gordezaile» eta «begiraieek» jarraituriko ohiko joku, dantza eta kantak bazter utzirik, euskaldun herriak bere kondairan beti egin duen bezala, berriki egin edo kanpotik etorritakorik hartuko du, eta molde berri horiek euskal folklore bilakatuko.

Herri batek bere folklorea egiten du; gauza argia da, nere ustez, eta alper iduri zait lehengoaren, aintziaren maitale esteta eta intelektuai batzuen gandik inposatu nahi izatea. Tamalgarri dena, hainbeste borondate on eta talentu borroka antzu batean higitzen ikustea da... Nahikoa eta aski da begien irikitzea, ikasteko nola gurea bezain apala den egoeran bizi

ondoren, azken ehun urteotan herri batzuek beren etnia-nortasunaren errespetua irabazi duten, izan dadin politika jabetasunarekin edo gabe, beren ohiko dantza eta kanten alde lan egiteaz oso bestelako bide-tatik, hala nola Fintar, Flamandar, Galestar...

Aitzitik beste batzuk gu bezala folklore erdi-hil bat begiratzen alperretan nekatzen dira, artean beren herri nortasuna egiten dutenak galtzen direla: hizkuntza, lege ohitura eta gizarte ohituraz, arraza batasuna, etabar. Hala Irlandan, non eta abertzale kar batekin hasi baitziren joan den mendean, gaeliko atleta-kirol, gaeliko dantza, gaeliko «hurlin», gaelikoa (hizkuntza) hiltzen ari zen bitartean; ondorio bezala, gaur, herri aske den batean herri kontzientzia egiazko baten hutsunea eta bere ondorengoekin: kanpotar zapalke-taren denboran baino ingleste sakonago, ekonomia-ren gelditze, erbesteratze, herria jendez hustutze, etabar. Zoritxarrez, gaelikoz idatziriko liburu batean hori guzti garbi agertzen da; askatasuna geroztiko liburua, gazte batek idatzia bera: *Saoirsegan Sô* (joritze gabeko askatasuna), *Seân de Ferine*, Dublin 1960. Hala izanen ote da Euskal Herrian?

# LIBURU LIZUNETAZ

Euskarazko «liburu lizunei» buruz Bizkaiko bi euskaltzalek Euskal-Oriya hunetan eman dituten eritziak arrthaz irakurri ditut, garrantzi bat ez tipia baitaduka hauzi horrek euskeraren problematikan.

Eztabaidan sartzean Abandotarri erranen deraukot, «itxalik aundijenaz» nik ere, Euskaldun antzo neholaz ere ez ditzakedala haren aburu batzu onharrt.

Khristarr zintzo batentzat, hitz dorpheen erabil-tzea eta idazki pornographikoen irakurtzea bekhatu andi dela ba laiteke... Bekhatua, ordea, hizkuntza batetan edo bertzetan egonik ere, berdin handi da nik dakidanez. Zergatik ez dugu beraz geure hizkuntzan eginen, gure arimari kalterik gehiago eragiten ez zaio-larikan?

«Euzkeraz eztago, biraurik eta birau egiten daben euzkeldunak erderaz egiten dabe...», aspaldiko lelo hori, Euskaldunetaz erran ohi diren pseudo-egia anhi-tzatarik bat baizik ez da. Nik segurik euskara iatho-rrezko zazpi burhau gothorr eta bertze hainbat kantu zikhin, ene Zubero-herrian ikasiak, ezagutzen ditut, baita piadoski erabiltzen ere, nire aiten aiten ganika-

koak dirala-ta. Eta Zuberotarrok gaineratiko Euskaldunak baino areago garenik gai hortan, nik ez dut uste. Euskarazko hitz lizunik ez izaita, bertze hizkuntza guzietan ediren ditezkelarik, harrigarri lizateke. Zergatik eta zertako Euskaldunen wuldbe-berezizaiki bat asmatu nahi duten zenbaitek, ez dakhusat.

Abandotarren hitzetarik, euskaltarzunak soilki khristarrtaazuna edo, hobeki erran, katholikotarzunaren begiratzeko bide izan beharr lukeela dirudi. Bera katholiko dela agiri baitu, haren joera haur enthelegatzen dut bainan gogoan harr beza, arren! oro ez garelain hain katholiko sutsu. «Euskaldun, fededun» dio bertze lelo zaharr batek. Fededunago garentz, ezenez bertze gendeak dudatzen dut. Euskal-gogaren idio-plasman aitzinako paganismuaren hondakinik asko edireiten ahal ditu edozein psykologuk edo folklore ikhertzailek. Eta oraiko euskaltzale ta aberrtzaleen arrtean, pantheistak, neopaganu bai eta atheistak ere ba gagoz -edo- ta khristarr-theistak egon arren berhain Vatican-zaleak ez garenak herri orotako intelligentzan bezalaxe. Euskaldun «heterodoxo» hoietaz guti mintzaten dela nahi dut, eta ez da miresgarri: batetik oraindanoko euskaltzale gehienak aphezak izan baitziran eta bertzetik, euskal aberrtzaleen kopu-



rua alderdi konfessional baten khide baitira. Badarik ere horrgarade... Zer uste dute Abandotarrak eta Euskaldun-fededunzaleak, ala endakatu batzu gerala? Odolak, hizkuntzak, bai eta nahiak ere egiten dute Euskaldun. Ez baptismak.

Odolez eta hizkuntzaz edonor bezin euskaldun gara (non ez garan euskaldunago...) eta hala izan nahi dugu ere. Aitzitik, Romako Eliza eta Haren seme zintzoenak zenbat aldiz ez dira gure nazionalitatearen aurrkha ibili... (exempli gratia, Iñaki saindu handia...); eta aphez euskaltzaleok euskaltzale izan direla, ez aphez zirelakotz, bainan aphez ziren arren, erran dioguz. Hitz hauietaz ene herrikiderik anhitz skandalizaturaren diradela ba dakit, baina egia derrat.

Dio Abandotarrak: «Baten batek uste ba-dau euzkerea gauza guztijen ganetik maite biarr dogula, okerr dago». Bai, okherr dago, ezen gure euskalduntarzunak ez luke bihotzarekikoa izan beharr, maizegi denez, baizik gure izalki-alde guztiekikoa, onak eta txarrak. Euskara maita? Zergatik? Hizkuntzalariek edo litteratur idazleek ezik, gizonak ez ditute hizkuntzak maite edo higuin: heletan hitz-egiten dute edo ez dute egiten. Guk, Euskaldun izaiki, euskaraz hitz-egin nahi dugu, eta euskaraz geure olde, irrits, gogorapen eta

ametsak oro agerrtu, aratz ala likhits izan ditezeen aburuz.

Espainoltzen (eta frantzesten) ba gara endakatzen garela egia da; eta atzerritik kultur-ondarzunik iasaitekotan, tangoak, malagueñak edo cante jondoa baino, bertze zerbait hobe gendukela iasan, nik ere uste dut. Bainan ez gure ekandu onen zaitzeagatik! Enda bat ez dute ekandu onak egiten, alegia. Eta Espainitarr edo Frantzitarren ganikako «onak» ere, gure endakatzea lekharrkigukete azkenaz bertze.

Katholiko-zurrian mintzatu dela, ez Euskaldun-zurrian, aithorr du Abandotarrak: «Ludi onetan bixixateko ta betiko atsedena lortuteko euzkerea bide ona da, garbija dalako, baña zikiña ta txarra balitz, aldi orretatik bertatik nik euzkerea lagako neuke». («Zer eginen luke» bada? Mintzul egonen?? Zorion baituke kutsutzarrik batere ez duen hizkuntza batño aurkhitzen ba du, munduko laur hegaletan bilhaturik ere...) Katholiko danetik, hizpidean dago. Garbizale-tarzun-mota horrek ere, ordea, zer kalte eragin eta eragiten deraukon euskarari, aski nabari da. Nola izan laiteke bertzera? Frantsesezko liburuetarik Katholiko-ek zeinen irakurtzea zilhegi zutenen index bati so nintzaion aspaldi ez duela: literaturaren eretzean valio

zerbait zuten guztiak eragotarik zegozela oharrtu nintzan.

Gure oraiko idazkuntza gehiena hain idor ba da, ez da beraz arrigarri. Euskal idazleak Mariaren Alhabentzat baizik ez lukeela idatzi beharr ba dirudi... Gure lehen auktorak ez ziran hain herabe, eta Biziaren egia gordinak ere azaltezen zituten, beharr-orduan; baina egungoak, aphezak baino aphezago izan nahi dute!

Iahve-ren bigarren herri hautetsia egin gura lukete zenbaitek Euskalerritik baina hortakotz ez gara oraino aski judu... Euskaldunen herri izan dadin aski izan bekigu, othoi.